# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-06-24
EGUBAKOITZA
470. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


## Irizar eta Velasco Tourrera


Markel Irizar.


Iban Velasco.

Debagoienak lehenengoz izango ditu bi ordezkari ziklismo proba handienean | 28



Irakurzaletasunaren Astea deitu du Jardun euskara elkarteak | 16

Eskubide guztien defentsan, Eleak ekimena abiatu dute | 17



12:00etan irtengo da parrokiatik Oñatiko Corpusetako prozesioa | 22

## Lurraldebusek igo egingo ditu tarifak uztailean

%1,8 euro garestiago izango da | 4

## Uda ona izango da, zaparrada handi eta bero zakar barik | 4

## "Aralar prest dago Bilduri lagundu eta bultzada emateko aldaketari"



**Rebeka Ubera** | Aralarko batzarkidea | 8

## Saharako eta Txernobilgo 13na ume datoz gurera | 5

## SINADURAK

JUAN MARTIN ELEXPURU | 6
6 | MIRIAN BITERI
ANDER ETXEBERRIA | 13
20 | NESTOR ARANA
LIERNI ALTUNA | 26
40 | MIKEL IRIZAR


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38


# HASI DIRA SANJUANAK ARRASATEN!



Atzo ezkero jaietan murgilduta daude arrasatearrak. Asteburu osoa dute aurretik, eta ekintza ugari jaiak ondo pasatzeko. Martitzenean, berriz, Eskoriatzako sanpedroek hartuko diete lekukoa. | 12

Txosnagunean jaurti zuten, atzo eguerdian, jaiei hasiera emateko etxafuegoa. | JOKIN BEREZIARTUA

# 'Heltzen' jaio da, errepidean biktima bat ere egon ez dadin

- Bideko segurtasuna hobetzea da haren misioa
- Jendartearen topagune izateko sortu dute
- Oñatiko Cegasa enpresa patronatuko kidea da



Suhiltzaileak lanean Olandixoko tunelean iaz egindako istripu simulazio baten. | GOIENA

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Trafiko Zuzendaritzak urte hasieran jakinarazitako datuen arabera, iaz, euskal errepideetan, 2009an baino istripu gutxiago izan ziren (55, hain zuzen, 2009an baino bederatzi gutxiago), baina horien ondorioz hildakoen kopurua ez da txikitu (bietan, 67), eta hori, azken urteotan kopuru hori urtetik urtera txikiagoa izan ondoren.

Larritzeko moduko beste datu batzuk argitaratzen dira Trafiko Zuzendaritzaren beste txosten baten: 1.600 gidariri egindako galdeketa baten, gizonezkoen %43ek onartu zuten alkoholaren edo drogen eraginpean gidatu izan dutela; eta 18 eta 25 arteko gazteek, bereziki, hainbat jokabide arriskutsu izaten dituzte –abiadura-mugak gainditzea edo telefonoz hitz egitea gidatzen dabiltzan bitartean.

Argi dago zer hobetua badagoela bide-segurtasunean. Eta horretan aurrera bultza egiteko aurkeztu zuten joan den astean Heltzen Fundazioa (*www.heltzen.org*). "Jendarte zibilaren topaleku" izateko bokazioarekin jaio da, eta helburu nagusiak hauek ditu: "mugikortasun segurua lortu, bideko arriskuen gaineko kontzientzia piztu eta istripuak galarazi". Euskadi Fundazioko presidente Miguel Madariaga eta Trafiko zuzendari izandako Andoni Arriola dira presidentea eta presidenteordea, eta dagoeneko automobilgintzako, eraikuntzako eta errepide-mantenuko enpresek bat egin dute ekimen horrekin.

Hala, horrelako enpresek osatzen dute Heltzen-en patronatua; tartean, Oñatiko Cegasak. Iñaki Madina arduradunak honakoa dio: "Cegasak trafiko arloko unitate bat dauka, eta Heltzen Fundazioarekin bat egiten dugu, euren helburu berberak lortu gura ditugulako. Gura dugu, gure errepideak diseinatzen direnean, kontuan har daitezen ez bakarrik obra zibila, baizik eta seinaleztapena, horrek babesa edo arriskua sortu ditzakeelako. Horiek gehiago hartu beharko lirateke kontuan".

**Oinezkoak, txirrindulariak...**

Orain bi urte bide segurtasunaren inguruko jardunaldi baten sortutako kezka bati forma emanda sortu da Heltzen. Andoni Arriola Eusko Jaurlaritzako Trafiko zuzendaria zen garai hartan, eta erronka hari eutsi zion. Orain, Heltzen-eko zuzendari orokorra da. Fundazioaren jomuga ez da bakarrik gidaria: "Kalea eta bideak konpartitzen dituzte oinezkoek, txirrindulariek, motorzaleek, auto-gidariek... Mugikortasun segurua lortu gura dugu".

Hori lortzeko, "ez gabiltza lehen adina txarto, baina oraindik hobetzeko asko dugu", bere iritziz. Osalanek joan den astean jakinarazitako datu batzuk aipatzen ditu –2006 eta 2010 artean baja eragin duten lan-istripuen %8,16 trafikoko ezbeharrak izan dira (baja eragin zuten 224.417 istripuk, eta 18.321 trafikokoak izan ziren)– ilustratzeko "laneko mugikortasunean asko hobetu" daitekeela oraindik.

Beste arlo bat ere aipatzen du: "Gazteekin lan handia egin daite-

## Heltzen fundazioa, begirada baten

**ZER**
Bide-segurtasunerako euskal fundazioa da Heltzen. Jendarte zibilaren topagune izateko jaio da, helburu nagusi batekin: mugikortasun seguruagoa eta iraunkorragoa lortzea.

**KONPROMISOA**
Zirkulazio-istripuak galarazteko eta prebenitzeko bideak topatu nahi ditu, eta horretarako askoren arteko ahalegina sustatuko du: automobilgintza, eraikuntza, errepide-mantenimendua, zirkulazio-kudeatzaileak, herritarrak...



**ERRONKAK**
Honakoak hobetzea: bide-segurtasuna lanean, errepideak, arauak, bizi-kalitatea eta hezkuntza; bestalde, jendartea kontzientziatzea eta parte har dezan lortzea; segurtasun-teknologia berriak garatu daitezen lortzea; eta arriskua txikitzea, batez ere gidari gazteendako.




**PROIEKTUAK**
Astelehenean, kode penalaren gaineko jardunaldia egin zuten, eta 170 entzule izan ziren. Umeekin hezkuntza proiektu baten parte hartu nahi dute, eta ohitura onen liburuxka bat egin.





ke. Gazteek samurrago egiten diote jaramon esaten zaienari".

**Errua, gidariarena**

Kontzientzia handiagoa izatea denon kontua da: "Jendea kontziente izan behar da istripu bat edozeini gerta dakiokeela; bestalde, gidariak konbentzitu behar ditugu hobeto gidatu dezaten eta solidarioak izan daitezen bidea erabiltzen duten besteekiko. Istripu gehienak gidariak arreta galdu duelako gertatzen dira", esaten du Arriolak.

Arreta-galtze hori gidaria "larregi fidatzen" den lekuetan gertatzen da batez ere, Arriolak dioenez: "Herri barruan edo etxera ailegatzen gabiltzanean, begiak itxita gidatzen dugula esaten dugu, eta askotan, hala da. Telefonoz dei egiten digute, burua okertzen dugu, euria egin du... eta autoa joan egiten zaigu".

Kaltetuena oinezkoa da: "Erdigunean, 50 km/h-ra baldin bagoaz, istripuz oinezkoa hiltzeko arrisku handia dago; 30 km/h-ra, askoz txikiagoa da. Erdiguneko espazio hori oinezkoarekin konpartitzen gabiltzanez, gidatzen doana oinezkoarengana moldatu behar da".

Eta herri kanpoko errepideetan, "istripuak egon daitezkeen lekuetan, abiadura %5 txikituta, istripu hilgarriak gertatzeko arriskua %20 txikitzen da".

Heltzen-en iritziz, "gure jendarteak ezin du errepidean heriotza gehiago jasan. Bide-segurtasunaz hitz egiten bagabiltza, biktima bat ere ez dugula nahi esaten gabiltza. Heltzen-en lehentasuna pertsonak dira; tartean, modu jasangarriagoan gidatzea lortzen badugu, are hobeto, baina lehenengo pertsonak daude".



HELTZEN

**ANDONI ARRIOLA**
HELTZEN, ZUZENDARIA

## "Gurekin lan egitera animatu nahi ditugu norbanakoak eta enpresak"

Eusko Jaurlaritzako Trafikoko zuzendaria izandakoa, Itsaks bide-segurtasun auditoriako burua da Andoni Arriola.

**Trafiko zuzendari izanda, ikuspuntu berezia ekarriko duzu Heltzen-era...**

Daukadan esperientzia ekarriko dut, baina, batez ere, asko dakidan jendearekin ditudan harremanak. Denon artean egin beharreko lana dugu, eta denok batera urrutiago ailegatuko gara.

**Zazpi enpresa daude patronatuan.**

Errepideetan lan egiten dute denek, eta ikertzen dabiltza praktika eta produktu hobeak lortzeko, eta bideak seguruagoak eta erosoagoak izan daitezen.

Kolaboratzaile asko izan nahi ditugu, eta enpresak eta norbanakoak animatzen ditugu horretara. Denoi zabalik dago Heltzen.

DATUA

**43**

GIZONEZKOK 100-ETIK

Alkohola edo drogak hartu ondoren gidatu zutela onartu zuten inkesta baten.

DATUA

**50**

GIDARIK 100-ETIK

Horiek dira, galdetuta, istripurik edo zigorrik inoiz izan ez zutela esan zutenak.

## Berritasun asko trafiko zuzendaritzan

**AUTOMATIKOA** CATIT izeneko zentroa martxan jarri zuen Trafikoak hilaren 15ean: arau-hausteak izapidetzeko zentro automatizatua. Espedienteak azkarrago tramitatzea, komunikazio-epeak txikiagoak izatea eta berme juridikoak hobetzea ahalbidetzen du.

**BHE** Bideko Helbide Elektronikoan izena eman daiteke (*www.dgt.es*). Horren bidez, orain arte paperez bidaltzen ziren trafiko notifikazioak e-mailez eta poltsikoko telefonoan jasoko ditu norberak; Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzako notifikazioak ere bai.

011 trafikoa

Informazioa, 011 zenbakian. | GOIENA

**TELEFONOA** EAE eta bere lurralde mugakideetako trafiko informazioa 011 telefonoan lor daiteke ekain hasieratik ezkero.






# "Uda ona egingo du: zaparrada handirik ez, ezta bero zakarrik ere"

Pello Zabalak udaren gaineko iragarpena egin du, hilaren 15ean, 17an eta 18an izandako tenporei eta 15etik 22rako kontratenporei begiratuta

**MIREIA BIKUÑA** | ARANTZAZU

Asteon bukatu dira kontratenporak. Horien eta tenporen interpretazioa egin du, urteko beste sasoi batzuen antzera, Pello Zabalak. Haren hitzetan, "uda ona izango da. Zaparrada handi barik eta bero zakar barik".

Tenporak izan ziren hilaren 15ean, 17an eta 18an eta kontratenporak hilaren 15etik 22ra. Azken urteotan, aste osoa hartzen dute kontuan, kasu honetan, uda nolakoa izango den interpretatzeko. "Hasieran, tenporen hiru eguneko haizea hartzen genuen kontuan. Ondoren, Zuberoan, Bizkaian eta baita Gipuzkoako hainbat lekutan begira, jakin izan dut aste osoa hartu behar dela kontuan. Amezketako artzainaren ustez, kontratenporen azken eguna, hau da, hilaren 22a, da inportanteena", esan digu Pello Zabala frantziskotar eta eguraldi adituak. Bada, eguaztena giro goibelarekin hasi zen eta apurka-apurka hobetzen joan zen. Antza, bilakaera bera izango du udak.



Bainulariak, Usakon, fresko-fresko. | KONTZEJUPETIK

### Mendebaldekoa nagusi

Tenporen egunetan haizea hartzen dute aintzat eta kontratenporetan, gainerako guztia. Pello Zabalaren ustez, udak aurrera egin ahala, hego-mendebaldeko haizea nagusituko da, *Gorbeianoa* delakoa, eta horrek ekarriko du zeruan lainoak egongo direla, baina epel egingo duela. "Asteon gertatu bezala, tarteka, fronteak pasako dira, baina euri txikia utziko dute", dio Zabalak. Gaineratu digu egun urdin-urdinak ez direla oso ohikoak izango: " Zerua garbitzen duen ipar edo ipar-ekialdeko haizerik ez da ibili tenpora egunetan. Mendebaldeko haizea izan da nagusi eta horrek eragiten du Galiziatik gureraino. Baina tarte horretan ditugu itsasoa eta mendiak, eta olatu bat bezala eragiten du. Itsasotik umeltasuna sartzen da eta mendi inguruetan lanbroa sortzen du. Euri langarra izan dezakegu, baina kantitate txikian".

Zabalaren ustez, tenporetan falta izan da hegoaldeko haizea. Horren harira, udan ez du bero zakarrik egingo. "Azken egunotan ikusi dugu bero sargoria egin duela Espainiako Estatuan. Haize barik sortzen den bero horrek borraska termikoa sortzen du, eta lainoak bidaltzen ditu Pirinioetara. Ondoren, ekaitza lehertzen da", azpimarratu digu. Azken egunotako ekaitzak ez dira gurera heldu. "Akaso ekaitzek eragina izango dute Nafarroa hegoaldean. Baina, oro har, euri gutxi egingo du. Litro gehien Galizia aldean botako du, eta baita Pirinioetan ere", esan digu.

Oro har, "uda sanoa eta dotorea, euri gutxikoa" izango dela esan digu.

**ESANAK**

**"Mendebaldeko haizea izango da nagusi: lainoak bai, euria ez"**

**"Ekaitzek eragingo dute Nafarroan eta Pirinioetan"**

**PELLO ZABALA** | EGURALDIAN ADITUA

## Gomiztegira eta Jakionera bisitak aste bukaeran

**M.B.** | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak antolatzen dituen VIII. Jardunaldi Gastronomikoen barruan, hainbat irteera egingo dituzte aste bukaeran. Aipagarrienak dira Gomiztegi baserrira bisita (hilaren 25ean, 11:00etan), artzain-txakurren erakustaldiak (hilaren 25ean, 11:00etan) eta Jakion Debagoieneko eskualdeko barazki eta fruta-kontserba enpresa eta gatz museora bisitak (hilaren 26an, 11:00etan). Bisitetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da, hauetako telefonoren baten: 943 79 64 63 eta 943 71 89 11.

### Garaiko produktuak

Debagoieneko VIII. Jardunaldi Gastronomikoak hilaren 15ean aurkeztu zituen Mankomunitateak. Oraingo honetan, Oñatiko Etxe-Aundi eta Goiko Benta; Bergarako Lasa eta Zumelaga; Leintz Gatzagako Soran; eta Arrasateko Hilarion, Santa Ana eta Hamalau jatetxeek parte hartuko dute. Azken hori lehen aldiz izango da.

Jardunaldi Gastronomikoetan, garaiko produktuekin egindako menu bereziak eskainiko dituzte uztailaren 31ra arte: oraingoan, barazkiak, hegaluzea eta esnekiak izango dira.

Jatetxe bakoitzak erabakiko du produktu bakoitza nola prestatu eta menuak zein egunetan eman. Jardunaldien aurkezpenean Ana Heriz Mankomunitateko Turismo teknikariak esan zuen menu bereziak probatzen dituztenei inkesta bat betearaziko dietela eta guztien artean bi lagundendako afaria zozketatuko dutela.

## Lurraldebusko tarifak garestiagoak izango dira uztailaren 1etik aurrera

**M.B.** | ARRASATE

Uztailaren 1etik aurrera Lurraldebusko autobusen tarifak igo egingo dituzte. Igoera, oro har, %1,8 izango da, baina paperezko txartelak autobusean erosten dutenek edo txartela erabiltzen dutenek ez dute berdin nabarituko. Izan ere, txartela gidariari erosten diotenei bost zentimora borobilduko diete prezioa eta Lurraldebus txartela erabiltzen dutenei, zentimo bakarrera.

### Urbanoan ere bai

Igoera berbera aplikatuko dute Arrasateko urbanoaren erabilpenean. Honako hauek izango dira prezio berriak uztailaren 1etik aurrera: hilean bidaia bat eta 40 bidaiaren artean egiten duenak 0,74 euro ordainduko du bidaia bakoitza –orain 0,73 euro da–; 41 eta 70 bidaien artean egiten duenak 0,37 euro bidaia bakoitza –orain, 0,36 euro– eta, azkenik, 71 bidaiatik gora egiten dutenendako ez dago igoerarik: 0,12 euro ordaindu beharko dute bidaia bakoitza, orain bezala.

**DATUA**

**%1,8**

EURO

Hori da Lurraldebusko txartelek uztailaren 1etik aurrera izango duten igoera.

### Geltoki aldaketak

Bestalde, Pesak hainbat aldaketa egingo ditu datozen egunetan Aretxabaletan eta Arrasaten. Azken horretan, sanjuanengatik, hainbat geltokitan ez da autobus zerbitzurik egongo. Gaur, hilak 24, bihar eta etzi Garibai etorbidea moztu egingo dute 08:45etik 09:15era arte. Hori horrela, hango geltokia Nafarroa etorbidera eramango dute.

Bestalde, uztailaren 1etik aurrera Aretxabaletako AZBEko geltokia kendu egingo dute. Horren ordez, autobusak Txarapean geratuko dira –Lausittan eta Portasolen ere bai.

## Irene Alberdi bergararra da Ulma Taldeko presidente berria

**T.MADINA/M.BIKUÑA.** | OÑATI

Ulma Taldeak presidente berria du aurreko astea ezkero. Hilaren 17an urteko ohiko batzar nagusia egin zuten Ulma Taldekoek eta Irene Alberdi bergararra aukeratu zuten presidente kargurako. Azken lau urteotan presidente izan den Xabier Mugartzaren lekukoa hartu du.



Irene Alberdi. | ULMA

### Handling Systems

Irene Alberdi Donostian dagoen Nafarroako Unibertsitateko Industria Ingeniarien Goi Eskola Teknikoko industria ingeniaria da. Ulman 1997an hasi zen, Handling Systems Negozioan. Kooperatiba horretako organo ezberdinetan parte hartu izan du 2010eko maiatzean hango presidente kargua hartu zuen arte. Taldeko lehendakaritzarekin bateragarri egingo du.

Marta Gomez Aldai | UNED-Bergarako idazkari akademikoa

# "Aurten , Administrazio Publikoetako Zientzia Juridikoak ditugu"

Datorren ikasturtean zuzenbidearekin lotutako titulu berria eskainiko dutela jakinarazi digu

M.B. | BERGARA

UNED-Bergarak datorren ikasturteko eskaintza akademikoa aurkeztu du asteon. Urtarrila ezkero hango idazkari akademiko da Marta Gomez Aldai. 30 titulu inguru eskainiko dituztela jakinarazi digu, besteak beste, datozen lerroetan.

**Nolakoa izango da eskaintza?**
Azken urteotakoaren antzerakoa izango da 2011-2012 ikasturteko eskaintza, berritasunen bat badago ere. Ia 30 gradu eskainiko ditugu. Horretaz gain, graduondo ofizialak, hizkuntzak ikasteko programa berezia, etengabeko formaziorako ikastaroak eta Bergaratik zuzenean antolatzen ditugun ikastaroak daude. Batzuk aurrez aurrekoak dira, eta, hortaz, ez dute UNED-en metodologia jarraitzen; beste batzuk, Internet bidezkoak; eta azkenik, mistoak daude.

**Titulu berririk bai?**
Bai. Graduetan Administrazio Publikoetako Zientzia Juridikoak titulua eskainiko dugu lehen aldiz. Karrera berria da, eta, nik dakidala, UNEDek bakarrik eskaintzen du. Arlo juridikoko karrera da, administrazio publikoan lan egiten duen edo nahi duenari zuzenduta dago.

**Irakasle ikasketak, noizko?**
Ez dakit esaten. UNEDek aspalditik du asmo hori; gainera, jendeak eskatzen duen gradua da. Gertatzen dena da ikasketa horiek eskaintzea erabaki zuenerako krisian murgilduta geundela, eta martxan jarri ahal izateko diru asko behar da. Ez da Administrazio Publikoetako Zientzia Juridikoena bezala, zuzenbidearen adar bat dela.

***Krisia* hitza aipatu duzu. Ikasle kopuruan eragina izan du?**
Beste unibertsitate batzuetan baino gutxiago igarri dugu guk, oraingoz. Ikasle kopurua mantendu egin dugu. Igartzen dena da gure ikasle batzuk tamalez langabezian geratu direla, eta oso motibatuta dabitzala ikasten. Lehen poliki-poliki egiten zutena orain azkarrago egiten dabiltza. Beste batzuek, langabezian ez badaude ere, lanpostua kolokan ikusten dute, eta birziklatzeko titulua ahalik eta azkarren ateratzen saiatzen dira.

**Azken urteotan Bolognara egokitzeko ahalegin berezia egin duzue. Dagoeneko %100ean dago egokituta?**
Ez, bi urte falta dira. Poliki-poliki goaz prozesu horretan. Duela bi urte hasi ginen eskaintzaren erdia Bolognara egokitzen; beste erdia iaz hasi zen.



Marta Gomez Aldai. | MIRIAN BITERI

**Nolakoa da UNED-Bergararen ikasleen profila?**
Ez dira 18 urteko neska-mutilak, bakarren batzuk badiztugu ere. Jende gehiena heldua da, 35 eta 50 urte bitartekoak. Gizonezko eta emakumezko kopurua antzerakoa da, ez dago alderik.

**Bestalde, amaitzear dagoen ikasturtea obra artean eman duzue. Nola moldatu zarete?**
Oso gogorra izan da. Espazioa galdu dugu, igogailua egiterakoan; sufritu ere, asko sufritu dugu, obrek iraun duten bitartean lanean egon garelako. Baina, pozik gaude emaitzarekin. Igogailua oso ondo dator.

**Amaitu aurretik, nola doaz udako ikastaroak?**
Ondo. Ekainaren 9an hasi ginen Bilbon, ELA sindikatuarekin batera antolatu genuen ikastaro batekin. Oso harrera ona izan zuen horrek. Oso ikastaro interesgarriak ditugu; tartean, Nafarroako konkistaren gainekoa dago.

**"Irakasle ikasketak martxan jarri ahal izateko diru asko behar da"**

# Saharako eta Txernobilgo 13na neska-mutiko datoz aurten gurera

Urtero moduan, bi hilabete emango dituzte; abuztuaren amaieran itzuliko dira

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Gurean ditugu ostera ere Saharako eta Txernobilgo umeak. Urteroko *Oporrak bakean* programaren harira, haur sahararrak bi hilabetez izango dira gurean. Aurten ohi baino lehenago etorriko dira, uztailean beharrean egunotan dira etortzekoak; eta abuztuaren 22an edo 23an itzuliko dira kanpalekuetara.

Nubi elkarteko Agurne Juldainek azaldu du Leintz bailaran ume bat gehiago etorriko dela aurten. Kanpalekuetatik sei neska-mutiko datoz Arrasatera; beste bat dagoeneko herrian dago osasun arazoak direla-eta, eta zortzigarren batek Tolosa eta Arrasate artean emango ditu oporrak. Juldainen esanetan, ume horrendako azken urtea da, eta, aurretik bi herri horietako familiekin egon denez, hilabete bana pasako du bakoitzarekin. Aretxabaletan, joan den urtean hiru ume izan ziren eta aurten lau egongo dira. Azkenik, Bergarako Bubisher elkartearen bidez neskatila bat izango da uda partean Antzuolan.

**Sei, Oñatira**

Bestalde, Txernobilgo 13 umek igaroko dute uda ibarrean. Sei haur etorri dira Oñatira, hiru Bergarara, bi Arrasatera eta bi Aretxabaletara. Chernobil Elkartearen bitartez etorri dira horietako sei; astelehenean iritsi ziren. Gainontzeko zazpiak, ordea (Oñatira datozen seiak eta Bergaran egongo direnetako bat), atzo, eguena, heltzekoak ziren, Banoia Chernobilekin elkartearen bidez.

Oñatikoa da azken elkarte hori eta bertako ordezkari Arantxa Zubiak esan digu sekulako mesedea egiten diela gure arteko egonaldiak: kolorea izugarri hobetzen zaiela eta pisua irabazten dutela. Neska-mutikoek ez ezik, gurasoek ere izugarri eskertzen dute Euskal Herriko familien ahalegina; baina boluntarioek pozik egiten dute egiten dutena, horren adierazgarri da gehienek errepikatu egiten dutela.



Arantxa Zubia, Txernobilgo neskato bat besarkatzen, iaz. | GOIENA

**DATUA**

**4**

SAHARAR

Ume bat gehiago izango dute aurten Aretxabaletan. Hirutik laura pasa da.

**ESANAK**

**"Nahiko ondo doa kanpaina; familia berri bat daukagu"**

AGURNE JULDAIN | NUBIKO KIDEA

# Etzi egingo dute Intxortako ibilbide tematikora bisita gidatua

M.B. | ELGETA

Uda honetan ere Intxortako ibilbide tematikora bisita gidatua egiteko aukera eskainiko du Debagoieneko Mankomunitateak. Datozen egunotan hitzordu bikoitza dago. Etzi, domeka, egingo dute udako lehenengo bisita; elebiduna izango da hori. Bigarrena, ostera, uztailaren 3an egingo dute; kasu horretan, euskaraz eskainiko dituzte azalpenak.

Parte hartzeko interesa dutenek aurretik eman behar dute izena 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakian. Internet bidez ere egin daiteke izen-ematea, *turismo@debagoiena.net* helbide elektronikoan. 16 urtetik gorakoendako sarrerak 5 euro balio du; 7 eta 15 urte bitartekoendako, 2 euro; eta hortik beherako umeek debalde egin ahal izango dute ibilbidea.

**Hiru orduko irteera**

36ko gerra Euskal Herrian oinarri hartuta, ibilbide horretan Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera dago. Ibilbidea Elgetako Espaloia Kafe Antzokitik abiatuko da, 10:00etan; lehendabizi, antzokian bertan dagoen interpretazio-gunea bisitatuko dute parte-hartzaileek, eta jarraian, bost kilometroko ibilbide tematikoa egingo dute, oinez. Besteak beste, Intxortako magalean zeuden lubakien lehen eta bigarren lerroak, lubaki egokituak eta gudarien txabolak ikusi ahal izango dituzte gertutik. Horretaz gainera, ibilbidean zehar, informazio panel, argazki, testigantza eta 1936ko urritik 1937ko apirilera arte iraun zuen Elgetako fronteari buruzko hainbat datu jasoko dituzte. Hiru ordu inguru irauten du irteerak.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin
JUAN ZELAIA
XI. Saiakera saria
antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.
Saria: 9.000 €
Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.
Irailaren 30a arte
Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauak: www.pamiela.com


## ZABALIK



**JUAN MARTIN ELEXPURU**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Herriko mapa

Hereñegun erregalo politta jaso neban Estepan adiskidiaren eskutik: *Bergarako Toponimoen mapa. Eskala: 1/15.000.* Labetik etara barri-barrixa. Mapa honekin borobiltzen da orain dala hogetaka urte hasittako lana. Sasoi hartan dozenaka grabaziño egin zien auzoz auzo lekuizenak jentian ahotik jasotzeko, ez dalako bakarrik fixau bihar eskritura zaharretan agertzen dienekin. Gero, dokumentutan agertzen dien izenen jasoketa eta sailkapen zorrotza egin da, Udalaren *www.bergarakoeuskara.net/toponimia* lekuan kontsultau leikena. Jo daigun Osintxuko Bitxurtu basarrixan bizi garela eta jakin nahi dogula zein dan bere jatorrizko izena. Ba Interneten sartu eta azken bost mendetan 25 aldiz dokumentauta topauko dogu: Berasyartu (1547), Beresiartu (1761), Viachurtu (1857)... eta Bitxurtu (oingo ahozkoa); Beatxurtu ofiziala. Hola beste izenekin be. Gaiñera, klik egittia nahikua da basarrixa mapan kokatuta agertzeko. Ikusgarrixa!

**"Holako lanen erreferentzia eta eredu bihurtuko da duda barik"**

Papelezko mapak auzo, basarri, erreka, mendi eta beste leku esanguratsuak argi asko erakusten dittu. Auzoetako eta Bergara kaleko planuak be badazkar. Primerako laguna udalerriko baztarrak hobeto ezagutzeko eta karamelo bat toponimia-zaliendako. Izan be, lekuizenak era askotako historixak eta misterixuak gordetzen dittue bere barruan. Esate baterako: zenbat *Agirre* agertzen dan Bergaran (eta beste nunahi). Dokumentuetan *Agirre*, baiña esan *Agarre* edo *Agerre*. Zergatik? Zer esan nahi dau Agirrek? Leku agirixa, eguzkitsua? Baiña zergatik agertzen da basarri edo labrantza lekuei lotuta eta ez baso edo mendixei?

Baillarako beste herri batzutako mapak be argitaratuta dare asko: Aretxabaleta, Oñati eta abar, dotore gaiñera. Bergarakuak Interneteko plus hori dauka, eta urtetako dokumentaziño lan serixua. Holako lanen erreferentzia eta eredu bihurtuko da duda barik. Zorionak egileei.

## USTEAK USTE

**MIRIAN BITERI** | 'mbiteri@goiena.com'

# Hartu-eman birtuala?

Twitter ezagutu dut egunotan, lana dela-eta. Lehenengo Facebook etorri zen; orain Twitter. Ordubeteko ikastaroa eman ziguten orain dela aste bi Goienako telematikari Jon Berezibarrek eta Maider Arregik, eta jarraian, bertan saltseatu eta lagun berriak egiteari ekin genion kazetariok. Aitortu beharra daukat sare sozialak ez ditudala oso gustuko; hartu-eman birtuala baino, nahiago dut parez parekoa. Baina sare sozialak erabiltzen hasi eta onartu beharra daukat gure lanerako ezinbesteko tresnak direla; bat-batekotasuna eskaintzeaz gain, beste bide batetik agian eskuratuko ez genukeen informazioa lortzea ahalbideratzen dute. Ongi etorri, ba, Twitter!

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | 'http://goiena.net/iritzia/'




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Matematikarik baleki

**Pello Zabala**
http://berria.info/blogak/pellozabala/

Nori eta haizeari erakutsi matematika?

Akabo!

Ez zen ez aire eta ez haize izango.

*Ez dago kristaurik* (hala esan ohi zen nire etxeko sukaldean) airea matematikaren lezio ta hesi karratuetan lotuko duenik!

Ni gehixeago ausartuko naiz: *Ez dago Aita Jainkorik, Bere eta bere Semaren Aire librea inoiz lotuko duenik!*

Hauxe baita, hauxe baitugu, gure txoko bakoitzeko eguraldiaren erantzulea: aire xume mantxo kalmoxoa batzutan, aire haizetua, bestetzutan; haize haserre desegokituz malapartatua, inoiz.

Klimatologiako datuak profitatuz, matematikak ematen digu batezbesteko ohiko eguraldi joera.

Baina, hori ez da joera besterik, eta batezbestekoa.

Haizeak eta bere arima den aireak, eguaro ta giro propialak, aro bakoitzari dagozkionak prestatzen dizkigu.

Gu bizi garen tokian, Iberiar penintsularen iparreko golkoaren txoko berexituan, zortzi haize, ta bakoitza ongi seinalatua, baitauzkagu.

Eta zortzietatik bakoitzak, mantxoago nahiz haserrexeago, ekarri guztiz ezberdinak eta anitzak oparitzen baitizkigu.

Jakina, datorren tokitiko etorrian, hangoxe generoa eta bertako fruitu naturalenak ekartzen dizkigu: itsasotik datorrenak, esana dago, itsasoko uraren emariak.

Penintsulako ordoki altu lehor idorrak zeharkatuz datorren haizexkak, terraje hartako iharra, besteak beste.

Aurten 8 haizeen bisita izan al dugu, akaso?

Ez.

Iparrak (N) ez du apenas mutturrik sartu.

Frantzipar (NE) edo haizegorriak ere, ez du tarte garbirik hartu oraingoan.

Ekialdeko (E) nafar haize ongarriak ere oporrak hartu ditu aurtengoan: berau izan ohi da egonkortasun luzetxuena ekarri ohi diguna; lastima!

Hego ekialde (SE) mediterranear airosidadeekikoak ere, ez du gurekin ezertxo ere jakin nahi izan.

Giro epel buru aringarri horretakorik ere, ez zaigu egokitu.

Andaluziako hego (S) erreak ere ez du bisita asmorik azaldu: uda partean, hobe! (Halere, badirudi asteburu ta astelehen hurengoetan Afrika aldeko lamada beroaren berri eman nahi digula, laburtxo batean bederen).

Ezagunago ibili ohi da, normalean, hegomendebal (SW) harroxka.

Gaur zortzi egunok apuntatzen hasi ginenetik, *keinualditxo pare bat* egina du, erdi diximuluan bederen.

Aipatu dizkizudan 5ok, N, NE, E, SE, S, ez gaituzte bixitatu.

Eta, horrenbestez, W mendebal aipatuaren uda, eta SW eta NWren esku joan daiteke gure hurrengo aroaldia.

Horien zehaztasunak, eta besteen keinuttikiak, nondik nora ibili diren, bihar saiatuko gara ikusi eta zertzelatzen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**: Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

# San Jose de la Montañari esker ona

**Rosa Maria Fernandez Learra**
(Adrada sendiaren izenean)
Oñati

Bizitzak hain opari handia egiten digunean, umiltasunaren eta eskerrak ematearen garaia iristen da, eta berbak aukeratzea zail egiten da. Are gehiago, oparia bizitzako une garrantzitsuetan datorrenean.

Orain dela gutxi gure amama hil da San Jose de la Montañako zaharren egoitzan. Eskerrak ematen dizkiegu Jainkoari, amei eta pertsonal sanitario guztiari, amamak eta familiak jaso dugun zaintza eta maitasunagatik.

Lan isila da, zalapartatik kanpo eta batere errekonozitua ez dagoena. Denoi iristen zaizkigun une zailetan bakarrik, eta intimitatean, eskaintzen diogu errekonozimendua. Agian horrela izan behar du; izan ere, argia eta maitasuna pribatuan bizi dira eta zaratak uxatu egiten du.

Horrela, apal-apal, gogoratzen ditugu San Josen konpartitzen diren laztan, musu, dantza, abesti eta irriak. Eta familiarekiko erakutsitako laguntasuna, bukaera gertu zegoela ematen zuen egunetan, eta egunok asko izan ziren.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, amamari eskaini zenioten bizitza eta heriotzagatik, amodioz betetako eskaini diguzuen zaintzagatik, fedeaz haraindi eta esperantzatik gertuago. Bada, konfiantza eta esperantza gizakiarengan, gure bihotzetan ere hazi da. Beti arte.

# Getzetik–Iruñera 2011

**Rafa Stxez Muxika**
(Nabarralde)
Bergara

Azken urteotan bezala, datorren domekan, ekainaren 26an, berriro ere Noaingo Gatazkaren hitzordua dugu Euskal Herriaren azken lur independenteak defendatzen bizia eman zutenei gorazarre egin nahi diegunok. Aurten, baina, urte berezia da, datorren urtean, 2012an, Espainiak Nafarroa Osoko azken lur libreak su eta odolez inbaditu zitueneko 500 urte beteko baitira. 500 urte. Aspaldiko kontu zaharrak, esan lezake norbaitek. Bai, aspaldikoak. Baina egungo ajeen beste katebegi. *Utrinque Roditur (Alde Guztietatik Hozka Ari Zaizkit)* zioen Bianako Printzearen armarriak. Lelo egokia oso Euskal Herriaren estatu nafarrak jasandakoa azaltzeko. Hona hemen gaurko egonezinaren katebegi bakan batzuk:

1178: Gaztelak Errioxa eta Bizkaiko zati bat inbaditu zuen Nafarroako erregearen tenenteak ziren Haroko lopeztar familiaren laguntzaz lur eta pribilejioen truke. Bilbon kalez, estatuaz eta mendeurrenaz ospatu dira diru grina eta traizioa.

1200. urtean Gaztelak Mendebaldeko Nafarroaren lurraldeak inbaditu zituen. Tartean Aitzorrotzeko tenentzia, Atxorrotxetik Elosuraino zihoan Nafarroako Debagoiena alegia. Orduan nafar euskaldun independenteak izatetik Gaztelako menekoak izatera pasatu ginen. Gaztelaren aldeko handiki euskaldun batzuen laguntzaz. Harrezkero gure nortasun politikoaren izena galdu, eta nafarrak izatetik gure hizkuntzagatik ezagutuak izan ginen: euskaldunak, bizcainos, vascos, vascongados. Eta horrela segitzen dugu bereizketa artifizial inposatu honi hauspoak ematen.

1512ko uztailaren 21ean Gaztela eta Aragoiko armada espainiarrak libre geratzen ziren Euskal Herriaren azken lurrak inbaditu zituen. Zenbait handiki euskaldunen laguntzaz berriro ere. Diruak, lur jabetzak, pribiligioek, botereak agindu dute beti: harotarrak, oinaztarrak (Loiolako Iñigo tarte), Garay eta hainbat eta hainbat idazkari eta palazioko funtzionario euskaldun, beaumondarrak, erreketeak... norabideak norabide, ez da aldatzen; eta ganboar eta agramondarrak ez pentsa salbu daudenik ere. Iraultza Frantsesa, karlistadak, gerrak, errepresioa... mendeetako katebegiak.

Datorren urtean, 2012an, beteko da inbasioaren bosgarren mendeurrena. Baina erresistentzia ez zen 1512an bukatu, behin eta berriro independentzia berreskuratzeko ahaleginak errepikatu baitziren. Azkenengoetako bat 1521ean Nafarroako errege legitimoak, Enrike II.ak, bultzatu zuena eta denbora batean Nafarroa Garaia eta Beherea askatu zuena. Alabaina, hasierako arrakasten ostean hondamena etorri zen Noainen. Bost mila gazte nafarrek bizia galdu eta euskaldunon estatu subiranoaren hondarrak betiko galdu ere. Leial batzuek Amaiurren, Irunen eta Hondarribian eman zuten azken hatsa gero. Historia nazionalista espainiarrak dioenaren kontra, ez ziren frantsesak, nafar leialak baizik.

Bostehun urte geroago nazionalista espainiarrek bat egin dute inbasioa ospatzeko datorren urtean. Jada bortxa erabili zenik ere ez dute ukatzen, ezin dute eta. Hala ere, gure onerako izan zela dioskute. Euskadiko Autonomia Erkidegoan zein Komunitate Foralean euskaldunon subiranotasun zantzu txikienaren aurrean nazionalista espainiarrak elkar batuko dira beti. Inbasioa kudeatzen segitzen dutenek ondo baitakite gutxitua, autoestimua eskas eta zatitua egon arren, Euskal Herriaren asmoak hor dirauela: Nafarroa Osorako subiranotasuna alegia. Azken finean, eskumako espainiarraren antzekoena espainiar ezkertiarra da; eta argi gero!

Horren haritik doa datorren igandeko ekitaldia. Iazko giroa apartekoa izan zen. Youtuben ikus daiteke (Noain 2010) eta Youtuben eta Nabarralderen web-orrian ere ikus daiteke aurtengo ekitaldirako Urko Aristik luzatzen digun gonbidapena eta eguraldi onaren promesa. Orain 500 urte Estatua ginela ez zaigula ahaztu adierazteko hitzordua: ekainak 26, 10:15etan Noaingo Getzetik abiatu eta 13:00etan amaiera ekitaldia Iruñean (Burgoen plazan, udaletxe ostean). Zatozte.

# Nork epaitzen gaitu?

**Pili Garcia**
(Jose Luis Elkoro askatzearen aldeko plataformatik sortutako taldea)
Bergara

Ekainaren 17ko Goienan publikatu zen *Euskararen debekuak* izenburuko iritzi-artikuluari erantzuteko asmoz idazten dugu gutun hau. Alex Labaien eta Estepan Plazaolak idatzitakoari erantzuteko, hain zuzen.

Ekainaren 4an Audientzia Nazionalari buruz hitzaldi bat antolatu genuen eta ekitaldia iragartzeko *Nork epaitzen gaitu* lelopean kartela egin genuen. Kartel horren izkina batean Alex eta Estepanek aipatutako esaldia jarri genuen.

Gure asmoa garai hartan gure hizkuntza debekaturik zegoela adieraztea bazen ere, kritikarekin bat egiten dugu. Guk ere euskara maite dugu eta geure sentitzen dugu.

Hori dela eta, hitzaldi interesgarri hartan esan zirenak laburbilduta triptiko bat egin eta buzoneatzeko asmoa dugu eta, ikusiko duzuenez, lehentasuna euskarari emango diogu.

Bukatzeko, eskerrak eman Alex eta Estepani kritika zintzoa eta errespetuan oinarritutakoa jaso dugulako. Aurrerantzean ere bidelagun izango zaituztegulakoan, mila esker.

# Suminduta!

**Ander Elortondo**
Arrasate

Ez naiz 15M mugimendukoa, baina Arizmendi ikastola kooperatiban gertatzen ari dena (beharbada, beste batzuetan ere) erabat suminduta nauka. Ekainaren 21ean Olarteko gunerako sarreran gertatutakoa, guraso batzuek adierazi didatenez, joera nagusia bilakatzen ari da eta onartezina deritzot. Ume guztiak gaztelera hutsez garrasika ari ziren: "¡Qué abran ya!". Dozena bat guraso inguruan normaltasun osoz, ezer gertatuko ez balitz bezala. Diotenez, ikastolan ume guztiak (3-5 urteko ziklokoez ari naiz kasu honetan) euskaldunak diren arren, salbuespenak salbuespen, ohikoa gertatzen ari da gazteleraz jardutea. Nik ere garrasi egin nion nire semeari, inguruko gurasoek entzun ziezadaten: "Oier, zuk euskaraz, hau ikastola bat da eta hemen euskaraz egiten da". Gertakari hau anekdota bat da, egoeraren erakusgarri besterik ez. Eta egoera honen aurrean...

Gurasook ez al dugu ezer esateko?

Nork sortu zituen ikastolak eta zertarako?

Zer da ikastola?

Ikastolek teorian euskalduntasuna, euskara eta euskal kultura sustatzea dute helburu.

Irakasleei klase orduetan horrelakorik gerta ez dadin neurriak eskatu beharko dizkiegu eta klase aurretik gertatuz gero guk hartuko beharko ditugu.

Ikastola nahi badugu bederen; bestela, euskararik gabe soberan daude ikastolak.

Arizmendin, kooperatiba den aldetik, guraso, irakasle eta abarrengandik hasita, hausnarketa serio bat egin behar da. Matrikula kopuruak arduratuta? Finantzaketa? Garbi izan euskara bakarrik dela ikastolaren muina eta hori eta ez besterik izan zela bere jaiotzaren arrazoia. Herrikoitasuna hortik datorkio. Euskararik gabe eskola pribatu bat gehiago izanen da, ez ikastola.

Gutun honek ez du erantzunik merezi, ekintza konkretu eta eraginkorrak baizik. Edo inork uste du sumindura diplomaziaz osatzen dela?

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | goienkaria@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

SAN JUANAK 2011
GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA
EKAINAK 24 ETA 27, 19:45 | UZTAILAK 1, 22:15 | UZTAILAK 2, 10:00 / 16:45 | UZTAILAK 3, 14:00 / 22:30

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

**Rebeka Ubera** | Aralarko batzarkidea Gipuzkoako Batzar Nagusietan

# "Aralar prest dago Bilduri lagundu eta bultzada emateko aldaketari"

▸ "Bakeari eta normalizazio politikoari bide emateko sortu zen Aralar eta gertuago dago helburu hori une honetan", dio Uberak, Aralarren etorkizunaren inguruan



Rebeka Ubera, Aralarko batzarkidea, Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

**ENEKO AZKARATE** | ELGETA

Rebeka Ubera elgetarra da Aralarrek Euskal Autonomia Erkidegoko Batzar Nagusietan lortu duen batzarkide bakarra. Hauteskunde osteaz eta egoera berriaz dihardu elkarrizketa honetan.

**Aralarrek Euskal Autonomia Erkidegoko hiru batzar nagusietan izango duen batzarkide bakarra izango zara...**

Bai, zoritxarrez neu bakarrik geratu naiz. Erantzukizun handia da. Egindako lana jarraitu eta gure helburuak betetzen saiatuko naiz: bakegintzari eta normalizazio politikoari dagokienez edo beste alor programatiko edo sektorialagoei dagokienez ere.

**Ze erakutsi dute hauteskundeek?**

Gipuzkoa aurrerakoia, abertzale eta ezkerrekoa dela. Beste argazki bat erakutsi digute hauteskundeek. Normalizazio politikorantz beste urrats bat egin dugu, oraindik ere gehiago egin behar diren arren. Bilduri eman diote herritarrek babesa eta hori da erakundeetan islatu behar dena.

**Espero zenituzten Aralarren emaitzak?**

Ez. Apustua egin genuen bakarrik aurkezteko. Aurreikuspen eta helburu batzuk genituen, emaitzei dagokienez, baina ez dira bete. Batez bestekoari begiratzen badiogu, igo egin dugu, baina ordezkaritzan ez da hori islatu. Edozelan ere, emaitzak ez dira onak izan. Herritarrek ez digute babesa eman guk espero genuen neurrian. Lanean jarraituko dugu konfrontazio politiko eta ideologikoan, Aralarrek defenditzen dituen ideiak zabaltzen. Ordezkaritza txikia lortu arren, pozik gaude Aralarrek 10 urteotan aldarrikatu dituen ideiek geroago eta jarraitzaile gehiago dituztelako. Bakeari eta normalizazio politikoari bide emateko sortu zen Aralar, eta gertuago dago hori orain.

**Bilduren emaitzak?**

Ez genuen espero horrenbesteko babes handia lortuko zutenik. Eta esango nuke haiek ere ez zutela espero emaitza ikusgarri horiek. Urrats inportantea da normalizazio politikoan. Aralar prest dago bultzada emateko aldaketari: arlo sozioekonomikoan eta bakeari eta normalizazio politikoari dagokienez.

**Zergatik eman diozue botoa Bilduri hainbat udaletan?**

Ezker abertzaleko indarra garen heinean, beste ezker abertzaleko sentsibilitatearekin elkarlanean jarduteko borondate osoa daukagulako. Gipuzkoak aldaketa eskatu du. Politika egiteko beste modu bat. Dinamika zaharrak alboratu behar dira… Guk, bidea irekitzeko, orain arte bezala, lanean jarraituko dugu geure oinarri ideologikoei eutsiz. Elkarlana garrantzitsua da, ez bakarrik Bildurekin, baita bestelako abertzaleekin ere. Erabakitze eskubidea gauzatu ahal izateko…

**Zela baloratzen duzu Elgetako Bilduk Aralarri babesik eman ez izana?**

Bakoitzak jakingo du zela jokatu. Gure jokabidea zein den argi dago. Orain eta lehen, apustua egina daukagu. Gure printzipioak hor daude. Ezker abertzale zibil eta zabalaren alde lanean dihardugu. Hauteskundeen aurretik ere, Gernikako Akordioa sinatu genuen EA, Alterbatiba eta ezker abertzaleko beste sentsibilitatearekin. Guk garbi eta zintzo jokatuko dugu.

> **"Aralarrek bakarrik aurkezteko apustua egin zuen eta emaitzak hor daude"**

**Gipuzkoan, Bilduren gobernuan sartuko da Aralar?**

Ez dugu eskaintza konkreturik jaso Bilduren aldetik. Batzar Nagusietako mahaian egoteko eskaintza jaso genuen. Besterik ez. Haiekin batu garenean, gobernagarritasunez-eta jardun dugu. Oso zabal, ezer zehatzik barik. Haiek euren programa helarazi eta guk geurea bidali genien. Horraino.

**Zer eskatzen diozue Martin Garitanori?**

Gernikako Akordioa bere egin eta praktikara eroateko, jendarteratzeko, saiakerak egin ditzala. Gipuzkoako txoko guztietara normalizazioa, bakea… etor dadin, lan egin dezala. Gero, zela ez, Gipuzkoak behar duen aldaketa gauza dezala, kudeaketari dagokionez, ezkerreko politiketan-eta. Esaterako, gizarte zerbitzuetan pribatizazioak amaitzea eta eredua aldatzea; garraio publikoa benetan bultzatzea; Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia herritarrekin batera kudeatzea, elkarlanean, erakunde ireki eta gardena izateko…; austeritatea izatea marka; ogasunean, oinarritik aldatzea politika fiskala… Eta, zela ez, Foru Aldundian atzeko atetik sartu zen gobernu hori, Gipuzkoa Aurrera, amaitzea, benetako Gipuzkoa Aurrera izan daitezen Batzar Nagusiak. Gipuzkoan zeregin handia dago.

**Aralarrek hainbat akordio estrategiko ditu EArekin eta Alternatibarekin, baina haiekin batera ez joatea erabaki zuen hauteskundeetara. Zergatik?**

Hasteko, ez ginelako gonbidatuak izan. Ez genuen jaso proposamenak eztabaidatzen hasteko gonbitik. Bilduren oinarria *Euskal Herria Ezkerretik* zen. Eta helarazi ziguten proposamena, berau hedabideetan aurkeztu ostean. Batzar baterako deitu gintuzten eta baietz esan genien, baina, oraindik, jartzeke dago eguna. Gonbidatuak izan bagina, akaso, ez ginen egongo. Edozelan ere, alferrikakoa da atzera egitea orain. Aralarrek bakarrik aurkezteko apustua egin zuen eta emaitzak hor daude.

> **"Atzeko atetik sartu zen gobernu hori, Gipuzkoa Aurrera, amaitzea nahi dugu"**

**Hartutako erabakia egokiena izan da?**

Ez dauka atzera bueltarik. Ezker abertzaleko beste sentsibilitateak ez zuen eskatu Nafarroa Bai koalizioan sartzea. Bestalde, guk ez genuen inor bota Nafarroa Baitik. Ateak irekita izan genituen. Printzipio batzuk zituen koalizioak eta uste genuen horiei eutsi behar zitzaiela.

**Egoera berriak Aralarren etorkizuna eta proiektua birplantearaz ditzake?**

Bai, mapa politikoa aldatu da, gure emaitzak izan dira direnak eta udazkenean hausnarketa prozesu zabala egingo dugu. Aralarren paperak eta etorkizunak zein izan behar duen erabakitzeko. Alderdiak politikarako tresna besterik ez da.

# Jatetxe Gida



## Arantzazuko Santutegia

*Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI*
*943 78 13 13*
*www.hotelsantuariodearantzazu.com*

**Eskaintza**
- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Eguneko menua, itundutako menuak eta astebururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegi txokoa.

**Egunero zabalik**



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa.



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## PIldain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

**Eskaintza**
- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independientea su baxuarekin.

**Astelehenetan itxita**



## Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79
*www.soraluzeostatua.es*
*info@soraluzeostatua.es*

**Eskaintza**
- Karta.
- Bi jangela.
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak.
- Aste bukaerako menu bereziak.
- Eguneko menuak.

**Domeka gauean itxita**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

## DUELA 10 URTE

2001-06-22

### Gotzainaren inaugurazio meza

San Andres elizako estalkia berrituta, Juan Mari Uriarte gotzainak Elosu auzoan inaugurazio meza esan zuen eguerdian, San Juan egunean.

Abadetxea ere berritu zuten. Guztia, hainbat auzotar eta lagunek egindako auzolanei ezker. Ez zuten instituzioen laguntzarik jaso eta hainbat hilabetetan, 70 lagun inguruk astebururo lanean jardun zuten abadetxea guztiz berritu arte.



Elosua auzoko San Andres eliza. | MONIKA BELASTEGI

2001-06-29

### Itzuliaren azken etapa Bergaran

Jesus Manuel Chamarrok irabazi zuen Gipuzkoako Itzulia. Bergaran jokatu zen azken etapan, ordea, Iñigo Lariz elgoibartarra izan zen garaile.

Beroa izan zen azken etapako protagonista eta txirrindulariek asko sufritu zuten azken 92 kilometroetan. Chamorro azken kilometroen barruan erori zen, baina epaileek irabazlearen denbora bera eman zioten, eta Gipuzkoako Itzuliaren garaile izan zen.

## DUELA 5 URTE

2006-06-23

### Okelaren galerak

Hiltegiaren kudeaketa falta salatu zuten ibarreko baserritarrek eta harakinek. Hiltegia Bizirik plataformak German Berezibar Mankomunitateko gerentearen dimisioa eskatu zuen. Baina Mankomunitateak, bestetik, "gezurrak" esatea leporatu zion plataformari, eta gerentearen lana defenditu zuen.

## HERRITARRAK

ARETXABALETA

**Jose Antonio Zangitu** 60 urteko aurre-erretiratu martxoso eta alaia da. Herri mailan oso ezaguna da, saltsa guztietako gatz eta pipertzat dute herrian. | JAIONE CARPINTERO

# "Orain ez dut presio eta konpromisorik nahi, urte sabatikoan nago"

Kaleko tabernetan aurkitu dugu Jose Antonio Zangitu martxosoa. Aurre-erretiratua da eta urte sabatikoa egiten ari da, gauzak egiteko inongo konpromisorik hartu gabe. Aretxabaletar guztien artean oso ezaguna da, saltsa guztietako gatz eta pipertzat dute herrian.

**Lehenik eta behin, aurre-erretiratuta ondo bizi da bat?**

Oso ondo, honela bai bizi... Egia esan, hasieran arraroa izan zen, lo egiteko orduak ez nituen ondo hartzen. Baina gero, ohitu egin nintzen. Zaletasun asko ditut: egunero 4-5 orduko itzulia egiten dut bizikletan, oinez asko ibiltzen naiz, irakurtzea oso gustuko dut, eta, nola ez, festak. Gauza asko egiten ditut, ez dut aspertzeko denborarik.

**Orain, beraz, urte sabatiko baten barnean zaude?**

Bai; beharra nuela uste nuen. Aurre-erretiratu nintzenean hori izan zen hartu nuen lehenengo erabakia, urte sabatikoa hartzea, lasai egoteko. Oso gustura nabil honela. Libre sentitu nahi nuen, inongo presio eta konpromisorik gabe. Bidaiatzea dut gustuko, baina konpromisoak izaten badituzu ezinezkoa izaten da. Momentu honetan ez dut inongo konpromisorik, dudan lotura bakarra familiarteko lotura da, baina lotura hori ona da beti.

**Herrian oso ezaguna zara, baita zure koadrila ere. Guztiak zu besteko martxosoak dira?**

19-20 pertsona ibiltzen gara, Kurtzebarriko ikasle eta guraso elkartekoak. Guztiak ni bezain aktiboak dira. Ni baino 5-6 urte gazteagoak dira eta ni naiz erretiratuta dagoen bakarra. Besteek konpromiso gehiago dituzte; horregatik, denbora laburragoa dute gauzak antolatzeko. Hala ere, beti daude gauzak egiteko prest.

**Beraz, zuek herri mailan gauza asko antolatzen dituzue...**

Bai; Udalak gauza asko ematen ditu egiteko, baina gure koadrilak gauza gehiago antolatzen ditu. Jendeak erantzun onak izaten ditu; beraz, gustura gaude, eta gauza gehiago antolatzera eramaten gaitu. Jendeak ondo pasa dezan eta herriari giro alaiagoa emateko egiten dugu.

Herri mailan nik uste dut gauzak udako hilabeteetan bakarrik egiten direla, baita Mankomunitate mailan ere. Orain, adibidez, eskualdeko herri guztietako jaiak dira. Nire iritziz, gauzak oso pilatuta daude. Neguko hilabeteetan, adibidez, ez dago apenas ezer.



Jose Antonio Zangitu. | JAIONE CARPINTERO

**"Astero-astero joaten gara semea eta biok futbola ikustera"**

**"Herrian gauzak udako hilabeteetan bakarrik antolatzen dira, oso pilatuta"**

Horregatik guztiagatik, ni beti nago gauzak antolatzeko prest, baita nire koadrila ere. Momentu honetan ez, urte sabatikoaren txanda baita, baina, bestela, ez dut inongo arazorik.

**Abestu behar bada, abestu egiten duzu, dantzatu behar bada, dantzatu. Baina zer da gehien erakartzen zaituena?**

Dantza egitea ez zait askorik gustatzen; mozorrotzea, ordea, betidanik asko gustatu zait.

**Azken urte hauetan zertaz mozorrotu zarete koadrilakoak?**

Sardineroz, baturroz, Justina de Aragon... Existitzen diren mozorro guztiak jantzi ditudala uste dut.

**Eta nondik datoz ideia horiek?**

Nik kolaboratu egiten dut, baina normalean ez dira nire ideiak izaten. Lanean dabilen lagun saltsero batek izaten ditu honelako ideia xelebreak. Urtero afari bat antolatzen dugu eta bertan, bakoitzak dituen ideiak botatzen ditu. Horrela idea asko irteten dira; oso ideia onak, gainera.

**Bi seme-alaba saltsero dituzu, batez ere semea. Fama aldetik semeak irabazi egingo dizu?**

Egia esan, bide horretan doa. Gazte ekimenean daude biak. Semeak jaietako pregoiak botatzen ditu, azkenengo aldiz Chiquilicuatrez mozorrotuta,

**Futbola gustuko duzu...**

Bai, asko. Aretxabaletako Kirol Elkarteko futbol taldean laguntzaile lanetan ibili naiz urte askoan zehar. Baina orain, egiten ari naizen urte sabatiko honetan, ez dut ezer egingo. Irailean hasten dute denboraldia eta ekainean amaitzen dute; beraz, denbora luzea eskatzen du, eta orain erlaxatzeko unea iritsi zait. Hala ere, astero semearekin futbol partiduak ikustera joaten naiz; semea, saltseroa izateaz gain, lehen futbolean aritzen zen.

### NIRE HERRIAN

**:) TABERNAK ETA PINTXO-POTEOA**

"Oso gustura nago nire herrian, behar dudan guztia daukat. Taberna eroso asko daude koadrilarekin elkartzeko; bestela, nork bere zereginak ditu eta ezin izaten dugu elkar ikusi. Egunetako pintxo-poteoa asko gustatzen zait, oso giro ona sortzen da herriko kaleetan, eta ni beti erdian ibiltzen naiz".

**:( GAZTEEN INPLIKAZIOA**

"Gazteek herritik alde egiten dute eta, gainera, jaietatik kanpo dauden ekintzetan ez dute askorik parte hartzen. Arratsaldeko poteoa amaitzen denean, astegunetan zein asteburuetan, iluntzeko bederatziak aldera, herriko kaleak hustu egiten dira, hilik geratzen dira, eta pena handia ematen dit".

# HERRIAK



Iazko Adinekoen Topaketetan elkartu ziren andre-gizonak, Gasteizen. | ZUIAKO KOADRILA

ARAMAIO

# Adinekoen bilerako ordua

- Urtero bezala, aurten ere Nagusien Topaketak ospatuko dira, uztailaren 8an, barikua
- Aurreikuspenen arabera, 200 adineko inguruk parte hartuko dute topaketetan

ASIER ALKORTA | ARAMAIO

Egunerokotasunetik irten, luzaroan ikusi gabeko ezagunekin egon eta egun on bat pasatzea. Helburu horrekin egingo da aurten ere Adineko Pertsonen Topaketa. Beste behin ere, adineko asko eta asko elkartuko dira irteeran eta lehengo eta oraingo kontuak elkarri kontatzeko aukera izango dute, berriro.

Dagoeneko hamalaugarren aldiz ospatzen da Zuiako Koadrilak antolatutako ekintza. Eta urte hauetan guztietan izan duen arrakasta dela eta, aurten ere badator. Uztailaren 8an egingo da, egubakoitzean.

### Izena emateko epea

Egun handia uztailaren 8a izango bada ere, ekintzan parte hartu nahi dutenek aurretik eman beharko dute izena. Zehatz esateko, ekainaren 30a baino lehen. Eta arin ibili beharko da; izan ere, txangoan parte hartzeko plazak mugatuak dira. "Izena ematen duten ordenaren arabera egingo da", azaldu dute antolatzaileek.

Horrela, bada, izena emateko fitxa bete eta ordainketa (Caja Vital Kutxa, 2097-0224-98 -0102679817) egin eta gero, Zuiako Koadrilako edo nork bere udaleko bulegoetan aurkeztu beharko ditu fitxa eta ordainketaren ziurtagiria. Ekintzak 26 euro balio du eta diru kopuru hori sartu beharko da bankuan.

Egunean bertan, lehenengo autobusa 09:15ean aterako da, Aramaiotik, ikastolatik. Gainerako sei herrietan ere 09:30etik 09:50era bitartean aterako dira autobusak: Oleta 09:30ean (plazan), Izarra 09:30ean (botikan), Legutio 09:35ean (ikastolan), Murgia 09:45ean (plazan), Durana 09:50ean (autobus geltokian) eta Ondategi 09:50ean (frontoian).

### EGUNEKO EGITARAUA

**10:30** Gasteizko erakundeetara bisitak.

**13:30** Meza eta agurra.

**14:30** Bazkaria, Estadio SD Fundazioa jatetxean.

**17:30** Bingoa eta dantzaldia.

**20:00** Amaiera eta itzulera.

### Ekintzan egingo dena

Egitaraua prest eta itxita badago ere, pisuzko arrazoirik balego antolatzaileek iragarritako egitarau hori aldatu ahal izango dutela iragarri dute. Hala eta guztiz ere, oraingoz, denak bere horretan jarraitzen du.

Txangoa Gasteizera egingo dute adinekoek eta bertan erakunde ezberdinak ezagutuko dituzte, helduaz batera. Besteak beste, Eusko Legebiltzarra, Gasteizko Udala eta Ertzaintzaren Akademia bisitatuko dituzte. Antolatzaileen esanetan, "ibilbideak pertsona kopuruaren arabera banatuko dira".

Ekintzan parte hartuko dutenak zenbat izango diren aurreratu ezin badute ere, antolatzaileek gutxi gorabehera 200 adineko inguru elkartzea aurreikusten dute. "Orain arte 180 eta 200 adineko inguruk parte hartu izan dute ekintzan eta aurten ere beste horrenbeste etorriko direla uste dugu".

Ekintza antolatzearen arrazoiak ere argi azpimarratu dituzte: "Bertoko herrietan bizi diren adineko askok elkar ezagutzen dute, baina nor bere herrian bizi da eta ez dira askotan elkartzen. Txangoan parte hartuz, berriro elkartu eta egun bat pasatzeko aukera dute".

Hitzorduak jarrita daude eta deia ere eginda dago; orain, eguna heldu arte izena ematea eta egun handirako prestatzea geratzen zaie adinekoei.



# Txinpartak hartu du su...

## Mondrako nesken txupinazoak berotu zuen giroa atzo egun eta gau osorako

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

San Juan bezperak eman du eman behar zuena. Edo batzuendako akaso ez, erretiratu gabe direlako oraindik. Bezpera eta San Juan eguna parranda berean egiteko erabakia hartu dutenak dira, *gaupaseroak*.

Luze joan zen eguna, gazteendako bereziki. 12:30ean, txosnagunean, hartu zuen su txupinazoaren metxak. Mondrako neskak izan dira aurten jaiei hasiera ematearen arduradunak, mailaz igo eta Gipuzkoako txapeldunak izan direlako. Gainera, 25 urte bete ditu aurten taldeak, eta, beraz, merezimendu osoz izan ziren herriko jaien hasierako protagonistak.

Gero, *derrigorrezko* poteoaren ostean, koadrilak Uarkapen batu ziren bazkaltzeko, 350 bat lagun. Bazkalostean, Uarkape kanpoan zuten makala zain, Herriko Plazan jaso eta domekara arte han egon dadin. Erredakzioa itxi zen ordurako koadrilak kalejiran utzi genituen makalarekin.

Orain, asteburu osoa aurretik jaietan; inoiz baino beroagoak espero dira. Hori bai: *behin erre ginen eta, berriz erre barik*...


Txosnak ireki ziren lehendabizi, koadrilek lehen tragoa har zezaten.


Mondrako nesken izenean, Ane Berazak egin zuen pregoia.


Herri bazkarian, giro paregabea eta kolorea nagusi: 350 bat lagun elkartu dira aurten, inoiz baino gehiago.


Bonba japoniarrek zoramena eragin zuten gaztetxoenen artean.


Bazkaritik, parrandarako gosea.


Aurten koadrilek Uarkape kanpoan jaso zuten makala. | ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA

## ASTE BUKAERARAKO EGITARAUA

**EGUBAKOITZA,**
**SAN JUAN EGUNA**
**24**

**08:00** TXOKOLATADA Arbolapetan.

**08:30** DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA.
▶ Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Laubide.
▶ Gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.



**11:00** San Juan Bataiatzailearen parrokian, MEZA NAGUSIA.

**11:00** Arrasateko Erraldoien eta Kilikien KONPARTSAren KALEJIRA.

**11:00** Arrasate Musikaleko Musika Bandak eta Arrasateko gaita-joleen KALEJIRA.

▶ **11:30**ean Seber Altube plazan elkartuko dira KONPARTSA, MUSIKA BANDA ETA GAITA-JOLEAK.

**12:00** Herriko Plazan ohorezko AURRESKUA eta San Juan ZORTZIKOA dantzatuko dituzte.

**12:30** Etxaluzen omenaldia 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI.

**13:00** Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin.
▶ *Amparito Roca* (Jaime TEXIDOR)
▶ *La italiana en Argel* (Gioacchino ROSSINI)
▶ *West Side Story* (Leonard BERNSTEIN)
▶ *Rivieren-Cyclus* (Arie MAASLAND)
▶ *Around the World in 80 Days* (Otto M. SCHWARTZ)
▶ Zuzendaria: Mikel MARKIEGI.

**18:00** Txosnagunean JOKO ERRALDOIAK txikienentzako.

**18:30** *Jim altxor uhartean* ANTZEZLANA Seber Altuben Gorakada taldearen eskutik.

**19:30** Zezen-plazan EUSKADIKO ERREKORTADOREEn ikuskizuna.

**20:00** Txosnetan DRAGOITXOAK PARRILAN dastatzeko aukera.

**20:00** Mexikoko Garibaldi MARIATXIAREN kalejira.

**21:00** Herriko Plazan DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.

**22:30** Monterron parkean GOLDEN APPLE QUARTET taldea *Los Golden en serio* ikuskizunarekin.



**23:30** Herriko Plazan, DISKOFESTA, Oihan Vegarekin.

**00:00** TLF (Txosna Life Festival) SKATI, DISORDERS eta KANTUKI taldeekin txosnetan.

**00:00** Gaztetxean zuzenekoa: REVOLUTIONARY BROTHERS.

**ZAPATUA,**
**HAUR ETA GAZTETXOEN EGUNA**
**25**

**08:30** DIANA gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA. Gero, BIGANTXAK zezen-plazan.

**09:30** Umeendako DIANA.

**10:30** Biteri plazan, ongietorria EGUZKI LARUri. Biterin Haurgunea eta Zaldibarren Gaztegunea jarriko dira martxan 13:30era arte.

**12:30** TROVAHABANA talde kubatarrarekin KALEJIRA eta KONTZERTUA.

**13:30** APAR JOLASA Biteri plazan. Bainujantziak ekarri!

**16:30-18:15** Zaldibarren eta Biterin Eguzki Laruren JOLASPARKEAK eta ESKULAN TXOKOAK martxan jarriko dira berriro.

**17:00** ESKALADA TXAPELKETA txosnetan hasita. Herriko kaleetan zehar Street Boulder.

**18:15** Txikienak KALEJIRAN joango dira Zaldibar eta Biteritik Herriko Plazaraino.

**18:30** ERREKORTADOREEN ESKOLA gaztetxoentzat.

**18:45** Kanpanolue HAUR-BERBENA Herriko Plazan. Gero, Eguzki Laruri agurra.

**19:00** Txosnetatik hasita ORKESTRA ELEKTRONIKOA.

**20:00** Seber Altuben *Jira & Bira* ikuskizuna TRAPU ZAHARRArekin.

**22:30** ARF (Arrasate Rock Festival) KAÑERIA 13, MOTOCICLON eta LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS taldeekin txosnagunean.

**22:30** Herriko Plazan DANTZALDIA, Laiotz taldearekin.

**23:30** SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa piroteknjaren eskutik.

**DOMEKA**
**26**

**08:30** DIANA gaita-joleekin.

**09:00** ENTZIERROA aurreko eguneko ibilbidetik. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen-plazan.

**11:00** Arrasateko ERRALDOIEN ETA KILIKIEN Konpartsaren kalejira.



**12:00** TRIKITILARIEN kalejira.

**12:00** Segway eta, txikienentzat, Ezy Roller IBILGAILU dibertigarria erabiltzeko aukera Biteri plazan.

**12:00–14:30** Herriko Plazan, Eusko Labelen OILASKO dastatzea.

**12:00** INCANSABLES txaranga ibiliko da alde zaharrean.

**17:00** Uarkape pilotalekuan, profesionalen arteko PILOTA PARTIDUAK.
▶ Partidu nagusia: Ongay – Merino // Gorka - Cecilio

Mtz. de Irujo – Zabaleta // Aritz Lasa - Zubieta

**17:00** Txosnetan HERRI KIROL PARTE-HARTZAILEAK (6-12 urte artekoendako).

**18:30** *Monsters' Show* ANTZEZLANA Seber Altuben.

**18:30** ERREKORTADORE GAZTETXOEN erakustaldia.

**19:00** Txosnagunean BINOLOGOA.

**19:00** INCANSABLES txaranga ibiliko da alde zaharrean.

**19:30** SOKA DANTZA plazan.

**20:00** Erdizka Lauetan taldearen laguntzarekin DANTZA ERRAZAK IKASI eta dantzatzeko aukera.

**20:30** Txosnetan URREZKO DRAGOIA banatuko dute.

**21:00** Gaztetxean, ALBIÑA ROCK musika jaialdia.

# Epeleko araztegiari "azken errremateak" falta zaizkio

Lanak udarako amaituta egongo dira, baina araztegia martxan jartzeko prozesua luzea izango da oraindik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Epeleko araztegiko lanak amaitzeko lehen epemuga martxorako zehaztu zuten Estatuak eta Ur Konfederazioak. Otsailean egin ziren, adibidez, Arrasatera sartzeko biribilgunea baino lehenago dagoen bihurgunea arintzeko obrak. Hala ere, atzerapenak izan ziren obra guztian eta beste epemuga bat jarri zuten obren arduradunek: udarako erabat amaitzea espero dute. Udaleko Hirigintza Saileko Juan Antonio Urdangarinek eman digu data horren berri; obretan egon dela adierazi digu: "Urbanizazio eta obra ikuspegitik azken errremateak falta zaizkie lanei eta obra guztiak bigarren epe-mugaren barruan doaz, teorian. Hau da, udarako amaituta egongo dira".

Hori bai, beste kontu bat da araztegia martxan noiz egongo den martxan: "Ur konfederazioaren esku dago martxan jartzea eta horretarako hainbat proba egin behar dira; guk ez daukagu proba horien egutegirik oraindik".

ESANAK

**"Martxan jarri aurretik hainbat proba behar dira"**

JUAN ANTONIO URDANGARIN
HIRIGINTZA SAILEKO TEKNIKARI-BURUA

**Elorregi-Epele bidegorria**

Elorregi –San Prudentzio– eta Epele arteko bidegorria erabat osatzeko gero eta gutxiago falta da. Izan ere, Oñatiko ur-zikinak araztegira eramateko lanetan dihardute, hau da, hodiak sartzen jarraitzen dute. Hodi horiek jarriko dira Elorregitik Epelera eta horretarako plataforma antzeko bat eraikitzen ari dira azken asteetan. Hau da, bi obra egin behar dira puntu berean: Oñatiko urak depuradorara bideratzeko lanak daude alde batetik, eta bidegorriaren ibilbidea osatzeko obrak, berriz, bestetik.

Hormigoizko plataforma bat egingo dute hodiak babesteko, bidegorriaren oinarria izateko balioko duena. Lan hori Diputazioaren ardura da eta Udalak, bi obra aldi berean egin behar direnez, Ur Konfederazioaren eta Aldundiaren arteko koordinazio lanak egin ditu.



Epeleko araztegia, asteon ateratako argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

NIRE USTEZ



ANDER ETXEBERRIA

## Sanjuan ostean ere

Sanjuanetan ikurrina dago udaletxeko balkoian, urtero bezala. Eta jaiak bukatutakoan berriro hutsunea, urtero moduan. Makalak ekarritako ikurrina ere, makalarekin batera joango da. Banderen legea deiturikoaren ondorioz –instituzioetan ikurrina eta gorri-horia aldamenean egon behar dira eta azken hau leku preferentean, gainera–, paisaia urbanoan ia desagertuta dago hiru-kolorekoa.

Oporretan goazenean konturatzen gara, ordea, munduan zehar ohikoa dela banderak han eta hemen ikustea: erakunde publikoetan, enpresa atarietan eta baita etxe partikularren lorategietan ere. Ez dena normala gurea da. Arrasaten hiru bat bandera besterik ez daude kalean urte osoan zehar –alderdi politikoen egoitzetan–; jaietan gehiago dira. Beste herri batzuetan, aldiz, Oñati edo Aretxabaletan, esate baterako eta urrunago joan barik, asmatu dute zer egin: herriaren zentroan jarri dute haga luze bat eta goian ikurrina.

Arrasate horren faltan dago; haga bat jarri behar da, normaltasunez. Leku aproposak izan daitezke herriko plaza, Seber Altube plaza edo pergola aldea. Pergola inguruan ikusiko litzateke gehien. Era berean, sinboloei buruzko ideiak ematen jarraituz, Seber Altuben nahiko baztertuta dagoen Gernikako arbolaren *umea* hara eraman liteke.

Ah, eta ondo pasau Sanjuanak!

**"Haga bat jarri behar da; pergola inguruan ikusiko litzateke gehien"**



ROMAN LOPEZ

## Rodriguez eta Molinero txapeldun

Sanjuanetako mus txapelketaren 15. edizioan 26 bikotek hartu dute parte aurten. Juantxo Rodriguez eskoriatzarra eta Mikel Molinero arrasatearra izan dira txapeldunak –irudian, Roman Lopezen eskutik saria–. Gainerako saridunak hauexek izan dira: bigarren Juanito Errasti eta Roman Lopez, hirugarren Jose Mari Armendia eta Rafael Andres eta laugarren Andres eta Ander Gabilondo –aita eta semea.

## 120 lagunek hartuko dute parte 80 urtetik gorakoen omenaldian

Ekitaldia gaur izango da, Etxaluzen, 12:30ean

J.B. | ARRASATE

Urtero San Juan egunean egiten den 80 urtetik gorakoen omenaldirako 120 arrasatearrek eman dute izena, 40 gizonezkok eta 80 emakumezkok. Ekitaldia gaur izango da, Etxaluzen, 12:30ean. Urtero moduan, alkateak eta Udaleko ordezkariek hartuko dute parte ekitaldian. Izen-ematea itxita dago dagoeneko, baina, BAZen adierazi dutenez, izen-emate epetik kanpo zenbait eskaera onartu dituzte: "Asko ez dira enteratu jaietako programa jaso duten arte eta erabaki dugu azken orduan heldu diren eskaerak ere onartzea".

**Ladislao Ginaldok 100 urte**

Omenaldiko gizonezko nagusiena Ladislao Ginaldo izango da, martxoaren 23an 100 urte bete zituen-eta. Ginaldoren senitartekoen arabera, ekitaldi laburra izango denez bertan egongo da; gogotsu dagoela adierazi zuten senitartekoek. Emakumezkoen artean, berriz, Margarita Andres izango da nagusiena, 95 urterekin.

**Omenaldia, urterokoa**

Egitarauan ez da nobedaderik izango: izendatu berri den Inazio Azkarraga-Urizar alkateak agur hitzak izango ditu omenduendako. Gero, gizon eta emakume nagusienei lore sorta banatuko die; hau da, Margarita Andres eta Ladislao Ginaldok lore sorta bana jasoko dute. Amaitzeko, luncha egongo da omendu guztiendako.

Sanjuanetan parte hartuko duen ekitaldi guztietan bezala, alkate berria lehenengoz izango da herriko nagusien omenaldian.

## Udal zerbitzu guztiak itxita egongo dira egun osoan, San Juan eguna dela-eta

J.B. | ARRASATE

Udaleko Pertsonal Sailak aditzera eman duenez, San Juan jaiek zuzenean eragingo dute udal zerbitzuen jardunean. Gaur, San Juan eguna, udal zerbitzu guztiak itxita egongo dira. BAZ eta AUKEAren instalazioak –Musakola eta Iturripe kiroldegiak– itxita egongo dira gaur, baina bihartik aurrera ohiko ordutegian egingo dute lan. Udaletxea, Kulturate, Gazte Bulegoa, Sexologia Zerbitzua eta Emakume Txokoa itxita egongo dira 27ra arte.

**Gaur gauean, autobus gehiago**

Entzierroek irauten duten tartean Mondragon hotelean jarriko dute autobus geltokia. Bestalde, Lurraldebusek gaueko zerbitzua indartuko du gaur gauean.

PATXI CASTRO





Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

UME

%30eko DESKONTUA

Garibai 6
ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86

# Pilotari profesionalen jaialdia domekan

X.U. | ARRASATE

San Juan jaien barruan pilotari profesionalen jaialdia egingo dute Uarkapen domekan. 17:00etan hasiko dute jaialdia eta arratsaldeko lehenengo norgehiagokan, Ongay eta Merino bikoteak Gorkaren eta Cecilioren kontra jokatuko dute.

**Irujo, erakargarri**

Arratsaldeko partidu nagusian, berriz, Irujok eta Zabaletak osatuko dute bikotea, eta Aritz Lasa eta Zubieta izango dituzte aurrean. Hain zuzen, Iberokoa da Aspek dituen jokalarien artean pilotari erakargarrienetakoa, eta zaleak erakarriko ditu pilotalekura. Sarrerak Uarkapeko lehiatilan egongo dira salgai partidua baino lehen, edo Aspeko telefono zenbakian (661 25 90 09).



Martinez de Irujo. | GOIENA



Ointxe!-ren saskibaloi campusean neska-mutiko mordoa batuko dira, aurreko edizioetan moduan. | OINTXE!

# Ointxe! klubak saskibaloi campusa egingo du

## Ekainaren 27tik uztailaren 1era arte egingo dute, Iturripen

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Datorren astean zehar, ekainaren 27tik uztailaren 1era bitartean, Ointxe! kirol elkarteak saskibaloi campusa egingo du Iturripe kiroldegian. Saskibaloi, kirol joko eta ariketaz osatutako saioak egingo dituzte, 10 eta 13 urte bitarteko (biak barne) neska-mutilei zuzenduta. Eta adi, gaur, egubakoitza, da-eta campusean izena emateko azken eguna.

Saioak 18:00etatik 20:30era izango dira. Gorka Zurututza Ointxe!-ko kirol arduraduna izango da campuseko zuzendaria eta harekin batera arituko dira entrenatzaile kurtsoa egiten ari diren hainbat monitore.

Azken urteetan campusak izan duen harrera ona errepikatzea espero dute Ointxe! elkarteko kideek.

**Zelan eman izena**

Campusean izena emateko epea gaur amaituko da, San Juan egunean, hain zuzen. Izena emateko, nahikoa da hurrengo datuak ematea: izen-abizenak, jaiotzadata, helbidea, telefono zenbakia, ikastetxearen izena eta kamiseta neurria *ointxe@ointxe.com* helbidera bidaltzea edota izen-emate orria Ointxe!-ko arduradun bati ematea.

Azalpen gehiago taldeko webgunean *(www.ointxe.com)* izango duzue. Campusean parte hartzeko prezioa 35 euro da. Parte-hartzaile guztiei kamiseta bana emango zaie.



GOIENA

**GORKA ZURUTUTZA**
ANTOLATZAILEA

## "Saskibaloia bigarren mailan geratzen da, jolas egitea da asmoa"

Dagoeneko campusaren bost edizio antolatu ditu Ointxe!-k, horietako hiru Zurututzaren gidaritzapean.

**Zenbat neska-mutiko izango dituzuela aurreikusten duzue?**

Iaz 47 izan genituen, eta 50 gazteren bueltan ibiliko direla uste dugu. Zenbateko polita da, hortik aurrera taldeak antolatzeko campusa goiz eta arratsalde jarri beharko genukeelako, nahiz eta sei saski izan.

**Zein da asmoa?**

Urteko dinamika apurtzea. Gaztetxoei ere saskibaloi denboraldia luzea egiten zaie, eta hemen asmoa da jolasak antolatzea; saskibaloia bigarren mailan geratzen da, lagun artean ondo pasatzea da asmoa. Ez luke zentzurik izango entrenamendu saioak antolatzeak, gazteek aspertuta amaituko lukete-eta.

# Sanjuanetako street boulderraren bigarren edizioa egingo dute zapatuan

## Egunean bertan eman ahal izango da izena, 17:00etan, txosnagunean

X.U. | ARRASATE

Street boulderra eginez egubakoitzeko parrandako biharamuna atzean uztea ez da aukera txarra. San Juan jaien egitarauan eskaladak protagonismoa hartu du azken hiru urteotan, baina iaz gaztetxeko horma erabili zuten neurrian, aurten eskalatzaileak kalera itzuliko dira, 2009an egin zuten moduan, street boulderra egitera.

**Izenematea, momentuan**

Boulder txapelketa bihar, zapatua, egingo dute, eta antolatzaileek txosnagunea aukeratu dute eskalatzaileak batzeko (17:00). Hala, momentuan bertan egotea nahikoa izango da txapelketan parte hartzeko.

Antolatzaileek zortzi bloke edo gainditu beharreko arazo aukeratuko dituzte, esandako moduan, Arrasateko alde zaharrean zehar. Txosnagunean bertan botako dituzte lehenengo izerdiak, eta, seguruenik, gaztetxean amaituko dute zirkuitua. Bloke batzuk teknikoki zailak izango dira, errazagoak ere egongo dira, baita originalak ere; antolatzaileen asmo bakarra "eskaladaz ondo pasatzea" da.



2009an egin zuten street boulder txapelketako une bat. | GOIENA

## Selekzioaz hamar onenen artean

Joan den asteburuan Espainiako eskalada txapelketa egin zuten Gijonen, eta ibarreko ordezkariak hamar onenen artean sailkatu ziren —nahiz eta ez ziren erabat gustura bueltatu—. Miriam Mulasek eta Kepa Bruñak Euskal Herriko selekzioko elastikoa defendatu zuten, eta biak sailkatu ziren finalerako.

Mulasek 18 urtez azpiko kategorian hartu zuen parte; Bruñak, 20 urtez azpikoan. Finalean ezin izan ziren podiumera igo. Mulas zortzigarrena izan zen eta Kepa Bruña, seigarrena. Aipatzekoa da, selekzioko beste bi kideek, Itziar Zabaleta dimoztarrak eta Jon Ander Bravo gasteiztarrak, irabazi zuten-eta txapelketa.

# Dorleta pilota txapelketako finalak etzi erabakiko dira

X.U. | ARRASATE

Azken hilabeteotan Gatzagako pilotalekuan jokatu duten Dorleta pilota txapelketako finalak uda ostean jokatuko dituzte, irailaren 9an. Bikote batzuek dagoeneko lortu dute txartela, baina beste kategoria batzuetan domekan, hilak 26, jokatuko dituzte partidu erabakigarriak, 09:00etan hasita –guztira zazpi partidu jokatuko dituzte.

Bada, finalean egongo direnen artean daude benjamin B mailan Garitano eta Narbaez (Arrasate). Haiek Erañaren eta Zubiaren (Eskoriatza) kontra jokatuko dute. Beteranoetan, bestalde, Zuazua-Pozo arrasatearrek Lizarralde-Alzola aretxabaletarren kontra neurtuko dituzte indarrak.

# Momentuko eta betiko abestiak jarriko ditu Oihan Vegak plazan

23:30ean hasiko da bergarararen Diskofesta; hiru ordu luzez iraungo du ikuskizunak Herriko Plazan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

Oihan Vega musikari eta kazetari bergararrak dantzan jarriko ditu gazteak eta ez hain gazteak gaur gauean. 23:30ean Diskofesta egingo du Vegak Herriko Plazan.

Bergarako jaietan ere ibili zen Vega, eta orain berriro ere ibarrera etortzea "berezia" dela dio. Ezagunen aurrean musika jartzeak kimika berezia sortzen duela dio, eta "etxera bueltatzea" dela gaineratu du.



Oihan Vega, Diskofesta batean musika jartzen. | ENEKO AZKARATE

**Jendearen araberako musika**

"Dagoeneko ohitura bilakatu da Arrasateko jaietan Diskofesta egitea", azaldu du Vegak. Momentuko abestiak, betikoak, arrakasta handia izan dutenak, kalejirak... denetik jartzen duela azaldu du Vegak.

"Jendearen arabera izaten da; izan ere, ez da jende mota bera egoten 23:00etan edo 03:00etan", dio. Gaur egun gehien eskatzen dituzte abestiak dira, besteak beste: *Loca People*, Esne Beltzaren *Gogoak*... "Eta baita beti arrakasta izaten duten *Ikusi mendizaleak*... bezalako abesti mitikoak", azaldu du Vegak. Arrasateko plaza zelakoa den galdetuta, dio "beroenetarikoa" dela. "Jendea beti dago prest dantza egiteko; gainera, giroa beroa izaten da", gaineratu du.

**Hurrengoa, Aretxabaletan**

Euskal Herriko 50 herri baino gehiagotan ibiliko da uda honetan Diskofestarekin gora eta behera Vega. Debagoienari dagokionez, hurrengo emanaldia Aretxabaletan izango da, abuztuaren 14an.

Eguraldiak laguntzea bakarrik falta da gaurko ikuskizuna borobila izateko.

# Arrasate Musikaleko Bandaren emanaldia

San Juan egunez ohikoa den kontzertua eskainiko dute Monterronen, 13:00etan

**A.E.** | ARRASATE

Arrasate Musikaleko Musika Bandak gertu ditu instrumentuak jaiak girotzeko. Gaur, San Juan eguna, kalejira izango dute herriko gaitariekin, 11:00etan. Ondoren, 11:30ean Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsa, Musika Banda eta gaitariak

**Monterronen, kontzertua**

Herriko jaietan ohiko bilakatu den kontzertua eskainiko dute musikariek ondoren. 13:00etan izango da, Monterronen.

Mikel Markiegik zuzenduta era guztietako doinuak eskainiko dituzte. *Amparito Roca* pasadoblearekin hasiko dute saioa; ondoren, opera doinuek hartuko dute Monterron; zinemara eramango ditu ikusleak hurrengo piezak: *West side story*. *Rio Negro, Orinoco* eta *Chubut* erreken soinuek hartuko dute Monterron ondoren; eta, amaitzeko, *Munduari bira 80 egunean*.

**EGITARAUA**

**Amparito Roca**
Jaime Teixeidor

**La italiana en Argel**
Gioachino Rossini

**West side story**
Leonard Bernstein

**Rivieren-Cyclus**
Arie Maasland

**Around the world in 80 days**
Otto M. Schwarz

# 'Altxor uhartea' gaztetxoen gozamenerako gaur, 18:30ean

**A.E.** | ARRASATE

Gorakada taldeak kale ikuskizuna eskainiko du gaur etxeko gaztetxoendako. Seber Altube plazan izango da, 18:30ean. Gorakadakoek *Jim, altxor uhartean* antzezlana eskainiko dute.

Jim Hawkins gazteak lurperatutako altxor baten bila jardungo du, eta horren bueltan gauzatuko da istorioa. Abentura horretan ongiaren eta gaizkiaren aurpegiak bereizten ikasi beharko du Hawkins gazteak; gainera, abenturan barrena John Silver eta beste pirata beldurgarri batzuekin topo egingo du. Seber Altubera joandako txikitxoenek lagundu beharko diote Hawkinsi altxorra bilatzen.

# Trapu zaharra taldearen 'Jira & bira' ikuskizuna

**A.E.** | ARRASATE

Kale antzerkia gustuko dutenendako emanaldi berezia antolatu dute jaietan. Trapu zaharra antzerki taldeak *Jira & bira* antzezlana eskainiko du Seber Altube plazan, 20:00etan, zapatuan.

Gasteizko talde beteranoa izozki saltzaile baten paperean sartuko da. Hainbat hilabete langabezian egon ondoren marketinari buruzko gidaliburu bat idatziko du, eta Interneten zintzilikatu. Gidaliburuak arrakasta izugarria izango du, eta horren gainean izango da antzezlana.

Xanti Ugaldek eta Txema Ociok osatzen dute Trapu Zaharra antzerki taldea. Dagoeneko 25 urte bete ditu taldeak antzerkia egiten.



SERGIO AZKARATE

# Ume uholdea Pupu eta Lore agurtzeko

Martitzenean goraino bete zen Monterron parkea Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria ikusteko: *Ongi etorri, Pupu eta Lore*. Porrotxek Pirritxi ahotsa gaizki zuela esanez hasi zuten emanaldia, baina Pirritxen erantzuna borobila izan zen: "Lasai, Porrotx! Guztion artean egingo dugu kantu!". Eta ez zitzaion arrazoirik falta izan. Gainera, laguntzaile berezia izan zuten: Ines Osinaga abeslaria igo zen taula gainera *Marikalanbre* abestera —diskoan Osinagak abesten du.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

# Uztailaren 4tik 22ra 290 ume ibiliko dira udaleku irekietan

Jardunek kudeatuko ditu lehenengoz; gurasoei funtzionamendua azaltzeko batzarra deitu dute 29rako

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Udaleku irekiak abiatzear daude. Uztailaren 4an hasi eta 22ra arte iraungo dute eta dagoeneko prest dute guztia Jardun elkarteko kideek; izan ere, elkarteko horrek kudeatuko ditu aurten, lehenengoz.

2 eta 12 urte arteko 290 umek hartuko dute parte udalekuetan, adinaren araberako 28 taldetan banatuta. Aipatzekoa da Osintxun ere udaleku irekia egongo dela aurten, 16 umeko taldea osatu da-eta.

10:00etatik 13:00etara izango dira udalekuak eta adinaren araberako egoitzara eroan beharko dira umeak: 2 eta 3 urteko umeei dagokienez, San Martin ikastetxean laga eta batu beharko dira; 4 eta 5 urteko umeak eta Lehen Hezkuntzakoak, Martinez de Irala; eta Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 6.era, Ipintzako eraikin berrian.

Jarduneko ordezkarien esanetan, ekintza gehienak kalean egingo dituzte –betiere, eguraldiaren arabera–: igerilekura joango dira, ipuinen eguna egingo dute, San Fermin ospatuko dute, Lehen Hezkuntzakoek kanpora irteera egingo dute… eta azken egunean, udalekuetako amaiera festa egingo dute.



Udaleku irekietako umeak, San Fermin eguna ospatzen, San Martin plazan. | GOIENA

**DATUA**

**28**

TALDE

290 ume ibiliko dira aurten udalekuetan, 28 taldetan banatuta.

### Batzarra gurasoendako

Hilaren 29rako, eguaztena, udalekuetan parte hartuko duten umeen gurasoendako batzarra deitu dute Zabalotegi aretoan. Batzarraren helburua da azaltzea udalekuen ordutegia, egutegia, egingo diren ekintzak, irteerak, gurasoek izan ditzaketen zalantzak argitu… Begiraleak ere han egongo dira gurasoek ezagut ditzaten.

Bilera-ordu bi daude: 18:00etan, Haur Hezkuntzako umeen gurasoendako; eta 19:00etan, Lehen Hezkuntzako haurren gurasoendako.

# Eguenean 07:30ean abiatuko da letania

**M.B.** | BERGARA

Eguenean San Martzial eguna izango da, eta, urteroko ohiturari jarraituz, ospakizuna egingo da izen bereko mendi gainean.

07:00etan joko dute Santa Marinako kanpaiek, herritarrak ohartarazteko, eta 07:30ean abiatuko dira herritarrak San Martzialerantz, letania errezatuz, parrokia ostetik.

San Martzialera iritsitakoan, meza egongo da ermitan, eta bukatu eta gero, San Joxepe erretiratuen elkarteko kideek prestatutako txokolatea hartzeko aukera egongo da.

### San Martzial erromeria

Ohi bezala, uztaileko lehen domekan, San Martzial erromeria ospatuko da. 10:00etan izango da gurdiaren igoera; 11:00etan, meza nagusia; eta 12:00etan, dantza emanaldia eta ohiko aurreskua.

Arratsaldean, berriz, jolasak eta herri kirolak egongo dira, 16:00etan, 17:30ean irrintzi txapelketa; 18:00etan herri kirolak eta erromeria Unsain taldearekin.

## OHARRAK

**IRTEERA BILBORA SAN JOXEPEREKIN**

Uztailaren 7an egingo dute eta 09:15erako egin dute hitzordua, autobus geltokian. Bilbon autobus turistikoa izango dute ordubeteko bisitaldia egiteko. 14:00etan bazkaria egingo dute Montenegro jatetxean, dantzaldi eta guzti. Izen-ematea elkartearen bulegoan da.

**AQUAPARK-ERA IRTEERA GAZTETXOENDAKO**

Udalak antolatu du, 2000. urtetik aurrera jaiotakoendako. Uztailaren 6an izango da –06:00etan abiatu eta 22:00etan bueltatu– eta prezioa 18 euro da. Izen-ematea da ekainaren 20tik 29ra kultura etxean.

# Eman daiteke izena udako ikastaro trinkoan

**M.B.** | BERGARA

Udal Euskaltegiak udako ikastaro trinkorako matrikula zabaldu berri du.

EGArako eskolak izango dira uztailean lau ordu goizez eta irailean hiru ordu arratsaldez. Izena emateko jo Udal Euskaltegira, Irizar jauregiko lehen solairura, hain justu ere.

Horrekin batera, 2011-12 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea uztailaren 15era arte zabalik egongo dela jakinarazi dute Udal Euskaltegitik.

# Euskal irakurketa bultzatu nahi du Jardun elkarteak

Euskarazko eleberriak merkeago erosteko aukera eskainiko du Irakurzaletasunaren Astearen barruan

**M.B.** | BERGARA

Jardun euskara elkarteak Euskarazko Irakurzaletasunaren Astea antolatu du. Ekainaren 27an, astelehena, hasiko da eta uztailaren 2ra arte, zapatua, iraungo du.

Hiru helburu ditu euskara elkarteak antolatutako ekimen horrek: euskal irakurketa sustatzea, euskararen erabilera gozagarria bultzatzea eta euskal literaturaren produkzioan laguntzea.

Horretarako guztirako, bi ekimen antolatu dituzte: alde batetik, ekainaren 27an umeendako ipuin kontaketa egongo da, 17:00etan, Agorrosingo kanpoko igerilekuan. Eguraldi txarra eginez gero, San Martin plazako arkupeetan izango da.

### Euskarazko liburuak merkeago

Bigarren ekimenarekin, euskarazko liburuak merkeago erosteko aukera egongo da, Irakurzaletasunaren Asteak irauen bitartean, Elkar Megadendan, haur, gazte zein helduen literaturan.

Euskarazko literatura liburuak erosterakoan, saltzaileak emandako erosketa txartela Jardunera eroan eta deskontu abonatuko dute bertan.

Gehienez bi liburu hartu ahal izango dira eta deskontu hauek egingo dituzte: %50, helduen literaturan; %30, gazteen literaturan; eta %15, haur literaturan, hain zuzen ere. Jardunen dirua jasotzeko epea uztailaren 8ra arte da.

**Kontuan hartzekoak**

**ZER** Jardunek deskontuak egingo ditu euskarazko literatura liburuak Elkar Megadendan erosterakoan.

**ZENBAT** Helduen literaturan %50eko deskontua egingo dute; %30ekoa, gazteenean; eta haur literaturan, %15ekoa.

**NOLA** Erosketa txartela Jardun elkartera eraman behar da, uztailaren 8a aurretik, eta deskontua han bertan abonatuko dute.

# Otaba jaiak ospatuko dituzte, bihar hasita, Elosuan

**M.B.** | BERGARA

Elosuan Otaba jaiak hasiko dira bihar, hilak 25. Hain justu, 16:00etan jaurtiko dituzte etxafuegoak eta 16:30ean mus txapelketa egongo da.

Etzi, Otaba eguna, 11:00etan meza nagusia egongo da auzoko hildakoen alde; 12:00etan pilota partiduak egongo dira; eta 17:30ean, berriz, herri kirolak: Goenatxo harri-jasotzaileak eta Larretxea eta Olasagasti aizkolariek erakustaldia egingo dute. Ondoren, triki poteoa egongo da Lutxurdio, Aitziber eta Kantera trikitilariekin.

### Otaba Txiki eguna

Astelehenean, Otaba Txiki eguna, 13:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza egongo da eta 15:00etan, auzo bazkaria. 17:30ean jolasak egongo dira ume, gazte eta nagusiendako. 19:00etan triki poteoa egingo dute, eta, jaiei amaiera emateko, auzo afaria eta erromeria egongo dira, 21:00etan. Egun osoan barrena Laja eta Lutxurdio trikitilariak ibiliko dira auzoa alaitzen.

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09




Eguaztenean 60 bat lagun batu ziren Irala kalean, ekimenari babesa adierazteko. | E.M.

# Eskubide guztien defentsan, Eleak ekimena abian jarri dute

Ekainaren 27tik uztailaren 5era ekitaldiak antolatuko dituzte herrian

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Bergaran ere Eleak (Euskal Herria libre eta legala), eskubide guztien defentsan lanean jarduteko taldea sortu dute. Eguenean 60 bat herritarrek bat egin zuten ekimanerekin, Irala kalean egindako agerraldian. Bateragunearen aurkako epaiketak irauten duen bitartean (ekainaren 27tik uztailaren 5era izango da Audientzia Nazionalean) mobilizazioak antolatuko dituzte. Maitane Arizabaletak eta Idoia Elkorok hartu zuten hitza. Arizabaletak azpimarratu zutenez, "Euskal Herrian eta Bergaran herritarren eskubide zibil eta politikoak zapalduta jarraitzen dute: legez kanporatzeak, torturak, epaiketa politikoak, presoen eskubideak... Gainera, 300 bergararri udal hauteskundeetan parte hartzea debekatu diete, Agurne Barruso alkateari tartean, eta herritarroi haiei bozkatzeko eskubidea ukatu digute. Preso eta iheslariak Bergaratik urrun dira eta zigorra beteta dutenak (*Kanto* eta Lazkano) kartzelan mantentzen dituzte. Gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea debekatzen zaigu".

**Elkartasuna**

Hainbat bergararren kasuak gogoratu zituen Arizabaletak: "Aittor Aranzabalek bi urte egin ditu kartzelan Batasunako Mahai Nazionaleko kide izatearren eta epaiketaren zain dago, lan politikoa egin ezinda. Mikel Zubimendirekin eta Mikel Garaiondorekin gauza bera. Xabier Arregi *Txapi*-k Alacanteko espetxean jarraitzen du EKINeko kide izatearren eta Jose Luis Elkoro etxean daukate zigortuta oraindik. Haren semeetako bat, Iñigo, presoen alde lan egitearren auziperatuta dago. Azkenik, Aitziber Plazaola SEGIko kide izatearren auziperatu dute eta Alcala Mecoko espetxean da gaur".

Astelehenetik aurrera Bergaran egingo diren ekitaldietan parte hartzeko deia zabaldu zuten: "herri osoa, kolore ezberdinetako herritarrak jarri behar ditugu eskubide zibil eta politikoen defentsan, Jose Luis Elkororekin lortzen ari garen bezala".

## Tatxin eta Tatxan pailazoen emanaldia gaur Angiozarren

Gaur, egubakoitza, Tatxin eta Tatxan pailazoek emanaldia egingo dute Angiozar auzoan, 18:00etan. Tatxin eta Tatxan bikoteak eskaintzen duena ez da animazio soila. Musika ikuskizuna da. Bertan, gurasoek haurrekin parte hartuko dute. Beraz, adin guztiei zuzenduko emanaldia da gaurkoa. Abesti dantzagarri eta dibertigarriz osatutako abesti bilduma luzea eskainiko dute Angiozarren. Hitzordua, esan bezala, 18:00etan gaur.

## Musika bekak eskatzeko epea, ekainaren 30era arte

Bergarako Udalak bekak emango ditu herriko musika talde gazteentzat, grabazioak egin ahal izateko. Musika taldeek, bikoteek eta bakarlariek jaso ahal izango dituzte laguntzak. Beka jasotzen duten taldeak derrigortuta egongo dira, beka jaso duten urtean edo ondorengo bi urteetan, Udalarekin adostutakoan, herrian hiru kontzertu eskaintzera dirurik kobratu gabe. Laguntzak eskatzeko epea ekainaren 30era arte dago zabalik. Argibideak 943 77 91 58 zenbakian.



# "Iazko talde kopurura iritsiko garela uste dugu"

Iaz moduan, taldeek azken ordura arte itxaron dute izena emateko; bihar, zapatua, 10:00etan hasiko dituzte hirunako saskibaloi partiduak

**XABIER URTZELAI** | BERGARA

Gaur, egubakoitza, eguerdian jakingo dute antolatzaileek Hirunako Soraluce Sarian zenbat taldek parte hartuko duten, iaz moduan, izena emateko epea azken ordura arte luzatu dutelako. Jendea lasai dabil, eta jaiak igaro berri izanak laguntzen du horretan: "Jaien ostean jendea despistatu samar ibiltzen da, iaz ere ikusi genuen hori, eta horregatik luzatu dugu izenemate epea. Iaz, baina 82 talde izan genituen San Martin plazan, sekulako arrakasta izan zen, eta aurten ez ditugu talde gutxiago espero. Gainera, klubean iaz baino bi talde gehiago izan ditugu aurten, eta horrek ere lagunduko du", adierazi digu antolatzaile lanetan dabilen Marian Melladok.

Horrekin batera, dagoeneko saldu dituzte zapatuko afarirako txartel guztiak.



San Martin plazak saskibaloi partiduak hartuko ditu asteburuan. | GOIENA

**Zapatuan eta domekan**

Bihar 08:00etan hasiko dituzte San Martin plaza saskibaloi kantxa bilakatzeko lanak, eta 10:00etarako gertu egongo da dena, partiduekin hasteko. Hala, zapatu goizean kadete eta gazte mailakoek jokatuko dute, eta arratsaldean, 16:00etan hasita, ibarreko seniorren eta elite mailako seniorren txanda izango da, bai gizonezkotan eta baita emakumezkotan ere.

Domekan, berriz, gaztetxoek hartuko dituzte kantxak, eta 10:00etan hasita alebinek, benjaminek eta infantilek jokatuko dute. Ondoren egingo dituzte sari banaketak, 14:00ak inguruan.

## Gaur bi partiduk itxiko dute Ipintzako torneoko lehen astea

**X.U.** | BERGARA

Astelehenean hasi zuten Ipintzako futbol txapelketa, eta iazko txapeldun Juvek bete zuen lehen konpromisoa, inaugurazio ekitaldiko partidua irabaztea. Iazko txapeldunek, baina, ondo egin beharko dituzte gauzak aurten ere finalean izateko (uztailak 15, 19:00etan, Agorrosin zelaian) talde indartsuak daudelako txapelketan: "Besteak beste Irama taldea izan daiteke ezustea eman dezakeenetako bat. Talde berria da, baina futbolean ondo jokatzen duten jokalariekin osatutakoa", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Popek.

Aurtengo txapelketan hamabi talde daude: "Eta kopuru polita da, egun gutxi genituelako txapelketa egiteko". Horietako batzuek aste barruan jokatu dute torneoko lehen partidua. Eta gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita Osinolak eta Getokoak taldeek jokatuko dute, eta 20:00etan Langostak eta Juvek. Hala, asteburuan atseden hartu ostean astelehenean itzuliko dira norgehiagokak Ipintzara, 18:30ean hasita..

**Neskak, areto futbolean**

Aurten ez dute beteranoen F8ko txapelketa antolatu, eta emakumezkoak, ostera, areto futbolean jokatzen dabiltza. Hala, datorren egubakoitzean, uztailak 1, jokatuko dute emakumezkoen finala.



Iazko irabazleak, Juve taldea. | GOIENA

Iturgintza - Berogintza

Laskurain

Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra



Barrenkale 44 - BERGARA - Tel/Faxa.: 943 76 24 89 - Mug.: 610 20 54 99 - 607 76 24 89





Diploma jaso zuten neska-mutikoak. | MUSIKA ESKOLA

# Musika Eskolako 29 ikaslek urte amaierako diplomak jaso dituzte

Kontzertua eta ekitaldia egin zuten eguaztenean Zabalotegi aretoan

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Musika Eskolako ikasle eta irakasleek ikuskizun bikaina eskaini zuten eguaztenean. Ikasturte amaierako ekitaldia egin zuten eta diplomak banatu zituzten.

Zabalotegi aretoan ikasleen guraso eta lagunak elkartu ziren. 29 ikaslek jaso zuten diploma. Ohikoa den moduan, bi diploma mota banatu zituzten. Alde batetik, hirugarren mailako hiru ikaslek jaso zuten diploma; bestetik, bigarren mailako 26 ikasle izan ziren taula gainean diplomak jasotzen. Amaieran, denek batera argazkia atera zuten.

**Ikasturtean ikasitakoak**

Azken urteetan ohiko bilakatu den ekitaldian, ikasle eta irakasleen arteko zerbait bakarrik izan ez dadin, kontzertu dibertigarri eta berezia eskaini zuten ikasleek. Helburu nagusia da ikasturtean zehar ikasitakoak praktikan jarri eta jendaurrean jotzeko ohitura hartzea. Hala, diplomak jaso dituzten ikasleek musika lan bana jo zuten; batzuk bakarka eta beste batzuk taldeka. Akordeoia, oboea, biolina, pianoa, flauta... eta beste hainbat musika instrumentuk girotu zuten Zabalotegi. Ikasleak gustura geratu ziren, eta zer esanik ez gurasoak.

Kontzertu amaieran luncha eskaini zien Musika Eskolak hara joandako ikusleei.

**Musika Eskolako abesbatza**

Gaur 20:00etan Gabero eta Ganbara abesbatzek pop-rock kontzertu korala eskainiko dute Zabalotegi aretoan. Saioa doanekoa izango da. Horren harira, Aitor Biain bi abesbatzetako zuzendariak esan du Gabero abesbatzarekin batera Musika Eskolako hamar bat gaztetxok ere abestuko dutela abesti bat: "Helburua da Gabero abesbatzara pasako diren gaztetxoei aukera ematea kontzertuan parte hartzeko".

**Udaleku musikalak**

Ikasturtea amaitutzat eman zuten eguaztenean; hala ere, oporrei begira udaleku musikalak egingo dituzte Musika Eskolan. Hala, datorren astelehenean hasi eta uztailaren 8ra arte musikaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikienek. Helburua da musikaren mundu zoragarria ezagutu, ulertu eta bizitzea; jolasen bidez musikaz disfrutatzea; eta giro ludiko eta goxo bat sortzea. Horretarako "tailer dibertigarriak" landuko dituzte gaztetxoek.

## Nogalesen lanak Aroztegin ikusgai

A.E. | BERGARA

Emilia Nogales elgoibartarraren lanekin osatutako erakusketa gaur inauguratuko dute Aroztegin, 18:00etan.

Moda diseinatzaile lana utzi eta margotzeari ekin zion Nogalesek orain dela 11 urte. Hasiera baten olioekin hasi bazen ere, gaur egun akrilikoak margotzen ditu. Bere kasa ikasi du margotzen Elgoibarko artistak.

Erakusketa gaur zabalduko dute eta uztailaren 17ra arte egongo dira ikusgai Aroztegin. Aretoko ordutegia ondokoa izango da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan goizez bakarrik egongo da zabalik erakusketa, 12:00etatik 14:00etara.

## Una Noche Sin Sabina taldeak kontzertua eskainiko du Tartufon San Juan jaietan

A.E. | BERGARA

Gaur, egubakoitza, Joaquin Sabinaren doinuek girotuko dute Tartufo. Una Noche Sin Sabina taldeak kontzertua eskainiko du, 23:30ean.

Sarrera doan da, eta San Juan jaien barruan antolatu dute. Una Noche Sin Sabina taldeak musikari madrildarraren abestiak eskaintzen ditu. Sabinaren kantu ezagunenak eta baita errepertorioko harri bitxiren bat ere.

**Omenaldi txikia**

Arrasate eta Gasteizko lagunek osatutako taldea da, Sabinari omenaldia egiteko asmoz. Lau lagunek osatzen dute.



NAHIKARI

## Edurne Erañaren lanak Nahikarin

Artista bergarararen 12 margolan jarri dituzte ikusgai Nahikari tabernan, hilaren bukaera arte. Erretratuak eta paisaiak dira Erañaren lanen oinarria. Simon Arrieta eta Migel Okinaren eskutik sartu zen pinturaren munduan bergararra. Pintura eta marrazketa ikastaroak ematen dabil azken 25 urteetan, eta Beart sortzeko lanetan ibili zen.



# Garapen Jasangarri eta Parte-hartze batzorde berria sortu du udalbatzak

## Osoko bilkura berezia egin zuten atzo arratsaldean

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Atzo, eguena, arratsaldean egitekoa zen ezohiko osoko bilkuran, udal antolaketari buruzko hainbat gai onartu zituen udalbatzak. Tartean, batzordeetako eskumenak zehaztu eta bakoitzaren presidenteak izendatu zituzten. Sei batzorde izango ditu lanean hasi berri den Udalak, eta horietako bat sortu berria da: hain justu ere, Garapen Jasangarri eta Parte-hartzearen batzordea. Beñat Herce alkateak jakinarazi digu udal programarekin "koherenteak" izateko asmoz sortu dutela hori. Honakoa esan digu: "Alde batetik, jasangarritasunean oinarritutako garapen ekonomiko, sozial eta ekologikoko gaiak landuko dira horretan, eta bestalde, gai klabeetako bat: parte-hartzea eta gardentasuna, komunikazio eraginkorraz lagunduta jorratuko direnak". Esan bezala, ingurumen, ekonomia eta enplegu, turismo, parte-hartze eta komunikazioaz jardungo da horretan, eta Leire Urtzelai da horren buru.

**Alkateak hiru batzorde**

Bestalde, alkatea hiru batzorderen arduraduna izango da: Kontu eta Ogasuna, Pertsonala eta Gobernua eta Hirigintza. Azken batzorde horren eskumenak hirigintza, obra eta zerbitzuak eta elizateak -azpiegiturak izango dira. Horretaz gainera, Arantxa Iregi Gizarte Ongizate batzordeaz arduratuko da; gizarte ongizateaz gain, prebentzio, aukera berdintasun eta osasunarekin lotutako gaiak jorratuko dituzte horretan. Azkenik, Kultura batzordea dago, Jose Angel Petralandak zuzenduko duena. Kultura, euskara, gazteria, jaiak, hezkuntza eta kirolak izango dira horren eskumenak.

## Salgai daude hilaren 28ra arte herri bazkarirako txartelak, 15 eurotan

**M.B.** | ESKORIATZA

Martitzenera arte, hilak 28, daude salgai San Pedroetako Euskal Jai Egunerako bazkariko txartelak Goxo-Txikin, Inkernun eta Akeitan. Helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta 14 urteko arteko neska-mutikoek, ostera, 10 euro. Eusko Labeleko jakiak izango dituzte.

Aurreko urteotan egin den moduan, koadrilek elkarrekin jartzeko arazorik izan ez dezaten leku-erreserba egin ahal izango dute. Horretarako, kultura etxera (943 71 46 88) deitu beharko dute, edo, bestela, *kultura@eskoriatza.net* helbidera idatzi. Udaletik jakinarazi dute bazkalostean apar-festa egongo dela.

## Aste Zapatistako zozketaren zenbaki irabazlea 0921 da; saridunak uztailaren 11ra arte du agertzeko epea

Aste Zapatistaren harira egindako zozketaren irabazlerik ez da agertu oraindik. Horren harira, Txiapasekin Elkartasunekoek gogorarazi dute zenbaki sariduna 0921 dela. Zenbaki hori daukanak txartela saldu zionarekin jarri behar du harremanetan hilabeteko epean. Beste bi zenbaki atera ziren, erreserban, lehenengoa agertu ezean; hain justu, 0847 eta 0296. Saridunak irabaziko du Elantxobeko Ogoño-Mendi landetxean asteburu bateko egonaldia (gosaria barne).

## Neskek ere parte hartuko dute bihar jokatuko den Kontzejupe izeneko pilota txapelketan

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta, Kontzejupe pilota txapelketaren 8. edizioa jokatuko dute bihar, zapatua. Goizean, 11:00etan, haurren txanda izango da; eta 15:00etan, ostera, helduena. Umeek Inkernu tabernan eman behar dute izena, eta nagusiak kontzejupean bertan apuntatu ahal izango dira. Antolatzaileek jakinarazi digutenez, aurten neskek ere parte hartuko dute txapelketan.



Askotariko jolasak izango dituzte aurten ere umeek. | ESKORIATZAKO UDALA

## Kultura aniztasuna jorratuko dute udaleku irekietako 240 umek

**M.B.** | ESKORIATZA

Joan den urtearekin alderatuta asko handitu da udaleku irekien parte-hartzaileen kopurua. Gazteria Sailetik jakinarazi digutenez, 240 neska-mutiko izango dira aurten; begirale lanetan, ostera, 24 lagun ibiliko dira, eta horietako bik koordinatzaile lanak ere egingo dituzte.

Uztailaren 4an hasi eta hil bereko 22an bukatuko dira udalekuak. 1999 eta 2007. urte bitartean jaiotako haurrei zuzenduta daude, eta ordutegia honakoa izango da: goizean, 10:00etatik 13:00etara; eta arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara. Aurten kultura aniztasuna jorratuko dute egiten dituzten ekintzetan; gaia aukeratzerakoan, gainerako tokietan bezala, Eskoriatzan ere gero eta etorkinen gehiago daudela islatu nahi izan dute antolatzaileek.

**San Fermin eta irteerak**

Ekintzei dagokienez, denetarik egongo dela azaldu digute: askotariko jokoak izateaz gain, urteroko irteerak ere egingo dituzte, hala nola Gamarrara, Degurixara eta Gopegira.

Horrez gain, azken urteotako ohiturari jarraituz, uztailaren 7an San Fermin ospatuko dute, entzierro batekin. Uztailaren 22an azken jaialdia izango da.

**NIRE USTEZ**

NESTOR ARANA



## Denbora eta espazioa

Behin kolonbiar bat gurean bisitan egon zen. Kolonbiar honek gure bailara ikusi ondoren, guk zer jaten genuen galdetu zuen, bisitan zehar ez zuen-eta ia landagunerik ikusi. Bertakoak, harrituta, ez zuen jakin erantzuten, ordura arte ez baitzen konturatu oso landagune gutxi erabiltzen ditugula bertoko jakia ekoizteko.

Egia esan, gure sukaldeko armairu, biltegi edo apalei begirada bat botatzen badiegu, laster konturatuko gara etxean ditugun janari gehienak oso urrunekoak direla.

Horren ondorioetako bat izan daiteke gure landaguneak autopista eta trenbideekin betetzea. Besteak beste, jaki horiek bertaratzeko denbora murriztu nahi dugulako eta horretarako garraiobide azkarrak behar ditugulako. Baina garraiobide horiek hartzen duten espazioa gure landagunean kaltetan direla konturatu behar dugu. Denboraren eta espazioaren arteko borroka bat jasaten ari garela esango nuke.

Nire ustetan, denbora apur bat hartu beharko genuke gure seme-alaba eta bilobentzako nahi dugun herria nolakoa izan behar duen pentsatzeko. Guregan bakarrik pentsatzen badugu, garbi dago gauza onik ez dugula egingo.

Orain krisian murgilduta gaudenez, alegia gastatzeko diru gutxiago dugunez, agian pentsatzeko denbora gehiago edukiko dugun esperantza dut.

**"Denboraren eta espazioaren arteko borroka jasaten ari gara"**

Ondo pasa jaixetan!
LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
**Konponketak:** Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
inyektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61• Faxa: 943 71 40 10 • *rleniz@euskalnet.net*

ELGETA



Eskolako ikasleak eta irakasleak, atzo, ikasturte amaierako bazkarian. | L.Z.

# Hurrengo ikasturtean gela bat gehiago Herri Eskolan

## Zortzi unitateko eskola izango da Elgetakoa; banandu egingo dira lehen eta bigarren mailak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Amaitu da ikasturtea Elgetako Herri Eskolako neska-mutikoendako. Atzo, eguena, egin zuten ikasturte amaierako bazkaria eskolako jolastokian. Arratsaldean, berriz, herri kirolak egin zituzten.

Handituz doan eskola da Elgetakoa; datorren ikasturtean gela bat gehiago izango du. "Haur Hezkuntzako lau gelak mantendu egingo dira, eta lehenengo zikloan bi gela izango ditugu", adierazi du Emma Igartua zuzendariak. Hala, orain arte gela bakarrean sartzen baziren lehenengo eta bigarren maila, irailetik aurrera bi gela bereizi izango dira. "Hurrengo ikasturtean orientatzaile-kontsultorea ere izango dugu eta irakasleok hezkuntza kooperatiboaren gaineko mintegi batean sartuko gara", aurreratu du Igartuak. "Berrikuntza garrantzitsuak dira eskolarendako". Erronka gehiago ere badauko; hiru eleko hezkuntza eredua, esaterako. Elgetan ere badihardute gaia lantzen.

Amaitu dira eskolak, baina irakasleek lanean jarraituko dute hil amaierara arte; notak banatu, gurasoekin azken bilerak egin, hurrengo ikasturtea prestatu... Lehen hezkuntzako ikasleek martitzenean, hilak 28, jaso behar dituzte notak. Eskolara joan beharko dute horretarako 11:00etatik 12:00etara.

### Haurreskolarako zazpi ume

Elgetako haurreskola zerbitzuak, berriz, zabalik jarraituko du datorren ikasturtean. Murrizketak nagusi diren sasoi honetan haurreskolak zabalik mantentzeko baldintzetako bat zen gutxienez hiru umek zerbitzua erabiltzeko izena ematea. Bada, zazpirekin hasiko dute ikasturtea Elgetako haurreskolan, eta aurreikusita dago urria eta azaroa bitartean beste hiru umek izena ematea. Guztira, beraz, hamar erabiltzaile izango ditu Elgetako haurreskolak.

## Umeendako saskibaloi jolasak egingo dituzte gaur, barikua, kiroldegiko kantxan

Bergarako saskibaloi elkarteak eta Elgetako Udalak elkarlanean antolatutako ekimena da; "Jinkana bat egingo dugu", adierazi du Bergarako saskibaloi elkarteko Marian Melladok. "Helburua da umeek ondo pasatzea eta Elgetako neska-mutikoei saskibaloia ezagutzeko aukera ematea". Jolasak 17:00etan hasiko dira eta ordu eta erdiko iraupena izango dute.

Ez da saskibaloiarekin lotuta Elgetan egingo den azken ekimena. Udalak eta Bergarako elkarteak aurrerantzean ere jarraipena eman gura diete ekintza horiei.

## Ozkarbiko bazkideek giltza berria jasotzeko azken eguna dute gaur; elkarteak itxita jarraitzen du

Zuzendaritzako kideak Ozkarbi elkartean izango dira gaur, barikua, 13:15etik 13:45era eta 16:00etatik 18:00etara. Giltza berria banatzeko ipini duten azken eguna da gaurkoa; jaso ezin dutenek zuzenean zuzendaritzako kideren batengana jo beharko dute, edo hileko lehenengo martitzenetan, 19:30ean, elkartean egiten duten bilerara. Gogoratu beharra dago, bestalde, garbiketa lanak direla-eta astelehenetik eguenera itxita egongo dela elkartea. Gauzak ondo bidean, zabalik egongo da jaien hasierarako.

## Musika ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute etzi, domeka, kafe antzokian

Adin eta maila ezberdinetan banatuta Elgetako 24 musika ikaslek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute domekan, hilak 26. Lorea Larrañaga irakaslearen gidaritzapean, 12:30ean hasita, taldeka, banaka zein binaka musika ikasleak lanean ikusteko eta entzuteko aukera izango dugu. Musika ikasleek instrumentuak jotzen ikusiko ditugu, pianoa eta gitarra gehienbat, eta dantza saioak ere egongo direla aurreratu dute. Sarrera doan da.

## Uztaileko udaleku irekietan parte hartuko duten umeen gurasoendako batzarra martitzenean

Udalekuen nondik norakoak azaltzeko eta gurasoen galderak eta zalantzak erantzuteko egingo da batzarra. Iaz bezala, bilera informatiboa izango da eta gurasoei zuzenduta dago. Bilera ludotekan egingo dute hilaren 29an, eguaztena, 20:00etan.

55 neska-mutikok eman dute aurten izena uztaileko udaleku irekietan parte hartzeko. Zerbitzua Elgeta Udalak ematen du eta uztailaren 4tik 29ra izango da; astelehenetik barikura 09:00etatik 13:00etara.

LEINTZ GATZAGA

# Gertu daukate Dorleta Bibreixon jaialdia uztailaren 2an ospatzeko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Orain dela bi urte lehenengoz antolatutako Dorleta Bibreixon jaialdiak jarraipena izango du, eta uztailaren 2rako jai giro polita antolatu dute Dorleta santutegi inguruko zuhaitz artean. Ume, gazte eta heldu, guztiendako ekitaldiak egingo dituzte.

Arratsalde partean hasiko dute jaialdia umeendako jolasak eginda (18:00): tailerrak, jolas kooperatiboak... Gero afaria izango da, Dorletan bertan, *tuperware* afaria hain zuzen. Hala, jatekoa norberak eroan beharko du eta edatekoa bertan eskainiko dute antolatzaileek. Afalordua girotzeko, gainera, Koktel laukotea izango da eta jazz doinu goxoak eskainiko ditu. Eta afalostean Debagoieneko bi talderen txanda etorriko da: Ain_1 eta Malatu.

Jai giroak, baina, jarraitu egingo du ordu txikiak artean disko jartzaileek lagunduta: batetik, Sound Sister eta bestetik, Mr. Dubbin. Horiek emango diote bukaera Dorleta Bibreixon jaialdiari. Eguraldiak lagunduz gero aparteko gau giroa sortuko da santutegi inguruan.

# Bigarren mailako beteranoen lehian, Gatzagako bi bikotek jokatuko dute etzi

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Dorleta pilota txapelketa aurrera doa eta kategoria bakoitzeko finalean izango direnak erabakitzen doaz. Uztailaren 24an jokatuko ditute ligaxkako azken partiduak.

Domekan, hilak 26, kimuen, haurren eta benjaminen arteko partidu bana jokatuko dute eta bigarren mailako beteranoen arteko lau. Horien artean Gatzagako bi bikote daude: Barandiaran eta Aizpuru (Gatzaga), Azkona eta Etxenagusiaren aurka (Eskoriatza); eta Heriz eta Bengoa (Gatzaga), Jauregui eta Pildainen aurka (Arrasate).

Hurrengo domekan, uztailak 3, ez da izango partidurik.



# Dantzarien kriskitinek markatuko dute Corpusetako aste bukaera

## Gaurtik etzira arte askotariko ekitaldiak egingo dituzte; nagusia domekako prozesioa izango da: 12:00etan irtengo da parrokiatik

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Corpus jaiek bat egingo dute aurten sanjuanekin. Inoizko Corpusik berantiarrenak gaur hasiko dituzte Oñatin eta domekara arte askotariko ekitaldiak egingo dituzte herrigunean (ikus ondoko taula). Oñatz Dantza Taldeko kideen kriskitin doinuek markatuko dute aste bukaera. Haiek izango dira protagonista nagusienetako batzuk, eta, hori jakinik, apiril hasieran hasi zituzten entseguak besoak indartzeko.

Oraingoan, gainera, lan handiagoa izango dute. Izan ere, herriko auzo gehiagotan egingo dute dantza: gaur, San Martin, Ugarkalde eta Kasablanka auzoetan egingo dute dantza lehen aldiz. Gainera, arratsaldean, eskolako umeei egingo diete bisita. Herriko ikastetxeetan dantza saio bana egingo dute.

### Auzo gehiagotan dantzan

Bihar goizean dantzariak esnatuko dira azkarren. 09:00etan plazan emanaldia egin ostean, kalerik kale ibiliko dira Corpusak badatozela iragartzeko. Kalejira egin ondoren, atseden hartuko dute domekara arte. Corpus jaietako egun handia da eta dantzarien doinuak dira protagonista nagusiak. Haiek egingo diete harrera San Migel, Jesus eta apostoluei Santa Ana antzokiaren sarreran. Haien laguntzarekin egingo dute parrokiara arteko bidea, eta dantzariek markatutako bidetik egingo dute prozesioa.

Aurretik, baina, banakoa dantzatuko dute parrokian, meza nagusiaren baitan. Domeka arratsaldean, Corpus eguneko dantza guztiak eskainiko dituzte Oñatzeko kideek.

### Fernando Diaz, San Migel

Bestelakoan berrikuntza gutxi izango ditu prozesioak. Bigarren urtez jarraian Fernando Diazek irudikatuko du San Migel. Bi etapatan izan da prozesioko protagonista. 2004an Jose Errastiren lekukoa hartu zuen, eta hiru urtez San Migel izan zen: 2004an, 2005ean eta 2006an. Ondoren, Jose Antonio Agirianok hartu zuen haren lekua. Iaz Diazek hartu zion erreleboa Agirianori.



San Migel eta Apostoluak Santa Anatik irteten. | GOIENA

### Maskarak eraberrituta

San Migel, Jesus eta Apostoluak janzteko erritualа 10:00etan hasten dute Santa Ana antzokian. Lan handien San Migel janztea da. Harekin hasten dira lehenengo eta ondoren apostoluak janzten dituzte. Haiek berrikuntzekin irtengo dira: ileorde berriekin eta berritutako maskarekin. Hori horrela, apostoluek *aurpegi berria* izango dute. Gasteizko Croma enpresan berritu dituzte, azken urteotan prozesioko beste hainbat elementurekin egin duten moduan.

Hasierako asmoa maskarak kanpotik berritzea zen, baina barrutik zuten itxura eskasa ikusita osorik berritu dituzte. Kofradiako kideek diote eraberritu ondoren "arinagoak eta higienikoak" direla.

Sakramentu Santuaren Kofradia buru-belarri ibili da asteon etziko guztia antolatzen. San Migel, Apostoluen eta Jesusen arropak Santa Ana komentuan gordetzen dituzte. Euren kaxetatik atera, aireratu eta gero Santa Anara jaitsiko dituzte. Arropa guztiak jantzita, Oñatzekoen kriskitinen zain egongo dira prozesioari hasiera emateko.

### CORPUSETAKO EGITARAUA

**EKAINAK 24**

**Goizean** Oñatzeko dantzariak herriko auzoetan.

**14:30-17:00** Oñatzeko dantzariak ikastetxeetan.

**19:00** Musika eskolakoen kontzertua Portuko plazan.

**22:30** *Dos con gafas* antzezlana Santa Anan.

**EKAINAK 25**

**09:00** Oñatzeko dantzariak herriko kaleetan.

**12:00** Herri lasterketa gaztetxoendako.

**17:00** Gari, Montxo eta Joselontxo Santa Anan.

**19:00** IX. Nazioarteko Herri Lasterketa.

**20:00** Musika Bandaren kalejira.

**Ondoren** Imuntzo eta Belokiren erromeria plazan.

**23:00-01:00** Imuntzo eta Belokiren erromeria plazan.

**EKAINAK 26**

**09:00** Txistulari Bandaren goizeresia.

**10:00** Musika Bandaren goizeresia.

**10:45** Prozesioko irudiak parrokiara helduko dira.

**11:00** Meza nagusia parrokian.

**12:00** Corpus prozesioa herriko kaleetan.

**13:15** Musika Bandaren kontzertua plazan.

**18:15** Oñatzeko dantzarien emanaldia plazan.

**19:00** Musika Bandaren kontzertua.

## Kiroldegiko aparkalekua doan

Corpus jaien aitzakian barrakak heldu dira Oñatira, eta plazako aparkalekua bete dute. Hori horrela, gidariek ezin dute autoa han utzi hilaren 29ra arte, barrakak alde egin arte. Hori dela eta, Udalak erabaki du kiroldegiko lur azpiko aparkalekua doan izango dela plazako aparkalekua beteta dagoen artean. Aurreko astetik, jada, doan utzi daitezke autoak parkingean. Sarrerako hesia jasota dago, eta txartelak ematen dituen makinan *Doan* dioen kartela ipini dute. Kiroldegikoa beteta badago, osasun etxeko aparkalekua edo Olaiturrikoa erabiltzeko aholkua eman dute.

## Bilduk ez du prozesioan parte hartuko

Ohikoa da udalbatzako kideek Corpuseko prozesioan parte hartzea. Bada, domekan, Bilduko kideek eta alkateak ez dute udalbatza moduan parte hartuko. "Ez dugu alderdi eta udalbatza gisa parte hartuko. Zinegotziren batek bere kabuz parte hartu gura badu, egin dezala", esan digu Mikel Biain alkateak. Lourdes Idoiagak esan digu EAJko zinegotziek oraindik ez dutela zer egin erabaki. "Kofradiako kideen gonbidapena jaso dugu, eta eurengatik, prozesioaren antolatzaileengatik eta beste askorengatik, bi aldiz pentsatuko dugu".

## San Martingo etxeetarako zerrenda ikusgai dago Santa Anako beiratean

**M.B.** | OÑATI

San Martin auzo 4 eta 5. zenbakietan egin behar dituzten babes ofizialeko 26 etxeen zozketarako onartu duten zerrenda ikusgai dago Santa Anako beiratean. Etxebidek emandako zerrendan 169 eskatzaile jaso dituzte. Interesatuek zerrenda ikusi eta akatsen bat badago, alegazioak aurkezteko epea dute uztailaren 7ra arte. Epea bukatuta alegazioak aztertu eta zozketarako eguna zehaztuko dute. Udal arduradunek esan digute "ziurrenik" uztailean egingo dutela zozketa.

San Martin 4 eta 5. zenbakietan 30 etxe egingo dituzte. Horietatik lau desjabetze egoeran daudenen artean banatuko dituzte.

## Izurrite beltzaren eragina

Jose Antonio Azpiazuren *Gaixotasun beltz hori. Euskal Herria hondatu zuen izurritea (1560-1600)* liburua aurkeztu zuten eguaztenean. Egilearekin batera udal ordezkariak eta Jerardo Elortza egon ziren ekitaldian. Liburua salgai dago.




ARGAZKILARIAXXX



Iazko udalekuetako neska-mutikoak, plazako frontoian egindako ekitaldian. | LUDOTEKA

# 340 ume udalekuetan, 'Milakolore martxan'

## Uztailaren 1etik 29ra askotariko ekitaldiak egingo dituzte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Gertu dituzte uztaileko udaleku irekiak. Uztailaren 1etik 29ra askotariko ekitaldiak egingo dituzte, eta horiekin gozatzeko asmoz 340 neska-mutikok eman dute izena. Inoizko parte-hartzerik handiena. Horiek guztiak zaintzeko 34 begirale, bi koordinatzaile, errefortzuko laguntzaile bat eta praktiketako laguntzaile bat ibiliko dira.

**San Lorentzoko ETEOn**

Hainbat berrikuntza dituzte aurtengo udalekuek, baina nabarmenena lekua izango da: umeak San Lorentzoko ETEOn utzi eta batu beharko dituzte gurasoek. "Erosoago egongo gara. Harrera leku bat izango dugu, eta umeak antolatzeko hainbat gela. Komunak ere badaude", esan digute arduradunek.

Beste berrikuntza nagusia da adin tarte bakoitzerako ekintza-egitarau ezberdina antolatu dutela. 3-4 eta 4-5 adin tartekoak multzo baten sartu dituzte, 5-6 eta 6-7koak beste baten eta nagusiak –7-8 eta 8-9-10 urtekoak– hirugarren taldean. "Ume guztiek ez dituzte joko berberak egiten. Ahalegindu gara adin tarte bakoitzerako egokiak diren joko eta jolasak bereizten", diote arduradunek.

Gainera, udalekuen sarreran gurasoendako informazio panela ipiniko dute: eguneko, asteko eta hil osoko ekintzen egutegia. Horietan, adin tarte bakoitzak ze ekintza eta ze lekutan egingo dituen ikusi ahal izango dute.

**Adinka kolore ezberdinak**

Iazko bidetik jarraituta *Milakolore martxan* izango da udalekuen leloa. *Oñati milakolore* delako abestia presente izango dute ekitaldi gehienetan. Iaz bezala, koloreak izango dira protagonista. Adin tarte bakoitzak kolore bat izango du: 3-4 urtekoek horia, 4-5ekoek berdea, 5-6koek laranja, 6-7koek urdina, 7-8koek gorria eta 8-9-10eakoek beltza.

Udaleku irekien helburu nagusia alaitasuna transmititzea da. Bestalde, udalekuek umea asko "aberasten" dutela diote arduradunek: "Sozializatzeko tresna dira, jolasteko aukera dute, arauak errespetatzen ikasten dute, eta euren arteko elkarbizitza indartzen dute. Gainera, herriko hainbat txoko ezagutu eta euskara bultzatzeko askoratiko jarduerak egingo ditugu".

**DATUA**

**34**

BEGIRALE

Horiek dira udalekuetako umeak zaintzeaz arduratuko direnak. Eurekin egongo dira bi koordintzaile eta bi laguntzaile.

# Musika eskolako haize taldearen kontzertua

## Gaur egingo dute, Portu kaleko plazatxoan

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako haize taldeak kontzertu berezia egingo du gaur, 19:00etatik 20:00etara, Portu kaleko plazatxoan. Eguraldi txarra egiten badu, bertan behera utziko dute kontzertua. Guztira, sei kantu eskainiko dituzte. Besteak beste, Coldplay-ren *Viva la vida* eta Lady Gagaren *Bad Romance* joko dituzte. Zuzenekoan eskainiko dituzten kantuen moldaketak Bixen Ibarrondok egin ditu.

Musika eskolako haize taldea 14 ikasle-irakaslek osatzen dute: Beñat Markinez, Xabi Urbina, Olatz Kortabarria, Joseba Jorda, Lorea Gomez eta Bixen Ibarrondo klarinete-joleak; Markel Bellido, Danel Iñurritegi, Ander Biain, Iñigo Barinagarrementeria, Benjamin Maiztegi eta Santi Mendiola saxofoi-joleak; Jone Biain, Itsaso Markinez eta Izaskun Barreña flauta-joleak; eta Imanol Mugartza tronboia eta Araceli Guridi piano-jolea.

**Iazko maiatza ezkero lanean**

Haize taldea iazko maiatzean sortu zuten ikasturte bukaerako kontzertuan parte hartzeko. Ordutik hona, hainbat ekitalditan parte hartu dute; besteak beste, San Martin egoitzaren kultura astean, musika eskolakoen udaberriko eta ikasturte bukaerako kontzertuan eta Gasteizen egindako musikaldian.



Musika eskolako haize taldeko kideak. | MUSIKA ESKOLA

### Kontaminazion Akustika eta Mercenarios taldeek kontzertua egingo dute gaur Arrano tabernan

Hileko azken egubakoitzetan kontzertuak egingo dituzte Arrano tabernan. Hori horrela, gaur Kontaminazion Akustika eta Mercenarios taldeek zuzenekoa egingo dute, 22:00etan. Biek ala biek hardcore-punk musika lantzen dute. Horren aurretik, 19:30ean, hileko azken egubakoitzeko elkarretaratzea egingo dute plazan, euskal preso politikoen eskubideak aldarrikatzeko.

### Elkartasun afaria egingo dute gaur Bidaurretako fraideen etxean, Misio Taldeak antolatuta

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta elkartasun afaria egingo dute gaur, hilak 24, Bidaurretako fraideen etxean. 20:30ean batuko dira eta menua izango da: letxuga entsalada eta patata-tortilla, eta edateko sagardoa. Afalostean solasaldia egingo dute. Oraingo honetan, Donostiako Elizbarrutiko eta Misio Ordezkaritzako kide Leire Aretxak hitzaldia egingo du. Parte-hartzaileek galderak egiteko aukera izango dute.

### Udako kirol kanpainako lehen txanda astelehenean hasi eta uztailaren 8ra arte egingo dute

Kirol Zerbitzuek antolatzen duten udako kirol kanpainaren lehen txanda astelehenean hasiko dute. Hain justu ere, hilaren 27tik uztailaren 8ra arte egingo dute. Bestalde, txanda bakarreko kirola aukeratu dutenek uztailaren 22ra izango dute ikastaroa. Bestalde, Kirol Zerbitzuetako arduradunek esan digute bigarren txandako hainbat eskaintzatan tokia dutela. Interesatuek kiroldegiko bulegoan edo 943 71 63 75 telefonoan eman dezakete izena.

## Denboraldiko futbol jokalari onenak sarituta

**Aloña Mendiko futbol sailak urteko jokalari onenak saritu zituen aurreko egubakoitzean, hilaren 17an, egindako afarian. Denboraldian zehar egindako merituak hartu zituzten kontuan sariak banatzeko orduan.**



ANTON GARMENDIA



Deba ibaiaren beste aldean egokitzen dabiltzan pasealekua. | M.A.

# Ibaiaren beste aldeko pasealekua laster gertu

Kiroldegitik gertu hasi eta Iturrizar plazaraino joango da oinezkoendako bidea

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Kiroldegi inguruan hasi eta Iturrizar plazaraino joango den pasealekua egokitzen dabiltza azken hilabeteotan Deba ibaiaren beste aldean. Aspaldiko asmoa –orain dela bi agintaldiko kideek proposatua– laster herritarren zerbitzura egongo da.

### Kolore gorrixka duen lurra

Kilometro pasatxoko pasealekua izango da ibaiaren beste aldekoa. Aurretik dagoeneko eginda zeuden tarte txiki batzuk, baina Bruesak azken urteotan egindako etxebizitzen lanak direla eta, apurtuta, lurrez beteta eta desitxuratuta zeuden tarteok.

Hori horrela, apirilaz geroztik egokitzen eta txukuntzen dabiltza bide zatiak, hain zuzen Txarapeako etxeen azpiko aldean daudenak. Horien ardura Bruesak dauka, eta haren langileak dabiltza hondeatze-makinekin lurra kendu eta lurzoru egokia jartzen. Bukatutakoan kolore gorrixka izango du, bidegorriek legez, eta baranda jarriko dute segurtasuna bermatzeko.

> **DATUA**
>
> **1**
>
> KILOMETRO
>
> **Kiroldegi alboan hasi eta Iturrizar plazaraino kilometro bat izango du.**

### Egurrezko zubia

Txarapea ibilbidea eta pasealeku berriaren artean lur saila dago. Oraindik lur asko daukate bertatik kentzeko eta argindarraren linea ere kenduko dutela jakinarazi dute Udaleko hirigintza teknikariek, baina bertan ez dago ezer egiterik pentsatuta: "Partzela hori ekipamenduetarako da eta oraingoz, behintzat, ez da besterik egingo".

Pasealeku guztia egokitzeko ez dakite zenbat denbora beharko duten langileek. Baina behin lanak bukatutakoan Andramari auzune parean dagoen egurrezko zubia herritarrendako zabalduko dute. Hala, Belorrieta eta Andramari auzuneetatik Txarapea ibilbidera joateko aukera izango da bertatik.

# Abuztuaren 13an, zapatua, hasiko ditu Andramaixak Gazte Ekimenak

Aisialdirako gertatutako ekimena arrakastatsu hasi du Loramendi eta Murrukixorekin batera

**M.A.** | ARETXABALETA

Atxabaltako Gazte Ekimena Andramaixak gertatzen hasita dago. Eta jaien hasiera aurreratu egingo dutela iragarri dute, gainera: abuztuaren 13an botako dute txupinazoa eta Andramaixak ospatzen hasi.

### Bizardunak talde nafarra

Gazte Ekimeneko kideen aspaldiko asmoa zen jaiak luzatzea eta aurten lehenago hastea erabaki dute, abuztuaren 13a zapatua dela aprobetxatuta.

Egitarau osoa ez daukate zehaztuta, baina hona hemen gertatutako egitarauaren aurrerapena: abuztuaren 13an, txupinazoa, txikiteoa eta Bizardunak talde nafarraren kontzertua; abuztuaren 14an, gazte afaria eta *Atxabalta Festibal*; abuztuaren 15ean, umeendako jolasak eta galtzontzilo eta kulero lasterketak; abuztuaren 16an, bazkaria; eta abuztuaren 17an, bazkalosteko koadrilen arteko jolasak eta Zapilotes Txirriaos taldearen kontzertua.

Horiek guztiak txosnagunean egingo dituzte, eta beste hainbat kontu izango direla iragarri dute.

### Haitzarteetan behera

Bestalde, joan den zapatuan, hilak 18, jarri zuten abian Loramendik, Murrukixok eta Gazte Ekimenak aisialdirako gertatu duten ekimena. Urdaibaiko itsasadarrera joan ziren 22 lagun kanoan ibiltzera, baita ederto ibili ere. "Bi ordu eta erdi ibili ginen arraunean ibaian gora. Eguraldi onak lagunduta, arratsalde bikaina eman genuen euskaraz mintzatuz eta kirolaz gozatuz", jakinarazi dute.

Hurrengo irteera uztailaren 2an da eta arroila edo kanoi jaitsiera egiteko asmoa dute. Oraindik ez dute erabaki nora joan, La Leze edo Arritza –ur kantitatearen arabera–, eta egun osoko irteera izango da. Izena emateko Loramendira jo behar da; azken eguna, martitzena.Prezioa: bazkideendako 45 euro eta gainerakoendako, 50 euro.



Urdaibaiko itsasadarrean kanoa jaitsieran jardundako kideak. | LORAMENDI



# Markel Uriarte hirugarren Legutioko jaitsieran



MARKEL URIARTE

Euskadiko txapelketari dagokion Legutioko V. bizikleta jaitsiera jokatu zuten zapatuan, ekainak 18, eta Dorletako Ama–Lizarralde taldeko Markel Uriarte aretxabaletarrak hirugarren postua eskuratu zuen. 23 urtez azpiko kategorian jardun zuen norgehiagokan, eta 2 minutu eta 26 segundotan egin zuen jaitsiera. Haren aurretik geratu ziren: Iraitz Etxeberria (2,21 min.) eta Eric Portillo (2,23 min.).

## Antzuolako atez ateko zabor bilketa ezagutzeko irteera antolatu du Aretxabaleta Zero Zabor taldeak

Aretxabaleta Zero Zabor taldeak deituta Antzuolara irteera egingo dute datorren eguaztenean, hilak 29, bertan ezarri berri duten atez ateko zabor bilketa ezagutzeko. Horren ardura duen udal teknikariarekin egin dute hitzordua, sistemaren gaineko argibideak bertatik bertara jasotzeko.

Sistema berria ezagutzeko interesa duen edonor dagoela gonbidatuta jakinarazi dute Zero Zabor taldekoek. Hitzordua 17:30erako egin dute, eguaztenean, eliza aurrean.

## Urtarriletik uztailera arteko kirol kuotaren erdia itzuliko die Udalak familia ugariei, uztailean

Kirol Zerbitzuetako familia ugari abonatuei uztailean itzuliko diete ordaindutakoaren erdia. Horretarako, ordainagiria eta gaurkotutako titulua aurkeztu behar dituzte Gizarte Zerbitzuen bulegoan, uztailaren lehen asteirako. Bigarren abonua, uztailetik abendura arte ordaindutakoarena, urtarrilean itzuliko diete.

Hala egitea erabaki dute Gizarte Zerbitzuetako arduradunek, hileroko kuotak direlako orain. Txartel mankomunatua dutenei, ostera, uztailean itzuliko diete dagokien guztia.

# Hainbat ikastaro eta zinema uztailean Arkupen

▶ Sei ikastaro antolatu dituzte; tartean, biodantza, sukaldaritza eta josketa

▶ Trapu Zaharrak 'Jira eta bira' lana eskainiko du uztailaren 14an plazan



Trapu Zaharreko Txubio Fernandez de Jauregi, okela artean. | TRAPU ZAHARRA

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Uztaila ezohiko hilabetea da –batzuek oporrak, beste batzuek ordutegi murriztua– eta hori jakinik ikastaro asko antolatu ditu Kultura Sailak. Zinema itzuliko da gainera, Arkupera, eta ikuskizunak ere izango dira.

Erakusketa aretoan, ostera, pintura ikastaroetan ibilitako ikasleen lanak izango dituzte ikusgai hilabete guztian.

**Hiru egunetako ikastaroak**

Sei ikastaro iragarri dituzte, gehienak hiru egunetakoak, eta adituek emango dituzte eskolak. Izena emateko Arkupeko harrerara joan behar da.

Hiru egunetako ikastaro horiek astelehen, eguazten eta egubakoitzean egingo dituzte, egunean bi ordu (11:00-13:00). Uztaileko lehen astea biodantzarekin hasiko dute. Debalde da eta 15 lagun onartuko dituzte.

Bigarren astean (uztailak 11, 13 eta 15) arte garaikidearen gaineko ezagutzak landuko dituzte. Eskolak gazteleraz izango dira eta 20 lagunendako dute lekua; debalde da hau ere.

Uztailaren 18an, 20an eta 21ean sukaldaritzaren oinarrizko ezagutzak irakatsiko ditu Donostiako sukaldari batek. 8 lagun bakarrik onartuko ditu horregatik bi talde egiteko asmoa dute (10:00-12:00 eta 12:00-14:00). Eskolak euskaraz izango dira eta 5 euro ordaindu beharko dituzte. Eta uztailaren 26an, 27an eta 28an josten irakatsiko dute (11:00-13:00). Debalde dira eskola horiek.

Bestalde, pintura eskolak emango ditu Ainhoa Caberok uztailaren 5etik 28ra, martitzen, eguazten eta eguenetan. Umeek –6 eta 14 urte artekoek–, *Margotzea eta pintura* izango dute (11:00-12:30); eta helduek *Pintura esperimentala* (14:30-16:30). Prezioa: 5 euro.

**Ikuskizunak eta zinema**

Ikuskizun bi ere izango dira uztailean: 7an, Pepa eta Kutxo pailazoak umeendako, Arkupen (18:00), eta 14an, Trapu Zaharra taldearen *Jira eta bira* antzezlana, Herriko Plazan (19:00).

Eta zinema itzuliko da Zaraia aretora eguazten (21:30), egubakoitz (21:30) eta astelehenetan (16:30). Lehenengo astean *El discurso del rey* emango dute; bigarren astean *Fast & Furious 5*; eta hirugarren astean *Piratas del Caribe 4*.

Eta uztailaren 6an eta 13an (11:30 eta 19:00) *Aretxabaleta atzo eta gaur* ikus-entzunezkoa botako dute berriro, herritarrek eskatuta.

# Nemesio Otaño gogoratzeko kontzertuak ditu abesbatzak

Azkoitiko jesuita eta konposatzailearen kantuekin iaz grabatutako 'Nemesio Otañoren omenez' diskoa aurkeztuko du Comillasen (Kantabria) eta Madrilen

M.A. | ARETXABALETA

Hitzordu garrantzitsuak ditu Aretxabaleta Abesbatzak datozen hilabeteotan. *Nemesio Otañoren omenez* diskoa aurkezteko bi kontzertu emango ditu: batetik, Comillasen abuztuaren 28an, eta bestetik, Madrilen azaroaren 11n.

Iaz grabatu zuen diskoa abesbatzak, Azkoitiko jesuita eta konposatzailearen omenez. Ibilbide luzea izan zuen musika munduan Otañok, eta tartean Comillasko (Kantabria) unibertsitateko abesbatzako zuzendari izan zen, baita irakaslea ere. Aretxabaletarrek emango duten kontzertuarekin omenalditxoa eskaini gura diote bertan. Abuztuaren 28an da Comillasko parrokian (20:00).



Aretxabaleta Abesbatza Loiolako santutegi aurrean, iaz. | ARETXABALETA ABESBATZA

**Arte Ederretako Akademian**

Bestalde, Madrilgo San Fernandoko Arte Ederren Akademiako kide ere izan zen, eta han ere omenalditxoa egin gura diote. Hala, bertako auditorium dotorean azaroaren 11n (19:30) emango duten kontzertuan ahotsa jarriko dute Aretxabaleta Abesbatzako kideek.

## Udako kirolen lehen txanda astelehenean hasiko dute

M.A. | ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 27, hasiko dute udako kirol jardueren lehenengo txanda uztailaren 8a arte. 4 eta 15 urte artekoendako deialdia egin arren Kirol Zerbitzuek txikienak bakarrik animatu dira –4 eta 7 urte artekoak– eta bi talde sortu dituzte: patinajea eta igeriketa. Patinekin Iturrigorri pilotalekuan jardungo dute eta igerian ikasteko Eskoriatzako kiroldegira joango dira.

Bigarren txandarako izenemate epea zabalik dago. Eta hainbat aukera daude patinajeaz eta igeriketaz gain, batez ere gaztetxoendako: frontenisa, skatea, spinninga eta aero-batuka. Argibide gehiagorako eta izena emateko Zainduz gimnasiora jo.

## Txalaparta ikastaroa egingo dute uztailean

M.A. | ARETXABALETA

Loramendi Elkarteak txalaparta ikastaroa antolatu du uztailerako. Kultur eskola barruan antolatutako ikastaroa da, eta martitzenetan emango dituzte eskolak, uztailaren 5ean hasi eta 26ra bitartean (18:00-20:00).

Izena emateko epea zabalik daukate hurrengo egubakoitza arte, uztailak 1. Horretarako Loramendiren bulegotik pasatu behar da. Elkarteko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, 15 euro.

Azken asteotan, ostera, Loramendi-Beinke dantza ikasten dabiltzan hainbat lagun astelehenetan. Eta datorren San Migeletan erakustaldia egiteko gertu izango dira.

### Udal langileek udako ordutegia dute irail erdira bitartean

Udako ordutegia jarri du abian Udalak; hala, udaletxeko harreran goizez bakarrik egongo dira herritarren zerbitzura: 08:00-14:00.

Udaletxean bulegoa duten teknikari eta langileak ere goizean bakarrik egongo dira (15:00ak artean gehienak), baita Arkupen dauden Kultura teknikariak eta Zainduzen dagoen Kirol teknikaria ere.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

MAPFRE

Auto aseguruetan
%15eko
deskontuak!

Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: *angelzubi@euskalnet.net*

**Xabier Igoa** | Bertsolaria eta begiralea

# "Kirola eta bertsoa lotuko dituen ekimena positiboa da umeendako"

## Herriko txikienak udalekuetan daudela aprobetxatuz saskibaloi eta frontenis txapelketa bana eta bertso merienda bat antolatu guran dabil, uztailerako

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Uztailerako ekimen berezi bat antolatu guran dabil Xabier Igoa (Aramaio, 1992). Aramaion egiten diren udalekuetako begiralea da eta bestelako ekintza batzuk antolatzeko apustua egin du. Bertsolaria da eta kirola maite du; bada, biak ekimen beraren bueltan ezkondu ditu. Buruan darabilenaren gainean egin dugu berba harekin.

**Nola bururatu zitzaizun haurrendako udarako ekintzak antolatzea?**

Umeek ekintzaren bat izatea interesgarria izan zitekeela uste nuen. Herrian antolatzen diren udalekutako begirale naiz eta nire ustez umeek kirola eta bertsoa lotuko dituen ekimenak izatea oso positiboa da, uste dut haiek ere asko eskertzen dutela. Horregatik ekimenaren helburua umeek ondo pasatzea da, uda eta oporrak horretarako dira-eta.

**Zer da buruan duzuna? Zer antolatu gura duzu?**

Hiru ekintza ezberdin antolatu gura ditut. 3x3 saskibaloi txapelketa herrikoi bat, 8 eta 13 urte bitarteko gazteendako, adin berekoendako frontenis txapelketa bat eta edonork parte har dezakeen bertso merienda bat. Azken honetan, gainera, ideia da herriko bertso eskolako gazteek abestea, eurak ere plaza bat gehiago egiteko aukera izan dezaten.

Aurten egin duten lana ikusita ondo merezia daukate. Uztaileko bigarren eta hirugarren astean zehar egitea da ideia, herriko udalekuen ohitura aprobetxatuz.

**Kirola eta bertsolaritza ezkonduko dituzu. Bateragarriak direla uste al duzu?**

Ez dakit horrela izango den. Sarritan lotu diren bi gai dira eta askotan bertsolaritza kirol moduan hartu izan dute, baina ez da hori nire ideia. Nire bi zaletasun dira eta horregatik hori eskaintzeko gai naizela esango nuke.

Hau da, beste gazteren batek marraztea gustuko balu marrazketari zuzendutako tailerrak eskaintzea balitz bezala, horixe da egingo dudana. Gainera, gaztetxoen gustukoa dela deritzot.

**Udaletxera jo duzu. Zertarako?**

Laguntza bila jo dut udaletxera, asteon. Udaletxean jaso dudan erantzuna guztiz positiboa izan da, proposamena gustatu zaielakoan nago. Udalekuetako begirale naizela badakite eta horrek asko lagundu duela uste dut. Izan ere, ez dira udalekuen egitarauaren barruan sartzen diren ekintzak, baina gaztetxoak oporretan daudela aprobetxatuz antolatu gura ditut.

Izenematea noiz zabaldu ez dut erabaki, baina uztaileko lehen astean izango da. Ekintza guztiak, noski, uztailean izango dira.



Kirola eta bertsoa lotu gura ditu Igoak haurrendako; irudian, atzo. | XABIER IGOA

**"Izena emateko aukera uztaileko lehen astean irekiko dugu"**

# Udalak aguazil postua osatzeko lehiaketa deitu berri du

**J.B.** | ARRASATE

Egun Udalak betetzen dituen hainbat eginbehar udaltzain batek egin zitzakeela erabaki zuen aurreko agintaldiko Udal Gobernuak. Esaterako, udal mezularitzaren banaketa eta udal instalazioen mantentze kontrola. Azken horien artean egongo lirateke ur sareak, saneamendu sareak, errepideak eta eraikinak, besteak beste.

Bada, Udalak horien guztien kontrola eramateko pertsona baten beharra ikusi zuen eta orain ofizial egin du eskaera. Hau da, aguazila edo askotariko zerbitzuetarako langile postua betetzeko lehiaketa deitu du. Ekainaren 10ean eman zuen horren berri eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik –horren berri ere emango du Udalaren wegunean– 20 eguneko epea izango dute interesatuek eskaera egiteko.

**Larrialdietarako gertu**

Hauek dira baldintza aipagarrienak: elebiduna izan behar du, 18 eta 35 urteko artekoa, garaiera minimoa izan behar du –emakumezkoek 1,60 metro eta gizonezkoek 1,65– eta B motako gidabaimena izatea derrigorrezkoa da. Bestalde, egun osoko ohiko jarduna izango du. Hori bai, larrialdi kasuetan, eguneko 24 orduetarako prestutasuna izan behar du.

## Astelehenean egingo da agintaldi berrirako udal antolaketa zehaztuko duen ezohiko osoko bilkura

Datorren astelehenean osoko bilkura garrantzitsua egongo da udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Agintaldi berriko udal antolaketa erabakiko da; hau da, eratutako talde politikoen osatu, udalbatzaren bilkuren maiztasuna finkatu, izendatutako bozeramaileen berri eman eta batzorde informatibo iraunkorrak sortu eta osatzeko proposamenak egingo dira, besteak beste. Gainera, alkatetzak egindako zenbait ebazpenen berri ere emango zaio osokoari. Ezohiko bilkura da eta 19:00etan hasiko da.

## Udalak aurkeztutako nagusiendako oporren programan izena emateko azken eguna, hilaren 28a

Udalak aurten ere aurkeztu du nagusiendako oporren programa. Aukera ugari daude: Penintsula edo Balearrak, Kanariak, Portugal, kultura zirkuituak eta natura turismoa. Programan parte hartu ahal izateko baldintzak eta bestelako informazioa jasotzeko udaletxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo behar du interesatuak. Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago dagoeneko eta ekainaren 28an itxiko dute.



JOKIN BEREZIARTUA

## Hiltegi zaharra, uztailerako

Erabilera askotariko areto bat –Aramaio Baserri Barriren barruan dauden produktuak erakusteko erakusleiho finkoa barne– eta Udal Artxiboa hartuko dituen hiltegi zaharraren obrak atzeratuta doaz. Hasieran, lanak ekainean amaitu eta uztailean erabiltzeko moduan egotea espero zen, baina lan guztiak amaitzeko uztailera arte itxaron beharko da. Udal Gobernu aldaketak zuzenean eragin duela dio egungo Udalak.

**NIRE USTEZ**



**LIERNI ALTUNA**

# Politikaria al naiz?

Ekainaren 11n zinegotzi kargua hartu nuen ofizialki, eta jendeak galdetu izan dit, batzuetan serio, besteetan adarra jotzeko asmoz: "Zer moduz politika munduan?", "Nolakoa da politikari baten bizitza?". Eta orduan konturatzen joan naiz kargu politiko bat hartu dudala eta orduan definizioz politikari bat naizela, baina politikarekin zerikusia duen gehienak gero eta konnotazio txarragoak dituen heinean, beste galdera bat etorri zait burura, zer da politikari izatea?

Eta, erantzunak aurkitu nahian, euskarazko Harluxet hiztegi entziklopedikora jo dut: *1. Herri edo estatu bat gobernatzearen jarduera; horri dagokion jakintza.*

Gobernatzea? Zer da hori? Berriro ere hiztegira jo dut eta hau emaitza: *1. Aginpide politikoaz baliaturik estatu edo lurralde bateko arazoak zuzendu. 2. Zaindu, zuzendu, era egokian antolatu; abereei dagokienez, jatekoa eman eta zaindu. ad. Bere etxea ezin gobernatuz. Ontzia gobernatzen. Bere artaldea ongi gobernatzen duena.*

Arazoak zuzendu? Batzuentzako arazo dena agian ez da niretzako eta alderantziz, orduan ez zait gustatzen definizio hori. Uste dut definizio ofiziala alde batera utziz, bigarren definizioaren lehenengo esaldiarekin geldituko naizela, beti ere herritarren parte-hartze aktiboa motorra izanik. Horrela bai onartuko dut politikari bat naizela.



Sagar-dantza kalebarrengo jaietan. | GOIENA

# Hiru auzotako jaiak izango ditugu aste bukaera honetan

Gaur hasi eta domekara bitartean ekintza ugari izango dira Uzarragan, Kalebarrenen eta Ondarren

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Aste bukaeran jairik jai ibiltzeko aukera izango dugu herrian. Izan ere, hiru festa ezberdin ospatuko dira: San Juanak Uzarragan, San Pedroak Kalebarrenen eta Corpusak Ondarren.

Atzo, eguena, egin ziren San Juan bezperako ospakizunak kalean eta Uzarragan eta gaur jarraituko dute. Arratsaldean, 18:00etan, meza izango da Uzarragan, herriko abesbatzarekin batera. San Juan egunez Uzarragan egiten den azken meza izan daiteke eta horregatik dei berezia egin nahi izan dute herritarrak gertura daitezen. Mezaren ostean luncha egongo da.

**Berrikuntzak Kalebarrenen**

Kalebarrengo jaiak berrikuntzekin datoz aurten. Txeplero eta haurren danborradarekin hasiko dira jaiak egubakoitzean. Urteak dira Antzuolan danborradarik ez dela egiten eta Kalebarrengo jaietan berrituko dute lehengo ohitura. Egunotan aritu dira entseatzen eta egubakoitzean 19:00etan izango da ikasitakoa erakusteko momentua.

Berrikuntzekin jarraituz, zapatuan pintxo poteoa egingo da trikitilariekin eguerdian, auzoko Gorosti, Arin eta Larrea tabernetan. Arratsaldean, berriz, mus txapelketa 16:30ean. Gauean urteroko auzo-afaria eta sagar-dantza eta sua ostean. Joan den urtean moduan, piropo eta antipiropo lehiaketa egingo da ordu txikietan.

Domekan, aspaldiko urtetan galduta egon den ohitura berreskuratuz, asto-karrera egingo da iluntzean, jaiei amaiera emanez.

**Corpusak Ondarren**

Corpusak ere aste bukaera honetan izango dira eta azken urteotan moduan Ondarren jaiak egingo dituzte. Kalebarrengoekin batera izatean egitaraua txikixeagoa egin dute.

Zapatuan ginkanarekin hasiko dira jaiak, 12:00etan. Peña Aiastuik antolatutako challengearen barruan egingo da. Arratsaldean, berriz, ia-ia Ondarreko jaien ikur bihurtu diren igerilekuak egongo dira. Eguraldiak ez badu laguntzen, umeendako jolasak egingo dira. Domekan urteroko Corpuseko prozesioa egingo da elizatik abiatuta eta ondoren dantzariak, salda eta txorizoa.

## ASTE BUKAERAKO EGITARAUA

**EKAINAK 24, EGUBAKOITZA**

SAN JUAN, UZARRAGAN

**18:30** San Juan meza abesbatzarekin.

**Ondoren** Luncha.

SAN PEDRO, KALEBARRENEN

**19:00** Txepleroak eta haurren danborrada.

**22:30** Erromeria, Miren, Agur eta Gorkarekin.

**03:00** Bi hankako asto karrera.

**EKAINAK 25, ZAPATUA**

SAN PEDRO, KALEBARRENEN

**11:00** Plastilina lehiaketa.

**13:00** Pintxo poteoa.

**16:30** Mus txapelketa.

**19:00** Buruhandiak.

**20:00** Arbola jasotzea.

**21:30** Auzo-afaria.

**22:30** Erromeria Gozo-gozo taldearekin.

**00:00** Sagar-dantza eta sua.

**04:00** Piropo eta antipiropo lehiaketa.

CORPUS, ONDARREN

**12:00** Ginkana.

**16:00** Igerilekuak (eguraldiak laguntzen badu, bestela umeendako jolasak).

**18:00** Krossa.

**18:15** Merienda eta antzerkia: *Hiru, bi, zast egizu jolas!*

**EKAINAK 26, DOMEKA**

SAN PEDRO, KALEBARRENEN

**10:00** Txistulariekin goizeresia.

**18:00** *Oilaskoetxea* kale antzerkia Zurrategin.

**Ondoren** Asto karrera.

CORPUS, ONDARREN

**12:30** Corpuseko prozesioa.

**12:45** Dantzarien saioa.

**13:00** Salda eta txorizoa.

## OHARRAK

**ERAKUSKETA OLARANEN**

Eskulan ikastaroan urtean zehar egindako lanak erakutsiko dituzte aste bukaera honetan eta hurrengoan Olaranen. Ekainaren 25 eta 26an, eta uztailaren 2 eta 3an egongo dira ikusgai, 18:30etik 20:00etara bitartean.

**KZGUNE ZERBITZUA**

Martitzenetan egongo da tutorea liburutegiko KZGunean, 9:00etatik 13:00etara bitartean. Ordenagailuekin eta Internetekin lotutako ikastaroak egin daitezke bertan.

**LORE LEHIAKETA**

Martxan da, urtero moduan, balkoi eta leihoetako lore lehiaketa. Jaietako egubakoitzean, uztailak 15, banatuko dira sariak lore ederrenak dituztenendako.



JONE LARRAÑAGA

## Abesbatza sortu nahi dute

Musika eskolako ikasleek kontzertua egin zuten astelehenean. Herriko musikari gaztetxoek ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten. Abesbatza ere egin zuten kontzerturako eta asmoa da datorren ikasturterako herriko abesbatza sortzea, 9-12 urte bitartekoena. Nahi duenak musika eskolan eman dezake izena, ekainaren 30erako.

# Jaietarako entseguak eta izen-emateak, egunotan

Mairuaren alarderako entseguak hasiko dira datorren eguaztenean, ekainaren 29an

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Herriko jaiak gerturatzen daude eta prestaketekin hasiak dira herritarrak dagoeneko. Datorren eguaztenean, adibidez, Mairuaren alardeko entseguekin hasiko dira: buruzagia, mairua, sekitoa, banderaduna, gastadoreak eta ofiziala elkartuko dira eguaztenean. Eguenean gainerakoek izango dute entsegu-eguna.

Alarderako entsegu orokorrak uztailaren 7an etea 13an egingo dira, 20:00etan, plazan.

Entseguekin jarraituz, jaietako domekan Larrain-dantza egiteko biltzen dira martitzenetan 20:15ean, eskola barruko patioan.

**Izen-emateak**

Jaietako egubakoitzean egingo den gastronomia lehiaketarako izen-ematea zabalik dago. Patatak errioxar erara prestatu beharko dira eta Antzuolan jaio edo bizi direnek dute parte hartzeko aukera. Uztailaren 8ra arte dago zabalik lehiaketan izena emateko epea; udaletxera telefonoz deituta (943 766 246) edo e-postaz egin daiteke, *kultura@antzuola.net*-era idatzita.

Egubakoitzean kalean bazkaltzeko mahaien erreserbarako ere izena eman behar da uztailaren 11rako. Kalebarrengo arkupetan mahaiak eta jarlekuak egongo dira, nahi duenak bertan bazkaldu dezan. Norberak jatekoa eta edatekoa eraman beharko du.

### Hilabete bukaeran itxiko dute atez ateko informazio bulegoa

Udaletxean dagoen atez ateko informazio bulegoa itxi egingo dute ekaina bukatzearekin batera. Bulegoa itxi arren, informazioa ematen jarraituko dute udaletxean, Hirigintza sailean. Beraz, bulegoa itxita ere, zalantzak argitu, proposamenak egin edo informazioa eskatzeko udalera jo ahal izango dute herritarrek.

### Pirinioetara irteera egingo du Arrolak uztailaren 9tik 10era

Iaz bezala, aurten ere uztaileko bigarren aste bukaerarako Pirinioetara, Cauterets ingurura, irteera antolatu du Arrola taldeak. Datorren eguaztena, ekainak 29, izango da izena emateko azken eguna; 19:00etatik 20:00etara, Olaranen. Federatuek: 65 euro; gainerakoek: 72; eta gazteek: 35 euro. Arrolako bazkide ez direnek 6 euroko gehigarria dute.

### Jaietarako txosnetako egitaraua osatu dute gaztetxekoek

Eguenean 19:00etan egingo da txosnen irekiera eta goizaldeko 3:00etan jolasak egongo dira. Egubakoitzean, txaranga 20:00etan eta kontzertuak afalostean. Zapatuan, herri-afaria eta kontzertuak ondoren. Txokolatea emango dute zapatu eta domeka goizean, 7:00etan. Domekan, 18:30ean, hip hop saioa egingo da.

MUJIKA HARATEGIA

*Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak*
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

EKAINEKO SARIAK

SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA

skunkfunk

LIBURU SORTA UMEENTZAT

PAMIELA

EUSKAL RIP-EN DVD-A


goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

DVD-A

EROSKI

ZINERAKO SARRERAK



Florida Guridi

Bazkide egiteko
Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

TXIRRINDULARITZA

# Markel Irizar eta Iban Velasco Frantziako Tourrera doaz

## Euskaltelek eta Radioshackek aste barruan eman dituzte bederatzikoak

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Denboraldi hasieran aurreikusitakoa bete egin da, Debagoienak lehenengoz izango ditu bi ordezkari txirrindularitzako hitzordu handienean, Tourrean.

Euskaltel-Euskadi eta Radioshack taldeek aste barruan aurkeztu dituzte bederatzikoak, eta, izen horiek aurkezteko esperoan egon ostean, lasaitua hartu dute Iban Velascok eta Markel Irizarrek; aurrez bazekiten zerbait, baina konfirmatzea falta zen.

Arrasatekoarendako bigarren edizioa izango da eta Oñatikoarendako, debuta: "Lanera goaz biok, gure taldekideendako lanera. Ibani malda gora tokatuko zaio Samuelen ondoan egotea eta niri, berriz, taldean ditugun gizon indartsuen ondoan egotea, baina batez ere lautadan", adierazi du Irizarrek. Eta Velascok baieztatu: "Amets, Verdugo, Egoi... badaude gora ondo doazenak, baina niri ere hori egokituko zait, mendateetan Samueli laguntzea".

Ilusioz egingo du Irizarrek debuta; Velascok ondo daki zerekin egingo duten topo: "Giroan jipoi onak hartutakoak gara. Mendateen gogortasunari dagokionez, Tourra ez da Giroa baino gogorragoa, baina, esaerak dioen moduan, Tourra Tourra da. Etapa guztiak azken momentura arte lehiatzen dira, ziklista onenak batzen dira bertan, eta denak edo gehienak egoten dira %100ean".

### ESANAK



**"Giroan jipoi onak hartutakoak gara, baina Tourrean ziklista indartsuenak egoten dira, %100ean"**

IBAN VELASCO | EUSKALTEL-EUSKADI



**"Talde indartsua dugu, eta pozgarria da aukeratuen artean egotea; izugarri motibatuta noa"**

MARKEL IRIZAR | RADIOSHACK

### Konpetentzia handia

Irizarrek onartu digu pozarren dagoela. Aurten egutegi erabat ezberdina izan du, eta Tourrera joateko aukerak zituela esan zioten aspaldi: "Baina konpetentzia handia dugu taldean, izen handiko txirrindulariak daude, eta ni aukeratu izana pozgarria da. Talde oso indartsua dugu, eta oso motibatuta joango naiz".

Velascoren kasuan, sasoi honetan iaz zertxobait hobeto zegoela onartu du –Espainiako txapelketan izango da domekan–, baina egunak aurrera egin ahala hobeto sentitzea espero du: "Eta lasterketan iaz baino lasaiago egotea". Izan ere, Nora alaba aurreikusi baino lehenago jaio zen, hura Tourrean zegoela: "Burua hemen eta gorputza han, ez da horrelako lasterketa bat egiteko modu onena".

Arrasatekoak hainbat egun egin ditu taldearekin kontzentratuta, besteak beste taldekako erlojupeko saioa prestatzen. Hain zuzen, Radioshack taldeak hor espero du indartsu egotea.



Eneko Lizarralde azkarrena izan zen Seguran, duela 15 egun. | WWW.GTXE.ORG

TXIRRINDULARITZA

# Sumofic, Mugarri-Jay eta Ulmako ziklistak Gipuzkoako Itzulian

X.U. | ARRASATE

Gaurtik domekara arte, Debagoieneko Sumofic, Mugarri-Jay eta Oñatiko Ulma taldeko gazte mailako txirrindulariak Gipuzkoako Itzulian izango dira korritzen.

Gaurko, egubakoitza, etapa Aian egingo dute, eta urduritasunak alde batera uzteko balioko duen erlojupeko proba izango dute, motza, 2,5 kilometrokoa.

Zapatu goizean, berriz, Olaberrian izango dute hitzordua eta lehen etapa horretan gainditu beharreko mendateak izango dira protagonista: Lierni bitan, Olaberria beste bitan eta Gabiria gainditu beharko dituzte ziklistek; mendate horiek izango dira puntuagarriak, eta etapak 75 kilometro izango ditu.

### Mendate gehiago

Domekako eta asteleheneko etapak ere nahiko menditsuak izango dira. Domekan Andoainen hasiko dute etapa eta bertan bi mendate izango dituzte: 15 kilometro dituen Andazarrate eta Xoxoka, helgumatik 5 kilometrora dagoen mendatea (85 km). Eta, azkenik, aurreko egunetan egindako lanari amaiera emateko astelehenean 92 kilometro izango dituzte aurretik, Zarautzen hasita. Eta, hor ere mendateak, Meagas birritan, eta Garate gainditu beharko dute ziklistek.

### Ikastera, eta aurrean ibiltzera

Ibarreko hiru taldeetako ziklisten helburu nagusia hainbat etapa izango dituen itzuli batetik ahalik eta gehien ikastea izango da, besteak beste, lau egunetan indarrak zelan erabili ikastea.

Adi Sumofic taldeko mutilekin, orain arteko hainbat lasterketetan protagonista izan direlako. Eta gertutik zaintzekoa izango da, baita ere, Iker Eskibel (Mugarri-Jay) aldapa gora ondo dabil.

ESPEDIZIOA

# Etxean dira, eta Antartikara egingo duten bidaian pentsatzen hasita

X.U. | ARRASATE

BBK Naturgas/Trasantartika espedizioko kideak etxean dira. asteburua etxean lasai pasa ostean, indarberrituta azaldu ziren martitzenean, kazetarien aurrean egindako prentsaurrekoan. Groenlandiako zeharkaldian bizi izandakoak kontatu zituzten, eta dagoeneko hasi dira hurrengo erronkan pentsatzen, Antartikan egingo duten zeharkaldian.

"Garrantzitsuena ikastea zen", eta ikasitakoak ondo etorriko zaizkie bost hilabete barru, Hego polora bidean egingo duten bidaian.



Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltza, martitzenean. | BAT BASQUE TEAM

TRIATLOIA

## Debagoieneko lau atleta Pontevedran lehiatuko dira gaur, unibertsitateen arteko Espainiako txapelketan

Ibarreko lau ordezkari Pontevedran daude atzo ezkero, gaur (16:30) korrituko duten esprint distantziako unibertsitateen arteko Espainiako txapelketan esku hartzeko gertu. EHUko ordezkariak izango dira Mikel Muxika bergararra (Antxintxika TT) eta Andoni Correas oñatiarra (Oñati TT). Eta MUko ordezkariak izango dira Alex Altuna arrasatearra (Antxintxika) eta Iñigo Tercero oñatiarra (Oñati TT).




Iazko edizioa Euskadiko txapelketa izan zen; bihar, afrikarrak baino ez dira izango irteera puntuan. | GOIENA

ATLETISMOA

# Lasterketa ikusgarriena, korrikalari afrikarren eskutik

### Antxintxiketan elkarteak antolatuta, bihar egingo dute Herri Lasterketaren bederatzigarren edizioa

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Korrikalari afrikarrak bueltan dira Oñatin. Antxintxiketan kirol elkarteak antolatuta, bihar korrituko dute Herri Lasterketaren 9. edizioa. Iaz Euskal Herriko txapelketa izan zen Oñatikoa, baina ahalik eta ikuskizun handiena bermatze aldera berriz ere atleta afrikarren aldeko apustua egin dute Korpusetako probaren arduradunek.

Bihar 14 korrikalari egongo dira irteera puntuan. Horien artean sei keniarrak dira: Elicky Mase, Almeriako maratoi erdiko irabazlea; Hosea Kosgei, Donostiako maratoi erdian bigarren 2008an; Amos Kaptich, Palmako maratoi erdian bigarren aurten; Benson Olenakeri, Gavako maratoi erdiko irabazlea; Benjamin Rotich, Bartzelonako maratoiko irabazlea, eta James Mayur.

**Eritrea, Hego Afrika, Argelia**

Beste lau korrikalari Eritreakoak dira, eta seguruenik Hais Weldai da aipagarriena, iazko Munduko txapelketan 3.000 metrokoan finalista eta bere herrialdeko distantzia bereko errekorraren jabe (7.37). Marokotik bi atleta etorriko dira: Abderrahim el Jaafari Salouko eta Lhoussaine Dame Punta. Hegoafrikak ordezkari bat izango du bihar, 1.500 metrotan 3.39ko marka duen Molefe Molefe eta Argeliatik beste korrikalari bat etorriko da, Nordine Negazzi.

Lasterketa 19:00etan hasiko dute, eta ibilbidea urterokoa izango da, Oñatiko kaleetan barrena egingo duten zirkuituari zazpi itzuli: 10.000 metroko proba.



# Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

## hemen bada giro!

### Anduaga Jatetxea

Eguneko menua
Bokatak
Plater konbinatuak
Errazioak
Karta

Araba Ibilbidea 31, behea
ARETXABALETA | 943 79 96 54



### BASABE

Menuak eta afariak

Basabe poligonoa
ARETXABALETA 943 77 31 19



### DORLETA TABERNA

*Loteria eta kinielak*

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABALETA




### Gurea TABERNA

Lotoak eta kinielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



### HIRUSTA JATETXEA

Eguneko menua
Karta
Bokatak
Plater konbinatuak

Ilargi plaza 4.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 06 57



### IOSU taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
•
Kroasantegia
•
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



### Matikua jatetxea

MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



### OTZETA JATETXEA

- Menua
- Gazte menua
- Karta
- Eramateko janari prestatuak.
- Ogitartekoak.

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67



KULTURA

# Abesbatzen rockero aurpegia

▸ Gabero eta Ganbara Gazte abesbatzek pop-rock kontzertua eskainiko dute gaur

▸ 40 bat neska-mutikok jardungo dute Zabalotegi aretoan, 20:00etan



Bergarako Gabero abesbatza kontzertua eskaintzen. | AITOR BIAIN



Oñatiko Ganbara Gazte abesbatzako kideak. | AITOR BIAIN

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Urtean zehar gauza ezberdinak egin eta abesbatzen musika esparru ezberdinetara zabaltzeko asmoarekin egingo dute gaurko emanaldia Gabero eta Ganbara Gazte abesbatzetako kideek. Ohikoarekin alderatuta ezberdina izango da, eta era berean ikusgarria: pop-rock kontzertu korala eskainiko dute gaur, Bergarako Zabalotegi aretoan, 20:00etan

Bergarako eta Oñatiko bi abesbatzek elkarrekin abestuko dute. Bi taldeek zuzendari bera dute: Aitor Biain oñatiarra. Gaur ere bi abesbatzak zuzentzen ibiliko da Biain.

**Lehenengo aldia izango da**

Lehenengo aldia da era horretako kontzertua eskaintzen dutena. "Iaz, esaterako, jazz-rock estiloko musika erlijioso kontzertua egin genuen. Baina horrelakorik ez dugu egin", adierazi du Aitor Biain zuzendariak. Abeslari edo talde ezagunen abestiak eskainiko dituzte, bertsionatuta: "Michael Jackson, Eric Clapton... artisten abestiak eskainiko ditugu", dio Biainek.

Bi abesbatzek ondo ezagutzen dute elkar. "Hainbat proiektutan ibili gara elkarrekin, eta esan daiteke dagoeneko lagunak direla", esan du Biain zuzendariak.

**40 laguneko saioa**

Abesbatza bakoitzak bere aldetik egin ditu entseguak orain arte, eta, hain zuzen, gaur egingo dituzte lehenengo entseguak elkarrekin. "Goizean soinu probak egingo ditugu eta entseatu egingo dugu; ondoren, bazkaria egingo dugu elkarrekin", adierazi du Biainek. 40 lagun inguru elkartuko dira, 20 abesbatza bakoitzeko. "16-21 urte bitarteko neska-mutikoak dira", azaldu du zuzendariak.

Kontzertuak hiru zati izango ditu. Lehenengo zatian Oñatiko Ganbara abesbatzak abestuko du; bigarrenean, Bergarako Gaberok; eta azkeneko zatia biek elkarrekin egingo dute. "Gainera, abesbatzekin batera konbo talde batek ere joko du bigarren zati horretan", azaldu du Biainek. Pianoan Eli Mendiaraz eta Anabel Henao ibiliko dira; Kristina Larrañagak gitarra eta baxua joko ditu; eta baterian Maitane Muxika ibiliko da.

EGITARAUA

| | |
|---|---|
| **GANBARA GAZTE** | |
| **Let the river run** | C.Simon |
| **Time to say goodbye** | J.Wikiley |
| **Aitormena** | X.Sarasola |
| **Billie Jean** | S.Lisley |
| **Tears In Heaven** | R.Emerson |
| **We are the World** | R.Emerson |
| **GABERO** | |
| **You've got a friend** | A. L'Estrange |
| **Soul Man** | Blues Brothers |
| **Fields of Gold** | R.Emerson |
| **Lau Teilatu** | J.Elberdin |
| **Viva la vida** | M.Brymer |
| **A tribute to queen** | M.Brymer |
| **BI TALDEAK BATERA** | |
| **Usaiak** | B.Fradua |
| **Joyful-Joyful** | R.Emerson |

**Bi abesbatza ezberdin**

Hasiera baten, Bergaran bakarrik eskainiko dute pop-rock kontzertu hori. Abesbatzei dagokienez, Biain zuzendariak azaldu du ahots ezberdina duten abesbatzak direla. Hala, Bergarako Gabero abesbatza ahots mistoko abesbatza da: neska eta mutil ahotsez osatua. Oñatiko Ganbara Gazte, ostera, ahots zuriko abesbatza da: "Mutilak ere badaude abesbatzan, baina nesken ahotsean abesten dute", azaldu du. "Hala, sonoritate ezberdina duten bi talde dira, eta horrek aberastasuna emango dio kontzertuari", dio.

Gaurko emanaldiari dagokionez, gainera, eszenaratzea asko zainduko dute. "Janzkera zaindu dugu eta dekorazio berezia gertatu dugu gaurko emanaldirako", azaldu du Biainek. Zabalotegira joango diren ikusleei emanaldia asko gustatuko zaiela esan du oñatiarrak, "beste era bateko" kontzertua izango dela.

ESANAK

**"Janzkera asko zaindu dugu eta dekorazioa ere berezia izango da gaurko gertatu dugun emanaldian"**

AITOR BIAIN | ZUZENDARIA

Aitor Biainek nabarmendu gura izan du gaurko emanaldian Bergarako Musika Eskolako neska-mutikoek ere parte hatuko dutela: "Hamar bat gaztetxok Gaberorekin abestuko dute kantu bat; Musika Eskolako abesbatzatik Gaberora pasako diren gaztetxoak izango dira", gaineratu du Biainek.

**Oñatiko eta Bergarako koruak**

1992a ezkero Bergarako Orfeoiak gazteen taldea izan du, belaunaldi errelebua izateko; eta, beraz, Orfeoiaren jarraipena bermatuko duen taldea da Gabero. Hasierako zuzendariak Aitzol Muxika eta Aintzane Arana izan ziren. Ondoren, David Azurzak garai berri bati hasiera eman zion; eta 2006tik aurrera da Aitor Biain Gaberoko zuzendaria.

Ganbara Gazte abesbatza 2007ko urrian sortu zuten. Herrian zegoen musika zaletasuna eta gazte abesbatza arloan ikusiriko hutsuneak bultzatuta, hain zuzen. Oñatiko Ganbara abesbatzaren babespean sorturiko abesbatza da Ganbara Gazte. Aitor Biain izan da talde horren zuzendari eta sortzailea. Lehen kontzertua 2007ko abenduan eskaini zuten, eta erabat aberasgarria izan zen. Ordutik hona, hainbat kontzertu eskaini dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan.

# Gauerdian hasi eta goizaldera arte iraungo duen festa gaztetxean

Revolutionary Brothers taldeak kontzertua eskainiko du gaur 00:00etan Arrasateko gaztetxean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Ikuskizun berezia eskainiko du gaur gauean Arrasateko gaztetxean Revolutionary Brothers taldeak. Gutxi gorabehera, bost orduko saioa eskainiko du talde donostiarrak gaztetxean. Dub, reggae eta ska musika egiten dute, eta, gainera, hainbat DJren laguntza ere izaten dute zuzenekoetan.



Unai eta Iker anaiak dira taldeko sortzaileak. | MYSPACE

**Reggae sound system estiloa**

2006an Iker eta Unai anaiek sortutako taldea da. Musika beltza eta erritmo jamaikarrak gustuko dituzte biek ala biek. Egiten dituzten musika estiloen nahasketek –ska, Rocksteady, jazz, funk...– reggae sound system estilo berezia sortu dute.

Taula gainean soinu indartsua eta zaindua erakusten dute, eta zabaltzen duten mezua positiboa eta errebindikatiboa da. Taldeak duen ezaugarri garrantzitsuena bi anaien arteko elkar ulertze ona da. Hala, bien arteko sorkuntzak mugimendu berezia sortzen du.

**'Musical Warriors' lana**

2008. urtean *Are you reggae?* lehen lana aurkeztu zuten; eta 2010ean *Musical Warriors*. Lehenengo lanarekin 1.500 kopia saldu zituzten. Bigarren lanarekin, ostera, euren musika estiloa finkatu egin gura izan dute.

Taula gainean laguntzen Revolutionary Family izena duten lagunak dituzte: besteak beste, Mighty Costas, King Konsul, Yanu eta Mr. Garlik. Gauerdian hasiko den kontzertuan denak igoko dira taula gainera musikarekin giroa sortzera.

**Txosnaguneko kontzertuak**

Gaur, ordu berean, Txosna Live Festival jaialdia egingo dute txosnagunean. Beste jaialdi handi batzuen izenekin jolas egin eta umorea sortzea izan da txosna batzordearen asmoa horrelako ekitaldiak sortzeko orduan. Gaurko emanaldian Zarauzko Skasti, Zaldibarko Disorders eta talde sorpresa bat igoko dira taula gainera. Lehenengoek ska eta erritmo biziko musika egiten dute; bigarrenek, ostera, punc-rock musika, Des-kontrolen antz handia duen musika estiloa.

Bihar, zapatua, Arrasate Rock Festival jaialdia egingo dute. Kañeria 13, Motociclon eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek jarriko dute giroa txosnagunean. Kañeria 13 Arrasateko taldea da, Garagartzan sortutakoa. Motociclon talde madrildarrak rock gogorra egiten du; eta, Los Zopilotes nafarrak, ostera, hain ezagunek diren *Txibato los días que te quedan* eta *Insumisión* abestiak jotzen dituzte, besteak beste.

# Bergarako Orkestra Sinfonikoa entzuteko sarrerak badaude oraindik

Bihar, zapatua, izango da 25. urteurren kontzertua Udal Pilotalekuan, 22:30ean

A.E. | BERGARA

Bergarako orkestrak bihar eskainiko duen kontzerturako sarrerak badaude oraindik. Astelehenean jarri zituzten salgai kultura etxean eta Lazkano oinetako-dendan. 10 eurotan daude salgai.

Bergarako orkestrak bihar eskainiko du 25. urteurreneko kontzertua Udal Pilotalekuan. Urteurren berezia da; izan ere, Euskal Herrian gutxi dira 25 urte bete dituzten orkestra ez profesionalak.

**Bi zati izango ditu saioak**

Manu Diaz bergararrak aurkeztuko du saioa, eta, Alfredo Gonzalez Chirlaquek aurreratu duenez, "kontzertu motza eta atsegina" izango da. Batez ere, orkestrarendako esanguratsuak izan diren abestiak eskainiko dituzte. Hala, orain dela 25 urteko uztailaren 5ean eskainitako lehen kontzertu hartan jo zuten lehenengo abestia ere eskainiko dute: *Feelings*.

Bi zati izango ditu saioak: lehenengo zatian, orkestrak bakarrik joko du –*Feelings*, *Symphony*, *Patrizia*, *Carmen*, *The Mission*, *Close to you*, *Udazken koloretan*, *Salbadorren heriotza* eta *El Caserio*–; eta bigarrenean, Aritzeta abesbatzarekin eta Musika Eskolako umeen abesbatzarekin batera jardungo dute orkestrako kideek –*Miserableak*, *Urdiroz*, *Avatar* eta *Bost Lerro*.

# Alemaniarako bidea hartu du Arrasateko Big Bandek

Bi kontzertu eskainiko dituzte arrasatearrek: hilaren 26an eta 28an, Munichen

A.E. | ARRASATE

Munichera, Bavierako hiriburura eramango dute musika eta giroa Arrasateko musikariek. Gaur hartuko dute Alemaniarako bidea, eta han izango dira ekainaren 29ra arte.

Munichen bi kontzertu eskaintzeko asmoa du Arrasate Musikaleko Big Band taldeak. Lehenengoa hilaren 26an Freies Musik Zemtrum auditoriumean eskainiko dute, 19:00etan. Hilaren 28an, ostera, Municheko Europako Eskolako auditoriumean eskainiko dute kontzertua, 12:00etan.

**Arrasaten, uztailaren 1ean**

10. urteurrenaren harira jaialdi berezia egingo dute uztailaren 1ean Arrasaten bertan. 22:30ean izango da kontzertua eta Arrasateko musikariek taldearendako esanguratsuak izan diren piezak joko dituzte.

# Galartaren koloreek hartu dute Kulturate

Uztailaren 17ra arte egongo dira ikusgai Julio Galarta margolari handiaren lanak Kulturateko klaustroan. Galartaren 60 bat lan jarri dituzte ikusgai. Inaugurazio ekitaldian Galartaren lana nabarmendu zuten, eta baita hark koloreei ematen zien garrantzia ere: *Koloreen maisua* bezala ezaguna zen Galarta handia.



ARANTZAZU EZKIBEL



Laukote donostiarra, *Los Golden en serio* ikuskizunean. | GOLDEN APPLE QUARTET

# Dibertsioa eta ustekabea Monterronen, Golden Apple Quartet taldearen eskutik

## Laukoteak 'Los Golden en serio' musika emanaldia egingo du gaur

**MIRIAN BITERI** | ARRASATE

San Juan jaien harira, Golden Apple Quartet talde donostiarrak *Los Golden en serio* izeneko ikuskizuna aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Monterron parkean, 22:30ean. Ordu eta erdi pasata iraungo duen emanaldi berritzailea aurkeztuko du oraingoan; umorea baztertu barik, musikari garrantzia ematen dion muntaia eskainiko du.

Laukotearen zazpigarren ikuskizuna da, eta horretan, ahots trebetasuna eskatzen duten askotariko musika genero eta estiloak jorratzera ausartu da. Besteak beste, flamenkoa, opera, gargarak, zirkua eta aho malabarismoak erabili dituzte, eta baita txotxongiloak ere.

### Patxi Barco zuzendaritzan

Horretarako, Patxi Barcoren laguntza izan du Edu Errondosorok, Kike Otxoak, Loyola Garmendiak eta Manu Romanok osatzen duten laukoteak, hura da-eta ikuskizun horren zuzendaria. Gidoia, ostera, Carlos Zabalarena da. Azken horren gidoiari esker, ikuskizun horrek egiten duen musika ibilbideari dagokion dramaturgia egitura eraiki ahal izan du taldeak. Hori guztiori, Edi Naudoren eszenografian bilduta, oso giro berezia ematen dio eszenari.

Ibilbide luzea dute Golden Apple Quartet donostiarrek agertokietan. Taldea 1986an osatu bazen ere, 1990ean egin zuten aurkezpen ofiziala, Donostiako jazz jaialdian. Ordutik hona, musika eta umorea uztartzen duten emanaldi dibertigarriak egin dituzte, hala nola *Golden en blanco y negro* eta *Erase una vez... Los Golden*. Umeei zuzendutako ikuskizunak ere badituzte; tartean, *Goibel* eta *Karabas*.

# Barre algarak ziurtatuta daude gaur gauean Oñatin

## 'Flipy'-k eta Pepon Fuentesek 'Dos con gafas' izeneko bakarrizketak eskainiko dituzte

**M.B.** | OÑATI

Oñatiko Corpus jaien barruan Enrique Perez *Flipy*-k eta Pepon Fuentesek eskainiko duten *Dos con gafas* bakarrizketendako sarrerak eskura daitezke oraindik. Interesatuek kultura etxean eros ditzakete 10 euroren truke; gazte txartela erakutsiz gero, 8 euro ordaindu beharko dituzte. Arratsaldean 16:30etik 20:30era lortu ahal izango dituzte. Ikuskizuna hasi aurretik ere erosteko aukera egongo da, baldin eta aurretik denak saltzen ez badira.

Gaur, egubakoitza, izango da *Dos con gafas* izeneko emanaldia Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30ean. Umore "harrigarria" eskainiko dute esandako bi aktoreek. Haien esanetan, ordubeteko iraupena duen saioan barre algarak ziurtatuta daude 30 segundoro, "jenio txarra" duen "komedia hutsaren" bitartez.

### 'El hormiguero'-n ibilitakoa

Ezagunak dira gaur Oñatin izango diren aktoreak: *Flipy* irratian, zineman eta telebistan ibili da, besteak beste. Azken horren harira, aipatzekoa da *El Hormiguero* saioko kolaboratzailea izan zela 2006. urtetik 2010era bitartean. ETBko *La gran evasión* programan ere irten da. *Stand-up comedy* bezala ezagutzen den generoan aitzindaria da, eta, horren harira, egindako lanagatik saritua izan da; esaterako, 2001ean, urteko komiko onena izendatu zuten. Pepon Fuentes ere esperientzia handiko gizona da. Besteak beste, *Noche sin tregua* programaren gidoilaria izan da, eta baita *Solo ante el peligro*-ko kolaboratzailea ere.



Enrique Perez *Flipy*. | GOIENA



Eskulturak eta margolanak daude ikusgai. | TXOMIN MADINA

# Fernando Mikelarenaren 15 lan Enpresagintzan ikusgai

## Uztailaren 30era arte bisita daitezke lesakarraren margolanak eta eskulturak

**T.M.-M.B.** | OÑATI

Oñatiko Enpresagintza Fakultateak Fernando Mikelarena artistaren lanekin osatutako erakusketa du ikusgai uztailaren 30ra arte, *No more boring fridays* ekimenaren harira. 15 artelan dira, margolanak batzuk eta eskulturak besteak.

Jaiotzez lesakarra bada ere, ibilbide artistikoa Donostian egin du Mikelarenak; ia hogei urtean Eduardo Txillidarekin elkarlanean aritutakoa da. Lanek badituzte hainbat berezitasun; esaterako, ez dute izenik, egileak nahiago du-eta ikusleak askatasunez interpretatzea. Artelanen oinarrizko materiala, gainera, alabastroa da, beste hainbat materialekin konbinatuta. Hala, hondartzako harea, burdin oxidoa eta adreilu hautsa ere erabiltzen ditu.






Jon Membrillera | DJa

Jon Membrillera, iaz martxoan argitaratutako lana eskuetan duela.

ASIER ALKORTA

# "DJ on batek ezin du nahi duen musika bakarrik jarri, aurrean duen publikoa kontuan izan behar du"

**ASIER ALKORTA** | BERGARA

Gazte-gaztea zenetik musika kaseteekin jolasten ibiltzen zen, soinuak nahasten. Urteek aurrera egin ahala, jolas hori zaletasun bilakatu zen. Eta bide horretatik, orain, asteburu guztietan, DJ lanetan ibiltzen da Irungo Itzela diskotekan. Jon Membrillera (Elgoibar, 1985) izena badu ere, asteburuetan Jon izatetik *DJ Nanux* izatera pasatzen da.

**Noiz eta nola hasi zinen DJa izateko pausoak ematen?**
Duela hamabi urte inguru hasi nintzen, gazte-gaztetatik. Hasieran, kaseteak hartu eta soinuak nahasten hasi nintzen, eta, gutxinaka, dirua lortu nuenean, nahasketa-mahai bat erosi nuen. Poliki-poliki joan naiz gauzak erosten. Gero, bestetik, etxean orduak eta orduak sartzen nituen musika nahasten. Solfeoa ikasi nuen txikitan eta hori ere baliagarri izan zait.

**Asko praktikatu behar da?**
Praktika ezinbestekoa da, baina ez da behar den gauza bakarra. Horretaz gain, pazientzia ere behar da; handia, gainera.

**Pazientzia zertarako?**
Lortu nahi duzun soinu hori lortzeko pazientziarekin lan egin behar da, denbora behar izaten da-eta, ez da erraza.

**Solfeoa ikasi zenuela esan duzu. Zertan lagundu dizu horrek?**
Soinuak nahasteko eta soinu ezberdin horiek elkarren artean egokitzeko erraztasuna eman dit solfeoak. Baina solfeoa ez da beharrezkoa DJ ona izateko. Profesional asko ezagutzen ditut solfeorik inoiz ikasi ez dutenak. Profesio honetan praktika eta konstantzia dira garrantzitsuenak. Eta, nola ez, interesa.

**Asteburuetan lan egiten duzu beti?**
Normalean, barikuetan eta zapatuetan lan egiten dut, bai, baina astean zehar jai bereziren bat edo egiten bada eta deitu egiten badidate, ba, han egoten naiz.

**Saioak aurretik prestatzen dituzu ala ez?**
Ez, normalean gordinik joaten naiz, aurrean dudan publikoaren arabera modu bateko edo besteko saioa egiten dut-eta. DJ batek ezin du berak nahi duen musika bakarrik jarri. Saio baten, DJ on batek aurrean duen publikoa, giroa... kontuan izan behar ditu.

**Itzelan lan egiten duzu. Gustura zaude bertan?**
Bai, oso gustura. Bost pista ezberdin daude eta giroa ona da. Gainera, diskotekako nagusiak aukera eman dit nire zaletasuna garatzeko, hori eskertzekoa da.

**DJa da zure profesio bakarra?**
Ez; langabezian banago ere, izatez arotza naiz. DJ izatea ez dut hartzen lan moduan. Ez dut diru askorik lortzen, baina zaletasun dut eta gustura egiten dut.

**Asteburuetako erritmo horrek ez zaitu nekatzen?**
Bai, oso nekagarria da. Eta aste bukaera baten barikuan eta zapatuan lan egiten badut, hori askoz gogorragoa izaten da.

**DJ izatetik bakarrik bizi izan nahiko zenuke?**
Bai, polita izango litzateke. Baina hori oso urrun dago; batek daki...

**Disko bat ere atera zenuen, ezta?**
Bai, *Feels the concert* izenburupean atera nuen. Ilusio handia egin zidan. Duela urte bat atera nuen, iaz, martxoan.

**Zenbat denbora eman dezakezu musika jartzen?**
Ez daukagu ordutegi zehatzik. Batzuetan DJ gonbidatuak etortzen dira eta haiei lagatzen diegu tartea. Baina zazpi ordu jarraian egon izan naiz, eta lan guztia biniloekin egiten.

**Nahiago duzu biniloa?**
Bai, kalitate handiagoa du.

**Konpetentzia handiko mundua da DJaren mundua?**
Bai, oso. Pikeak egoten dira DJ ezberdinen artean. Ona izateaz gain, mundu honetan, gehien mugitu eta leku askotan dagoenak egiten du aurrera.

**DJ izateak zein ekarpen egiten dizu?**
Zer edo zer berezia egiten dudala sentitzen dut, eta gustatu egiten zait. Asteburua heltzen denean pozik egoten naiz.

## PERTSONALA

**Bidaiatzeko leku bat:** New York.
**Kolore bat:** Morea.
**Janari gustukoena:** Rissotoa.
**Herri bat:** Bergara.
**Galtzeko toki bat:** Bora-Bora uharteak.
**Musika estilo bat:** Nirea.
**Telebistan ikusten duzuna:** Discovery Channel.
**DJ bat:** Ni neu.
**Diskoteka bat:** Itzela (Irun).
**Zure saioetan falta ez den abestia:** *Feels the concert* nire laneko edozein tema.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro eraikiko etxebizitza salgai. 50 metro koadro erabilgarri. Erdigunean. Jantzia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 64 67 38,

**Arrasate.** Erdigunean, Seber Altuben. Bizitzera sartzeko moduan. Hiru ligela, bi komun, sukaldea, jangela-egongela, trastelekua eta igogailua. Azken solairua. Komunitateko terrazarekin. Garajerik ez. 270.455 euro. Deitu 9:00etatik 13:00etara bitartean. Kristina. 635 75 50 36, edo 943 79 24 59

**Bergara.** San Antonen etxebizitza salgai. 65 metro koadro. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, balkoia, hall-a, miradorea. Bi aparkaleku eta trastelekua terrazarekin. Urbanizazio pribatuan. 138.200 €. 629 45 58 51

**Elgeta.** Etxebizitza 80 metrokoa, salgai: hiru gela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Prezio interesgarria. Deitu658 75 84 58 telefonora.

**Oñati.** 68 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, komuna, sukalde guztiz hornitua eta egongela handia. 258.000 euro. Erdigunean. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 35 metro koadroko garajea aukeran. 659 72 06 64

**Oñati.** Duplexa salgai Atzekokalen, hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela dauzka. Igogailua dauka. Eraikuntza berriko etxea da. Garagea aukeran. Deitu 607 58 00 99 edo 625 70 54 44 telefonoetara.

**Oñati.** Kalebarria 32an 80 metro koadroko etxebizitza ederra salgai. 9 urteko aintzinatasuna. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi bat. Igogailua eraikin berean garajeraino dauka. Kalitate handiko etxebizitza, diseinuzko altzariz hornitua. Prezio negoziagarria. Garaje itxia aukeran. Deitiu 622 42 83 18 telefonora.

**Oñati.** Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 24 80 02

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da, Udala enparantzaren inguruan (unibertsitatetik 200 metrora). Hiru logela, bainu bi, egongela. Jantzita. Deitu 669 70 85 88 zenbakira.

**Noja.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik 50 metrora. Bi logela, egongela, sukaldea eta terraza. Garajea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 78 77 23

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. 639 96 01 21

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ikasleendako egokia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 627 34 96 03

**Oñati.** Olakua 1.A-n, lau logeletako etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. Interesatuok deitu 619 18 07 44 edo 943 78 01 67 telefono zenbakietara.

**Torreviejan** atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia hondartzatik gertu. 4-6 pertsonendako lekua. 2 logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. Deitu 609 07 41 27 edo 649 88 79 17 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, pertsona bakarrarentzat. Kontratuarekin bada, hobeto. 622 53 51 25

**Baserria.** Baserria alokatuko nuke, lursailarekin. Gehienez 550 euro. 669 17 09 51

**Bergara.** Pareja arduratsuak etxebizitza alokatuko luke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 677 77 22 31

**Errentan hartu.** Bergaran, bi edo hiru logelako pisua hartu nahiko nuke errentan. Kontratuarekin eta presazkoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 62 59 57

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Erguin inguruan. 670 59 73 62

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Erguin auzoan. Jantzia. 290 euro hilean, gastuak barne. Deitu 648 19 10 38 edo 943 08 16 31 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko erdigunean. Inaki. 608 49 89 93

**Arrasate.** Uriburu kalean, unibertsitatetik gertu, pertsona bat behar da beste birekin batera etxebizitza osatzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 49 87 89

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bila nabil. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 71 52 50

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje bat ematen da errentan Arrasaten. Larrea etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan), unibertsitatik oso gertu. 60 euro hilabetean. Idatzi soliveira@hotmail.es helbidera edo deitu telefono zenbaki honetara: 678 53 82 48 (Sergio)

**Arrasate.** 28 metro koadroko garaje itxia ematen dut errentan Uriburu kalean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 33 67 04

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 36 17 82

**Aretxabaleta.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Deitu edozein ordutan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 13 54 56

**Aretxabaleta.** Edozein lanetarako gertu mutil gaztea: garbitasun lanak, zerbitzari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687 26 89 05

**Aretxabaleta.** Ikasle euskalduna gertu hainbat lan egiteko: umeak zaindu, nagusiekin paseatu, etxeko garbiketa edo lanak egin eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 91 17 06

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 41 24 79

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Emakumea, eskarmentuduna, nagusi zein umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. Deitu 685 21 24 89 edo 662 57 53 46 telefono zenbakietara.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Zerbitzari lanak egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 21 24 89

**Arrasate.** Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Neska gertu ile-apaintzaile laguntzaile jarduteko edo garbiketa lanetarako. Deitu 685 21 24 89 edo 662 57 53 46 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Berrogeita hamar urteko emakume euskalduna, esperientziaduna, etxebizitzak edo garbiketa lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 49 11 45

**Arrasate.** Nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egingo nuke. 681 27 99 54

**Arrasate.** Neska eskarmentuduna gertu nagusiak zaintzeko. 618 00 08 28

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaintzeko edo manikura, pedikura edo ilean trentzak egiteko umeei. Maria. 617 66 70 05 edo 943 77 10 99

**Arrasate.** Erizaina gertu nagusi edo gaixoak zaintzeko gauetan. Ospitalean edo etxean. 639 97 02 86

**Arrasate.** Umeak zaindu edo eskola partikularrak emango nituzke. Interesatuok deitu 696 78 75 71 telefono zenbakira.

**Bergara.** Emakume eskarmentuduna gertu nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 650 17 74 87

**Bergara.** Garbitasun lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko emakumea gertu. Deitu 671 18 50 83 telefonora.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko goizetan. 943 76 28 12 edo 656 73 64 51

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaitzeko, etxean eta ospitalean, eta garbiketa lanak egiteko. 620 68 05 89

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska, ikasketa soziosanitarioduna, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko gertu. 649 15 72 47

**Debagoiena.** Legezko paperak dituen emakumezkoa lan bila. Esperientzia dut etxeko lanetan eta nagusiak zaintzen. Etxean bizi izaten edo orduka. Etxe eta atarien garbiketan ere jardungo nuke. Juana. 695 75 42 45

**Deba Garaia Inmobiliaria**
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Sanantonabat, 75 $m^2$, oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Fraizkozuri, 75 $m^2$, eguzkitsua, berritua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 $m^2$. Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri. Aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Martoko. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 $m^2$. Terrenoarekin.
- Artekale 40 $m^2$. Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 $m^2$. Eguzkitsua. Prezio ona.
